



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2017ko irailak 21
Ordua: 09:05 – 12:25
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
María Lorente Burgos
Jose Luis de Valle Duque
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

2017ko ekainaren 30ean egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bestelako oharrik egin ez denez, 2017ko ekainaren 30ean egindako saioko akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Jose Luis de Valle Duque, EAJ-PNV (1), Alazne Lafragua Ureta, EHBildu (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

Alkatea: Ezer baino lehen, Eh Bildu eta EAJ udal taldeek aurkeztu duten baterako mozio bat, Kataluniak egun bizi duen egoerari buruzkoa da. Beraz, gaur aurkeztu denez, lehenik eta behin gai-zerrendan sartu behar den bozkatzea, gerora izapidetu ahal izateko.

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4).

Gai-zerrendan sartzea onartuta geratu da.

2- Kontu Orokorra onartzea.

Alkatea: dagoeneko kontuen batzorde bereziaren aldeko txostena dago. Buletinean erreklamazioak aurkezteko argitalpen-epea bete da eta ez da bat bera ere aurkeztu, eta orain 2016ko ekitaldiko kontu Orokorra Osoko Bilkuran onartzea dagokio. Zerbait esan nahi duzue? Orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4); Onartuta geratu da.

3.- Artziniegako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko kontratazio-espedientea eta Klausula Administratibo Berezien eta Baldintza Teknikoen Plegua onartzea.

Alkatea: aldeko irizpena eman da dagoeneko. Akordioa irakurriko dut.

“2017KO IRAILAREN 13AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Ikusirik, 2017ko ekainaren 19an Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta EAEko prozedurari dagokion dokumentuak eratzeko udal idazketa eta aholkularitzako zerbitzua kontratazeko premia hauteman zela.

Ikusirik, zerbitzuaren ezaugarriak direla medio, itxuraz prozedura egokiena prozedura irekia dela, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzarekin, hainbat esleipen-irizpide.

Ikusirik, 2017ko ekainaren 19an, kontratazioak indarreko aurrekontuaren baliabide arruntan gainean suposatzen duen portzentajeari buruzko Kontu-hartze txostena igorri zela, kontratazeko eskumeneko organoa zehazte aldera.

Ikusirik, 2017ko ekainaren 21ean Idazkaritzak txostena igorri zuela Legeria aplikagarriari eta jarraitzeko prozedurari nahiz kontratua onartu eta esleitzeko eskumena duen organoari buruz.

Ikusirik, 2017ko ekainaren 22ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, aipatutako kontratazioaren espedientea abiaraztea onartu zela, proposatutako kontratazioaren premia eta egokitasuna argudiatuz.

Ikusirik, 2017ko ekainaren 22an espedientera kontratuaren esleipena arautzeko Klausula Administratibo Berezien eta Baldintza Teknikoen Plegua gaineratu zela.



Ikusirik, 2017ko ekainaren 22an, Kontu-hartzaileak dagokion kreditu-atxikipena burutu zuela.

Aurreko guztia ikusirik, espedienteak aplikagarri den Legerian ezarritako izapidea jarraitu duela uste da Udalbatzan onartzea dagokiolarik, Legegintzako azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren Bigarren eta 110. Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz, kontratua Korporazioaren baliabide arrunten % 10 gainditzen duenez.

Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Idazkaritzaren txostena ikusirik, 2017ko ekainaren 23an egindako saioan Lurraldeko Informazio Batzordeak Udalbatzari proposatu zion honako,

AKORDIOA:

LEHENA. *Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta EAeko prozedurari dagokion dokumentuak eratzeko udal idazketa eta aholkularitzako zerbitzua kontratatze espedientea onartzea, prozedura ireki bidez, eskaintza onenarekin eta hainbat esleipen-irizpide finkatuta.*

BIGARRENA. *Udal honek aipatu kontratazioa gauzatzeko behar duen gastua onartzea, hau da, 233.209,97 eurokoa. Gastu hori indarreko ekitaldiko eta hurrengoetako Udal Aurrekontuaren gastuen egoera-orriko 151.642.001 aurrekontu-partidaren kargura izango da.*

HIRUGARRENA. *Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta EAeko prozedurari dagokion dokumentuak eratzeko udal idazketa eta aholkularitzako zerbitzuaren kontratazioa arautzeko Klausula Administratibo Berezien eta Baldintza Teknikoen Pleguak onartzea, prozedura ireki bidez, eskaintza onenarekin eta hainbat esleipen-irizpide finkatuta*

LAUGARRENA. *Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean lizitazioaren iragarkia argitaratzea. Horrela, interesdunek egokitzen jotzen dituzten proposamenak aurkezteko aukera izan dezaten HOGEITA HAMAR EGUN BALIODUNEKO epean zehar.*

BOSGARRENA. *Kontratatzailearen Profilean kontratazio-mahaiaren osaera argitaratzea, beranduenez, azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 146.1. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatzeko egiteko bilkura egin baino zazpi egun lehenago.*

Arkaitz San Jose Martinez: guk pleguen idazketari buruz, gaur onartzen diren moduan, ez dugu oharririk egiteko, izan ere, gure kezka nagusiak herritarren partaidetzarako plana modu egokian barneratzearekin lotuta zeuden batez ere, herritarrek beren ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Uste dugu hori islaturik geratzen dela. Enpresek edo, zehazkiago, esleipena ematen zaion enpresak egiten duen proposamen espezifikoagora eramango ditugu, era berean, generoarekin lotutako alderdiak eta gainerakoak, baina tira, hor Kuadrillako teknikaria lanean aritu da. Baina, aldi berean, beste hainbat ekarpen egin genituen, gure ustez, jaso direnak. Halaber, hainbat galdera luzatu genituen, agian ez dutenak izapide honekin zerikusiri handirik,



baizik eta plangintza berri bat onartzeak dakarren erronkarekin. Ildo horretatik, eta egin genituen galderak ez direla erantzun uste dugunez, bada Osoko Bilkuran berriro luzatuko ditugu. Eta hitzez hitz irakurriko dut Erregistroan sartu genuen dokumentua: “Uste dugunaren arabera, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko prozesua abiatzen den unean udal plangintzarekin lotutako oro etenik geratzen da, baina, zein unetik aurrera? Pleguak onartzen direnetik edo soilik HAPO planaren hasierako onarpena ematen denetik aurrera?” Hau da, gaurtik aurrera edo hasierako onarpenetik aurrera?

Alkatea: Hori Batzordean eztabaidatu genuen.

Arkaitz: zenbait gauza bai. Zein egoeratan geratuko lirateke onartzeke dauden Arau Subsidiarioen berrikuspenak? Osoko Bilkuran eta, gutxienez, birritan, ez urbanizatzea aurreikusten diren partzela urbanizagarri buruzko zergak murrizteko aukera planteatu da, hori planteatu duten pertsonen gaia jorratuko dela esan zaie, baina momentuz ez da jorratu inondik ere. Halaber, Indarreko Plangintzan beteko ez diren garapenerako zenbait horizonte ezartzen dira. Horrenbestez, berrikuspen egokia egiten badugu, edo gure ustez udalerraren etorkizuneko bilakaera izango denari egokitu beharko zatekeen moduan, lurzoruaren zenbait sailkapen aldatu egin beharko lirateke eta, horrenbestez, Plan Orokorren azken berrikuspenarekin eskuratutako zenbait eskubide murriztuta geratuko lirateke. Zer-nolako eragin legezko eta ekonomikoak izango lituzke sailkapena aldatzeak, esate baterako, urbanizagarri izan den zoru bat berriro urbanizaezin bilakatzeak? Partaidetzaren garrantzia ere aipatu genuen, baina tira, ikusiko dugu hori gero nola aplikatzen den. Pleguetan, bederen, jasotzen dira gutxienezko bilkura kopuru bat eta bestelakoak. Eta, ondoren, bada beste kontu bat, hots, Euskadiko Lurraldea antolatzeko Jarraibideetan adierazten denez, Artziniegak 2. egoitzako deiera bat izan behar du. Agian Erkidegoko Gobernuen hori egokia dela irudituko zaie, baina ez da zertan izan behar guk guregain hartu beharreko zerbait. Ildo horretatik, era berean, zer-nolako fideltasun-maila izan behar dugu guk jarraibide horiekin, zeintzuen arabera Artziniegarentzat onena bigarren egoitzako deiera duen eremu modura garatzea den?

Alkatea: beno, batzordean jorratu ziren gai horiek. Zehazki, aplikazioari dagokionean, partzelen kasuan OHZ murrizteari dagokionean, jadanik esan zen Aldundiarekin dagoeneko kontsulta egin dela eta ezin da aparteko tasa bat finkatu. Edozein kasutan, katastro-balioespen ezberdin bat izango da eta hori Aldundiaren eskumena da, ez Udalaren eskumena. Ezin dira tasa ezberdinak ezarri. Beste bat, zein egoeratan dago Arauen aldaketen kontua egun? Izan ere, kontu hori teknikoagoa da, baina uste dut aurrera jarraitzen dutela Arauak indarrean jarraitzen duen artean. Noiz sartuko da lizentzien etendura? Bada, hasierako onarpenean. Eta ondoren Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan ezarritakoari dagokionez, bada begira, esango dizut guk, Udalak hasiera batean hiri Antolamendurako Plan Orokorren hasierako onarpena ematen duela, baina gero iragazki asko pasa behar dituela. Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordetik pasa behar da eta, ondoren, behin betiko onespina Foru Aldundiak ematen du. Hots, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Artziniegako Udalak onartu aurren, gerora beste erakunde batzuk sartzen dira eta horiek ere badute zeresana, eta sarritan lotesleak dira. Orduan, bada, hori da. Ateratzen dena, bada, partaidetza-prozesutik ateratzen dena eta hiri Antolamendurako Plan Orokorren eraketatik ateratzen dena.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina muga horiek guztiak ere argi izan beharko dira herritarrak mugiarazten hasterakoan. Hau da, guk industriaren edo turismoaren alde egiten dugu, eta gero esaten diguten bigarren egoitza izan behar dugula eta bere horretan irensteko, jendeak, beno eztabaida hori...

Alkatea: hori Planaren idazketan jorratu beharreko zerbait da. Besterik? Bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

4.- 2017ko ekitaldirako % 1eko ordainsari-igoera onartzea

"2017ko irailaren 13an egindako saioan Antolamendu eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpena.

Gaia: 2017ko ekitaldiko % 1eko soldata-igoera

2017ko ekainaren 28an 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Lege horretan, hartako Hirugarren Tituluan, Langileen Gastuei buruzkoan, zera xedatzen da, 18.2. artikuluan: "2017. ekitaldian sektore publikoko zerbitzura dauden langileen 2017rako ordainsariek ezingo dute 2016ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean ehuneko batetik gorako igoera orokorrik jasan, bi alderaketa aldietarako homogeneotasun baldintzetan, ez langileei dagokienez, ez horien antzinasunari dagokionez"

EUDEL erakundeak, 2017ko uztailaren 17an igorritako idatzi bidez (1956. Sarrera) jakinarazi zuen 2017ko uztailaren 13ko Batzorde Betearazleak egindako saioan 2017. ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeko 18.2. Artikulu hori aztertu zuela eta Euskadiko Udalei aipatu ordainsari-igoera onartzeko gomendatzen die.

Adierazitakoa oinarritzat hartuz, Antolamendurako eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

LEHENA.- 2017. ekitaldian Artziniegako Udaleko langileen ordainsarrietan % 1eko igoera izatea 2016ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, alderatzen diren bi epealdietarako homogeneotasunari so, hala langile kopurua nola haien antzinasuna kontuan hartuz, hori guztiori 2017ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legeko 18.2. artikuluan ezarritako aukerarekin bat etorritz, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanik. Espedientea: 2286."

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoa (1).

Onartuta geratu da.

5.- Udal gazte zentroa kokatzeko asmoarekin Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren laugarren eta bosgarren ziurtagiriak onartzea.

"2017KO IRAILAREN 13AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.



Gaia.- Gazte zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren laugarren eta bosgarren ziurtagiriak onartzea.

Ikusirik 2017ko ekainaren 14an INDENORT P.V S.L. sozietateak aurkeztutako 037/17 faktura, 75.056,11 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren laugarren ziurtagiriari dagokiona.

Ikusirik 2017ko uztailaren 19an INDENORT P.V S.L. sozietateak aurkeztutako 44/17 faktura, 35.891,09 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren bosgarren ziurtagiriari dagokiona.

KONTUAN HARTUZ lanak INDENORT P.V S.L. enpresari esleitu zitzaizkiola 175.333,30 euro gehi BEZ zergaren 36.819,99 eurotan, guztira, 212.153,29 euro izanik, Udaltzaren 2017ko urtarrilaren 12an hartutako akordio bidez.

KONTUAN HARTUZ Udal arkitektoak 2016ko ekainaren 13an aldeko txostena igorri zuela 2016ko maiatzaren 8an 1399 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako Proiektua onartzearen inguruan, esku-hartzea arkeologia aldetiko kontrolaren baldintzapekoa dela azpimarratuz.

KONTUAN HARTUZ Emilio Belon jaunak, obraren zuzendariak, 2017ko ekainaren 6an laugarren ziurtagiriaren txostena igorri zuela, bertan hurrengoa jasoz:

“... Hura behar bezala gauzatu da, dokumentazio grafikoan jasotzen dena eta beheran sinatzen duenaren zuzendaritza teknikoak esandakoa betez, jarraian zehazten diren partidak, zeintzuen zenbatekoak honakoak baitira: Hirurogeita hamabost mila eta berrogeita hamasei euro eta hamaika zentimo.

Obran egiaztatu ondoren emaitzetan arkitektoak emandako Egikaritze Proiektuaren dokumentazioan ezarritako betekizunak betetzen direla, segidan banakatzen dira jarraian aipatzen diren partidetatik eratortzen diren kostuak, obraren sustatzaileak kontratistari ordain diezaion.

Ziurtagiri honetan igoerak izan dira jarraian zerrendatzen diren partidetan, jatorrizko Proiektuaren neurketekin alderatuz.

01.08 partida. Igoera estaldura gauzatzeko beharrezkoa den aldamioaren m2tan

05.02 partida. Igoera alikatatu aurreko zarpiatzearen m2tan

05.04 partida. Beharrezkoa den igeltsu-luzituaren neurketa gehigarria

15.02 partida. Igoera eraispenetatik eskuratutako obra-hondakinatarako edukiontzi kopuruan

KONTUAN HARTUZ Emilio Belon jaunak, obraren zuzendariak, 2017ko uztailaren 18an bosgarren ziurtagiriaren txostena igorri zuela, bertan hurrengoa jasoz:

“... Hura behar bezala gauzatu da, dokumentazio grafikoan jasotzen dena eta beheran sinatzen duenaren zuzendaritza teknikoak esandakoa betez, jarraian zehazten diren partidak, zeintzuen zenbatekoak honakoak baitira: Hogeita hamabost mila eta zortziehun eta laurogeita hamaika euro eta bederatzi zentimo.

Obran egiaztatu ondoren emaitzetan arkitektoak emandako Egikaritze Proiektuaren dokumentazioan ezarritako betekizunak betetzen direla, segidan banakatzen dira jarraian aipatzen diren partidetatik eratortzen diren kostuak, obraren sustatzaileak kontratistari ordain diezaion.

Ziurtagiri honetan igoerak izan dira jarraian zerrendatzen diren partidetan, jatorrizko Proiektuaren neurketekin alderatuz.

01.11 partida. Igoera Hondakinak Kudeatzeko unitateetan.

02.07 partida. Igoera egitura nagusiaren Kg-en neurketan.



- 02.08 partida. Igoera bigarren mailako egituraren Kg-en neurketan.*
- 04.02 partida. Igoera hutsune bikoitzeko adreiluaren fabrikako m2-aren neurketan.*
- 04.03 partida. Igoera pladurrezko trenkada-multzoaren neurketan, aurpegi batean.*
- 04.06 partida. Igoera igogailu-kutxaren itxieran altzairuzko plaka laguntzaileen Kg-ko neurketan.*
- 05.04 partida. Igoera perla koloreko igeltsuzko luzituaren neurketan hormetan.*

*Azaldutakoa kontuan hartuz, Lurralde Informazio Batzordeak, irailaren 13ean egindako saioan, aho batez, aldez aurretik igoeren balioespen ekonomikoa aurkeztuta, Udalbatzari proposatu zion har dezala hurrengo **AKORDIOA**:*

Lehena.- *Laugarren obra-ziurtagiria eta hartako igoerak, nahiz 2017ko ekainaren 14an INDENORT P.V S.L. enpresak aurkeztutako 037/17 faktura, 75.056,11 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren lehen ziurtagiriari dagokiona, onartzea.*

Bigarrena.- *Bosgarren obra-ziurtagiria eta hartako igoerak, nahiz 2017ko uztailaren 19an INDENORT P.V S.L. enpresak aurkeztutako 044/17 faktura, 35.891,09 eurokoa, gazteen zentroa kokatzeko Udaletxe zaharra birgaitzeko obraren lehen ziurtagiriari dagokiona, onartzea.*

Hirugarrena.- *Ekonomia Garapen eta Lurraldearen Orekarako Sailari akordio honen berri ematea, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean onartutako diru-laguntza izapidetu dadin, espediente-zenbakia: 16/10125-P."*

Unai Gotxi Kastrexana: Nik, laugarren ziurtagiriari dagokionez, teiltuaren obra barneratzen duenari buruz galdera bat egi nahi nizuke, ekaineko azken batzordean aipatu nizun, kanpotik ikusita behin aldarnioak kenduta teiltua ikusten zen, akaberak ez ziren oso egokiak, nolabait esatearren, eraikinaren balio historikoa kontuan hartuz, are gehiago hirigune historikoan egonik eta, era berean, agerian geratu da fatxadaren orban bat, teilaren hautsa dirudiena, kendu ez dena behin aldarnio kenduta ere. Gai horri buruz zerbait jakiterik dagoen galdetu nahi nizun, obrako buruari helaraziko zeniola esan baitzenidan.

Alkatea: behin aldarnioa kenduta dagoeneko zaila izango da, baina tira, helaraziko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: fidantza atxikitzea edo dena delakoa egitea aurreikusten da akats hori konpontzeko, besterik ez bada.

Alkatea: azken ziurtagiriaren unean ikusi beharko da.

Unai Gotxi Kastrexana: izan ere, teiltukoa konplikatu samarra.

Inmaculada Vivanco Retes: edozein modutara Unai, batzordean aipatu zenuena, dagoeneko amaituta zeuden teiltuko uren junturen akaberen kontua, estalita bezala zeudenak, nik begiratu dut eta maskor baten modukoa den pieza antzeko batekin amaitzen dira.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, bai, akabera hor dago. Aldea alboko teiltuetan begiratzu ikusten da, batez bere mojena, ezkutuago geratzen dira. Udaletxe zaharrean ageriago geratzen da. Horrez gain, tiranteetako bat, edo ez dakit zer, gailur bat, edo ez dakit nola izendatu, erdirantz igotzen dena, hor nabaritzen da hortik doan teiltua apur bat hondoratuta dagoela. Eta litekeena da obran eraginik ez izatea, baina Udaletxe Zaharra eraikin historikoa izanik, herrigunean gainera, bada, narrats samar geratzen da.

Inmaculada Vivanco Retes: nik ez dakit, ni ere begira aritu nintzen eta begiratzen duzun puntuaren ikuspegiaren arabera dela uste dute.

Unai Gotxi Kastrexana: begiratzen ez baduzu ez duzu ikusten, baina egia da eraikin horretan estetika zaindu egin behar dela pixka bat.

Jose Luis de Valle Duque: udal teknikariak daude, joan daitezela hura bisitatzerara.

Unai Gotxi Kastrexana: eta nik balora dadila.



Jose Luis de Valle Duque: goitik esan nahi dut, ikusi ez badute ere, badaezpada. Zuk ikusi duzuna agian ez dute ikusi teknikariek.

Unai Gotxi Kastrexana: kaletik ikusten da.

Jose Luis de Valle Duque: bai, baina litekeena da.

Alkatea: obrako zuzendariak ikusi du.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik badaukat gauza bat lñigo, nik aldeko botoa emango dut, batzordean abstentzioa emango nuela esan nuen. Teknikarien txostena iritsi da igoeren balioespenarekin, baina Alkatetza honi eskatzen diot txostenak dagozkion batzordetan aurkez daitezela denbora eta modu egokian. Ez da bidezkoa atzo arratsaldean teknikarien txostena igortzea niri eta gaur sartu aurretik zer egin behar dudan esateko eskatzea. Onartu egingo dut baina mesedez eskatzen dizut, berriro ere, Alkatetza honi hori errepikatzen diot, guri txostenak lasaitasunez irakurri eta aztertzeko nahiko asti emanez aurkezteko, Osoko honetara etorri eta botoa kalitatez eman ahal izateko.

Alkatea: ongi, baina egia da bazela dagoeneko erredaktorearen txosten bat, aldaketen txostenarekin. Batzordean igotzea eskatu zen, ziurtagirietan orokorki agertzen ziren igoera horiek kuantifikatzeko eskatu zen, eta astelehenean entregatu zuen, uste dut astelehenean entregatu zuela.

Joseba Elejalde Ribacoba: gauza bat da batzordean aztertzea, balioestea, informazio gehiago eskatzea taldeok uste dugulako ematen zaigun informazioa ez dela baliagarri erabaki bat balioetsi ahal izateko. Eta txosten hori Udalbatza egiten denerako ez badago garaiz eta forma egokian, bada hurrengo Udalbatzarako uzten da, edo informazioa Araudiak adierazten duen 48 orduko epearekin ematen zaigu. Izan ere, sarritan gertatzen dena da hona iristen garela eta papera ematen diguzuela, eta aztertzeko puntua baino lehenxeago irakurtzen egon behar dugu, edo atzo bezala, posta elektronikoz igorri eta telefono bidezko dei bat egin baitzeniguten zer egin behar ote dugun eskatuz modu batera edo bestera jokatzeko. Nik uste dut, azken batean, nahiko denbora daukagula gauzak ongi egiteko eta Alkatezak kontuan har dezala, besterik gabe. Eta hurrengo egunean ez gaitzela egoera honetan egon.

Alkatea: kontuan izango dugu, baina era berean esan behar dizut Udalbatzak onartzen dituen ziurtagiri horiei buruz, Foru Planaren kargura finantzatuta daudenak eta Udalbatzak onartzea eskatzen dutenak, gero kontratuen legean ere ziurtagiria onartzen denetik epe jakin bat ordaintzea ezartzen dela. Eta ziurtagiriak Obrako Zuzendariaren onespenerekin daude hor sartuta.

Joseba Vivanco Retes: guk, Unaiak aipatu duenaz gain, gure taldeak abstentzioa emango dio ziurtagiriak onartzeari, hasiera batean ez dut errepikatuko Josebak esan duena, obrako igoera horiek ekarriko zituen zenbateko ekonomikoa falta zenaren inguruan egin genuen eskaerari buruz, atzo arratsaldez helarazi zitzaigun, zenbakiak begiratu ditugu eta hasiera batean 15.000 € inguruko igoera dago esleipen-aurrekontuaren gainean, hasiera batean, pentsatzen du zertxobait gehiago izango dela. Era berean, ezin izan dugu datu horiekin lotutako balioespenik egin. Pentsatzen duguna da, hala uste dugu, oker ez bagaude, egiturazko aldaketaren bat egon dela zera, ez dut gogoan oraintxe bertan igogailuaren kontua zela eta handitu egin zen beheko bainuari buruz, ez dut ongi gogoratzen, pentsatzen dut aldaketa horiek, egiturazkoak direnak edo dena delako izena dutenak, pentsatzen dut pasatuko zirela, ez dakit Gobernu Batzordetik gauzatzen diren aldaketak onartzeko, kasu honetan, egiturazko beste aldaketaren batzuk gauzatu badira horiek ere ez dira pasatu, eta orduan bada aldaketak egiten direnean errespetada dila eta Gobernu Batzordetik pasa daitezela. Eta, gero, azkenik adierazi nahi dut egin beharko dela, nik ez dakit azkenean, pentsatzen dut egongo dela Udala ordezkatzuz obraz arduratzen ari den arkitektoaren txosten bat egongo dela, non gauzatutakoaren oniritzia ematen den, baina Udala zabalik egon den egunotan eta jendea hura ikustera sartu ahal izan denean, pentsatzen dut denak, jendea ere bai, konturatuko zirela hainbat xehetasuni buruz, zeintzuk ez dakit gerora zuzenduko diren. Esate baterako nik ikusi dudana bat, eta uste dut guztiok konturatu garela, baranden kontua. Literalki gu hartan bermatu ginenean bat erori egin zitzaigun, eta pisu handi samarra dute. Gero ez dakit euskarriak horrenbesteko pisua duten baranda horiek eusteko adinako irmotasuna duen, ez gara adituak, baina iruditzen zaigu, ez dakit hala izango den, gehiago ere bazirela mugituta. Halaber, esan ziguten beste xehetasun bat, adibidez, bainuetako



ateak lerragarriak dira, baina atean ez dago zulorik hatza sartu eta lerratzeko, hau da, eskua jarri eta lerrarazi egin behar da, horrek suposatuko duenarekin, eta horrez gain aipatu dizkiguten beste zenbait xehetasun, esate baterako, bainuak ez daudela goraino itxita, ez dakit arrazoiren batengatik izango den ala ez, bainuan dagoen inoren intimitatearen aurkakoa izan daitekeen edozer gauza ekidite aldera. Jendeak esan dizkigun xehetasunak dira, irekita egon dela baliatuta ikusi egin baitu jendeak, baina pentsatzen dut aurrerago komentatu beharreko xehetasunak izango direla, ez dakit behin amaitu eta berrikusi behar denean edo.

Alkatea: bada, lehendabizi ikusi dezagun behin amaituta dagoenean, oraindik amaitzeke baitago. Mesedea eskatu behar izan genien, obra amaituta ez bazegoen ere, jaietarako eta erdi aroko azokarako sartzen uztekoa, eta aste honetan amaitzeko lanean ari dira dagoeneko. Bozka dezagun.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martínez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4);

Onartuta geratu da.

6.- “Barcena aparkalekurako urbanizaziorako” obren lehen eta bigarren ziurtagiriak onartzea, eta baita jardunbide gehigarriak ere.

“2017KO IRAILAREN 13AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia.- Barcena auzoko 5. Zenbakian “Barcena” aparkalekurako urbanizazio-obraen lehen eta bigarren ziurtagiriak onartzea.

Ikusirik 2017ko uztailaren 12an ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. sozietateak aurkeztutako 5.120 zenbakidun faktura, 22.829,55 eurokoa, “Barcena” aparkalekurako urbanizazio-obraen lehen ziurtagiriari dagokiona.

Ikusirik 2017ko irailaren 12an ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. sozietateak aurkeztutako 5149 zenbakidun faktura, 31.467,20 eurokoa, “Barcena” aparkalekurako urbanizazio-obraen bigarren ziurtagiriari dagokiona.

KONTUAN HARTUZ lanak ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. enpresari esleitu zitzaizkiola 157.418,62 euro gehi BEZ zergaren 33.057,91 eurotan, guztira, 190.476,53 euro izanik, Udalbatzak 2017ko martxoaren 23an hartutako akordio bidez.

KONTUAN HARTUZ Tokiko Gobernu Batzordeak 2016ko ekainaren 14an egindako ezohiko saioan Barcena auzoko 5. zenbakian “Barcena” aparkalekurako urbanizazio-proiektua onartu zuela, Ignacio Pedreira jaunak idatzita, udal teknikariaren aldeko txostenarekin.



KONTUAN HARTUZ Ignacio Pedreira Ruiz de Arcautek, 2017ko uztailaren 20an, txosten hau igorri zuela:

“Ignacio Pedreira Ruiz de Arcautek, Artziniegako Barcena Aparkalekuko Urbanizazio-lanen Zuzendari modura, eta dokumentu honetan atxikitzen den lehen ziurtagiriari dagokionez, jakinarazten du egindako eta ziurtatutako lanak bat datozela Udalak onartutako Proiektuan zehaztutakoekin, zeina obretako lizitazioaren oinarri modura erabili baitzen”.

KONTUAN HARTUZ Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute jaunak, 2017ko irailaren 13an (2388 zenbakidun sarrera), txosten hau igorri zuela:

“Ignacio Pedreira Ruiz de Arcautek, Artziniegako Barcena Aparkalekuko Urbanizazio-lanen Zuzendari modura, eta dokumentu honetan atxikitzen den bigarren ziurtagiriari dagokionez, jakinarazten du egindako eta ziurtatutako lanak bat datozela Udalak onartutako Proiektuan zehaztutakoekin, zeina obretako lizitazioaren oinarri modura erabili baitzen”.

KONTUAN HARTUZ Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute jaunak, 2017ko irailaren 13an (2389 zenbakidun sarrera), jardunbide gehigarri buruzko txostena igorri zuela eduki honekin:

“Ignacio Pedreira Ruiz de Arcautek, Artziniegako Barcena Aparkalekuko Urbanizazio-lanen Zuzendari modura, eta aipagai diren obrei buruz zera jakinarazten du:

Obrek irauten duten bitartean, eta Arabako foru Aldundiko errepide Siletik nahiz Uraren Euskal Agentziatik jasotako arloko baimenetatik eratorrita, proiektua egokitu egin behar da, jarraian zehazten diren aldaketak barneratuz:

- URA Uraren Euskal Agentziaren aldetik eskatzen da kiroldegiko arazketa-sistemaren isurketa berria izapidetzea, autokarabanen zerbitzugune berria hornitzekoa. Halaber, txosten horretan eta URA agentziarekin gerora egindako bilkuretan, isurketa horren baldintzak betetzeko zailtasuna adierazten da. Horrenbestez, ur grisak (dutzak eta komunak) kiroldegiko putzura eramateko alternatiba bat aztertzea erabaki da, eta ur beltzak, aldiz, putzu septiko itsu batera bideratuko dira, autokarabanen zerbitzugunetik hurbil lurperaturik kokatuko dena.

Itzenbide horrek exekuzio materialean 6.480,00 euro inguruko kostua dakar.

- AFako errepide Siletik obren baimena igorri da, errepideko zortasun-zonaldean kokatutako aparkamendu-plazak kentzearen baldintzapean. Neurri horrek 5 aparkamendu-plazetan du eragina, zehazki.

Neurri horrek aipatu plazak kentzea dakar berekin, eremu hori zonalde berde modura geratuko delarik. Horrenbestez, hormigoizko zolarriak kendu egingo dira, haren orde z landare-lurra zabaltzeko. Horrek aurrekontua 1.933,00 euro inguruan murriztea dakar.

- Artziniegako Udalaren aldetik ibilgailuen sarbidea kiroldegiko ate nagusian mantentzeko eskatzen da. Horregatik, ezinbestekoa da, proiektuan aurreikusitako oinezko sarbidearen arrapala eraikitzeako gauzatutako harri-lubeta kentzea, eta ondoren ibilgailuentzako arrapala bat eta eskailera bat eraikitzea.

- Itzenbide horrek 2.246,00 euro inguruko gailak dakar exekuzio materialean”.

Horrek guztiorrek 9.086,00 euroko igoera gehi BEZ zergari dagozkion 1.908,06 euro suposatzen du, guztira 10.994,06 euroko igoera; eta 1.993,00 euroko jaitsiera, gehi BEZ zergari dagozkion 405,93 euro, guztira 2.338,93 euroko jaitsiera.



Azaldutakoa oinarritzat hartuz, irailaren 13an egindako saioan Lurralde Informazio Batzordeak, EAJ taldearen zinegotzien aldeko botoarekin, Bildu taldearen abstentzioarekin eta PP taldeko zinegotziaren boto negatiboarekin, Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo AKORDIOA:

Lehena.- *Lehen ziurtagiria eta 2017ko uztailaren 12an ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. Sozietateak aurkeztutako 5.120 zenbakidun faktura onartzea, Barcena auzoko 5. zenbakiko "Barcena" aparkalekurako urbanizazio-obra dagokiona, 22.829,55 euroko zenbatekoaz.*

Bigarrena.- *Bigarren ziurtagiria eta 2017ko irailaren 12an ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA, S.L. Sozietateak aurkeztutako 5149 zenbakidun faktura onartzea, Barcena auzoko 5. zenbakiko "Barcena" aparkalekurako urbanizazio-obra dagokiona, 31.467,20 euroko zenbatekoaz.*

Hirugarrena.- *Hasierako Proiektuko jardunbide gehigarriak onartzea, Obrako Teknikari Zuzendariak balioetsiak irailaren 13an igorrita (2389 zenbakidun sarrera), 10.994,06 euroko igoera eta 2.338,93 euroko jaitsiera suposatzen dutenak.*

Laugarrena.- *Ekonomia Garapen eta Lurraldearen Orekarako Sailari akordio honen berri ematea, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barnean onartutako dirulaguntza izapidetu dadin, espediente-zenbakia: 16/10126-P".*

Alkatea: puntu honetan bai aipatu nahi dut EH Bildu taldeak batzordean egin zuen galdera bati buruz kontu bat, hots, obrako zuinketaren akta maiatzaren 26an sinatu zen, obra ekainaren 12an hasi zen, abuztuan obra gelditu egin zen, eta epea hiru hilabetekoa zen. Aipatu behar da Morgak aurkeztutako eskaintza laburrena zela exekuzio-epeari dagokionez, baina hori ez zela erabakigarria izan hura esleitzeko, izan ere, beste enpresa batzuek ere exekuzio-epeta murriztearen ondoriozko gehieneko puntuaketa eskuratu zuten. Egia da atzerapena, hein batean, enpresari egotzi ahal zaiola, berandu hasi ziren zuinketa sinatu zenetik obra hasi bitartean, baina egia da, aldi berean, inguruabarrek proiektua berrikustea eragin dutela. Zehazki URA agentziaren baimena. Proiektuaren idazlariak bai egin zizkion alde aurretik kontsultak URA agentziari obraren inguruan inolako eragozpenik jaso gabe. Behin URA agentziari baimena eskatuta arazoak ez du obrarekin zerikusia izan, baizik eta autokarabanetako ur gris eta beltzak kiroldegiko putzu septikora isurtzearekin, zehazki, URA agentziak ur beltzak kiroldegiko putzura eramateari uko egitearekin, gordailu itsu bat egitea behartuko duena. Ondoren, era berean, errepideen baimena zortasun-zonalde bat inposatzen duena, eta hainbat plaza kentzea derrigorren duena. Eta, ondoren, proiektuan izan zen errore bat, hots, behin proiektua abiatuta udal atoi eta garabientzat kiroldegirako sarbiderik ez dagoela ikusten baita. Horren ondorioz, derrigorrezkoa da proiektua berrikustea eta alternatiba bat bilatzea, horretarako hainbat aukera aztertzen direlarik. Bat, kiroldegiaren zonaldean ate bat eraikitzea eta, bestea, minusbaliotasuna duten pertsonen sarbidea aldatu eta ate nagusia, minusbaliatuentzako sarbidea izan beharrean, ibilgailuentzako sarbidea izan dadila. Gero, adierazi behar da hasierako proiektuan ez zela aurreikusten ur beltzak jasotzeko depositu itsu bat, izan ere, idazlariaren arabera egindako kontsultetan URA agentziak hori ez zuen aurreikusi. Eta proiektua Foru Aldundira nahiz URA agentziara baimenak jasotzeko lehenago bidaltzeko aukeraren inguruan, bada baietz esango dut, lehenago bidali ahal zirela. Alderdi hori espedientean ez zen jaso eta berandu bidali zen. Gu izapideak hobetzeko lanean ari gara, baina gertatzen dena da ez dela hori eragozpen puntu zehatz honetan inguruabar hori ez jasotzeko. Hurrengoan lehenago bidaltzen ahaleginduko gara.

Joseba Elejalde Ribacoba: galdera bat, izan ere, hemen etxe bat edo obra bat egin nahi duen edozein herritarri eskatzen diogu proiektuan, eraikina ibaitik hurbil badago, URA agentziaren ziurtagiria ekar dezala, betekizun guztiak betetzen dituela adieraztekoa, urak har dezakeen zonaldean ez dagoela adieraztekoa..., eta proiektuan barnera dezala Udalean aurkeztu den hori arauarekin bat datorrela, URA agentziak sinatuta. Gauza bera gertatzen zaigu



errepideekin, zu errepideetatik x metrora bazaude, errepidera jo behar duzu eta ziurtagiria eskuratu eta proiektura atxiki behar duzu. Hau da, udalerrri honetako biztanle batek hainbat proiektu, doikuntza, formalizatu behar baditu eta Administrazioarekin egon behar badu, nola aurkezten dio udal arkitekto batek proiektu bat Udal honi URA agentziarekin egon gabe edo, URA agentziarekin edo errepideekin egonik, proiektua gauzatzen den unean araudira zer-nola egokitzen den zehaztu gabe? Ez dudana ulertzen zera da, URA agentziaz arreta ematea proiektua onartu, obren exekuzioa abiatu, eta handik hilabete batzuetara. Eta errepideekin gauza bera. Edo proiektuaren idazlariak zabarkeria bat egin du, edo proiektua ez da igaro pasa beharreko instituzioetatik. Edo instituzio horietan begiratu behar zuen teknikariak ezizkiarena egin du. Hori da ulertzen ez dudana. Izan ere, herritar arruntari dena eskatzen zaio, eta Administrazioari ez zaio deus eskatzen. Eta ondoren Udalbatza honetara etorri eta orain daukagun eztabaida izaten dugu, atzerapenak obrak, geldiaraztea, kostu gehigarriak, izan ere, proiektuan jasota ez dagoenez x kostatuko zaigu, ez dakit 5, 2 edo 17 izango den, eta azken finean egunero berdin gaude, ez dago udalerrri honetan obra bakar bat ere idatzitako proiektuarekin bat datorrena. Beti agertzen da zerbait. Esan idazlariari hurrengoan ez ditzatela akats hauek egin.

Joseba Vivanco Retes: ezer baino lehen, Joseba, errespetatu txandak, mesedez.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit hasi behar garen... ez dakit gutxiengoa duena hasi behar den edo gehiengoa duena hasi behar ote den, ez dakit.

Joseba Vivanco Retes: hasiera batean gehiengotik gutxiengora, pentsatzen dut. Baina zu egiten ari zaren galderak guk abuztuaren erdialdera egin genituen dagoeneko. Horrenbestez, hilabete pasa da eta oraindik erantzunik gabe jarraitzen genuen. Hori zen ziurtagiri hau onartzeko bozketan kontrako botoa ematearen gure arrazoietakoa bat. Galdera horiek guztiak, esaten dizudan moduan, guk egin genituen. Errepika ditzaket, hemen daude denak, banan-banan joan naiteke, horietako zenbait erantzun ditu oraintxe bertan Iñigok. Guk idatziz erantzun zitezela eskatu genuen. Ez dakit, idatziz erantzungo bazaigu, ez diet kasu egingo eta ez dut berriro galdetuko. Idatziz erantzungo ez bazaizkigu banan-banan esaten joango naiz, batez ere, aktan jaso dadin eta idatziz, izan ere, badira batzuk, esanak esan, erantzuten ez zaizkigunak. Esate baterako, norena da ur beltzaren kontua aintzat hartu ez izanaren erantzukizuna? Norena da zortasunetik errepidera dagoen distantzia aintzat hartu ez izanaren erantzukizuna? Guk uste dugu arkitektoak bere kontsultak egingo zituela, hala Uraren Euskal Agentziari, ez idatzizko kontsultak, are haiekin hitz egingo zuen, eta dakit hura tronpatu egin ote den, edo URA tronpatu ote den, norbaitek egingo zuen... Pentsatzen dut hori araudi motaren batean finkatuta egongo dela, ez dakit, edo zer hartzen den kontuan eta zer komentatu zen. Errepideen kontuarena are gutxiago ulertzen dugu. Pentsatzen dugu egongo dela araudiren bat, zeinaren arabera errepidetik x metrora obra bat egin behar bada zortasunen bat utzi beharko duzun. Halako aparkaleku mota bateko proiektuan hori aintzat hartu ez izana, hasiera batean ez zaigu buruan sartzen. Norbaitek akatsa egin behar izan du, derrigorrez. Gero aurpegiatu diezaiola dena delakoa baina jakin nahi duguna da ea igoera edo jaitziera ekarri duten errore horietan, aurrekontua aldatzea ekarriko dutenak, erantzukizunen bat egon ote den. Hori da galdetzen ari ginen kontuetako bat. Gainera, hala URA agentziara nola Aldundiko Errepide Sailera proiektuak zein epetan bidaltzen ari diren ikusten ari gara, behin obra esleitu ostean. Proiektuen CDak bidaltzen ari gara eta obra dagoeneko esleitura dugu. Badira hor zenbait galdera idatziz erantzutea nahiko genituzkeenak, izan ere, orain eman dituzun azalpenez gain, joan den egunean batzordean oso azaletik eman zenituen moduan, badira zenbait kontu zeintzuetan gustatuko litzaigukeen jakitea zerbait onartzea proposatuko zaigun, zer onartzen ari garen jakitea. Hori da arrazoietakoa bat, eta berriro diot, idatziz erantzun diezaguzu gustatuko litzaiguke, eta batez ere gauza horiek berriro gerta ez daitezen lan egitea, hau da, proiektuak bidaltzen aritzea alde aurretik esleitzen ari garenean edo alde aurretik bidali eta ondoren ez gaitzala zezenak harrapa proiektua aurreratuta dagoenean. Bada kontrako botoa ematea eramango gaituen beste arrazoi bat, pentsatzen dut ibilgailuak kiroldegira sartzeko aldatu behar izan den arrapalaren gaia, guk hemen gure erantzukizunaren parte hartu behar dugu guregain proiektuan ez zelako hori aurreikusitako. Edozein arrazoiatik zela ere, izan ere, pentsa genezakeen dagoeneko aurreikusitako zegoela, izan ere, oraintxe bertan bada han arrapala bat, ez baikenuen bere garaian begiratu... Horrenbestez,



erantzukizunaren parte hori hartzen dugu guregain proiektuaren alderdi hori aldatu behar izan delako. Baina, pentsatzen dugu, era berean, ziurrenik Gobernu Batzordetik pasatu beharreko aldaketa bat dela. Hori ere ez da egin, hori proiektuan egindako aldaketa bat baita. Eta nire ustez proiektuetako aldaketek onarpena behar dute. Nik uste dut arrapala dagoeneko irekita dagoela, obran ikusi dudaren arabera. Ez da Gobernu Batzorde bakar batetik ere pasa kontua ea onartzen den, ea egiten den edo beste nonbaitetik sartzen ote dugun erabakitzeko. Eta, ondoren, azkenik, proiektuarekin zerikusia duen galdera bat da, atzo apur bat nola geratzen den erakusten duen mapa bidali zeniguten, jakin nahiko genuke ea azkenik barneratzen den oinezkoen pasabideen gaia aparkalekuaren barnealdeko zonalde horretan guztian. Proiektuari ekin aurretik arkitektoari galdetu zitzaion, arkitektoak hainbat aukera begiratuko zituela esan zuen, aukera jakin batzuen inguruan ere hitz egin zen, ez dadila gerta aparkalekua martxan jartzea eta esatea "aizu, nondik igaroko da jendea?", kontuan har dezagun hori. Ohartarazi dezagun berriro, berriz ere eskuak buruan jarri baino lehen.

Alkatea: idatzizko eskaerarekin galderak luzatuta daude eta Udalbatzan erantzuten ari dira. Nire ustez, egin dituzuen galdera horiek erantzuten ari naiz. Esan dudaren moduan, akatsak egiten dira, eta agian lehenago bidali behar zen. Egia da partikularrei ere eskatzen zaiela. Udalaren ikuspegitik lehenago bidali behar zela esaten dut. Orobat, planoak diren modukoak dira, eta guk izan dezakegu partikularrek ez duten arazo bat, hau da, obrak diru-laguntza batzuen baitan edo haiekin lotuta daudela, eta horietan epe batzuk ditugu eta zenbaitetan, zaila ez, ezinezkoa da diru-laguntzak betetzeko epeak dagozkion baimenak izapidetu eta eskuratzeko epekin bateratzea. Baina hori ez da aitzakia izan behar dokumentua lehenago bidal zitekeela aitortzeko, hala URA agentziara nola Aldundira. Badakit URA agentzian obrako zuzendariaren aldetik dagozkion kontsultak egin zirela, obrari dagokionean berez, ez dakit isurien baimenaren kontuarekin egin ote ziren, izan ere, arazoa obrarekin nahiz isurien baimenarekin egon da. Eta nik uste hori zela esan nahi zuena.

Joseba Vivanco Retes: orduan oraindik ez dakigu alderdi horietako bat kontuan ez izatearen erantzukizuna norena den, isurien gaiarena zein errepiderako zortasuna errespetatzearena, aurreikusitako proiektuarekiko bost aparkamendu kentzea suposatu duena; eta, era berean, ez dakigu azkenean, pentsatzen dut azkenean zehaztu egin beharko dela, obra amaitzen denean, egon den atzerapena, bada, enpresak ere baduen erantzukizun motaren bat ala ez. Izan ere, oker ez banaiz, esleitu zenean, eta esleipena zein denboratan egin zen ikusirik, aipatu zen betetzen ez bazen dagozkion zigorrak aplikatu beharko liritekeela. Orduan obra, oker ez banaiz, etenik egon da hilabete eta erdian. Ez dakit arrazoia aldaketa horiek izan diren, ez dakit, oporreratik izan den, kontua da abuztuaren hogeitaka garrenean amaituta behar zuela, eta urriaren erdialdera egongo da amaituta. Horrek dakarren atzerapenarekin, ezerosotasunarekin, izan ere, eskolak dagoeneko hasi dira, eta horrek dakarren guztiarekin.

Alkatea: bada, inguruabarrak, berriro diot, asko izan dira. Agian berandu hasi ziren, zuinetaren ondoren, hori egia da. Ondoren inguruabar gehiago gertatu dira ustekabeen. Erantzulea nor den? Bada URA agentziaren kasuan, bada, alde aurretiko kontsultak egin badira eta ondoren, behin baimena eskatu ondoren, beste inguruabar batzuk ematen badira, bada ez dakit erantzukizuna norena den. Aldundiaren kasuan lehenago bidal zitekeen, edo alde aurretiko kontsultak egin zitezkeen, era berean. Eta arrapalaren kasuan zuek zuen erruaren parte aitortzen duzue, guk ere bai, begiratu genezakeen lehenago, eta ez ginen horrekin jabetu. Halaxe da, minusbaliatuentzako sarbidea egiten zela baina ez zela aurreikusten udal ibilgailuentzat. Eta horrek aldaketa egitea derrigortu da. Inguruabar asko pilatzen dira.

Joseba Vivanco Retes: azaltzen ez dena, era berean, obra etenik egondako hilabete eta erdi horren kontua da.

Alkatea: enpresaren aldetik oporraldiak ere egon ziren.

Joseba Vivanco Retes: noski, zezenak harrapatu zintuen. Beranduago hasi zen. Esleitu eta ia hilabetera hasi zen eta.

Alkatea: eta apur bat erabakimena, enpresak esaten zuen "beno, niri arrapalaren kontua behin betikoz esan behar didazue, hots, irtenbidea zein izango den, lanari ekiteko". Obrako zuzendariak esaten zuen "beno hori begiratzen ari gara baina beste gauza batzuk egin daitezke" korapilatsua da.



Joseba Vivanco Retes: korapilatsua da, baina kontuan hartu behar dugu pertzepzioa, batez ere guk hemen esan dezakeguna baino gehiago oposizioarena, jendearen pertzepzioa, batez ere eskolako ikasturtea hastean, eta aparkalekua erabili behar izan eta ez egotea, jendearen pertzepzioa, azken batean horiek Udalaren obrak baitira, bada nola doazen, nola garatzen diren, nola atzeratzen diren... hori ere kontuan hartu behar da.

Alkatea: garrantzitsuena da dagoeneko hasi direla eta urriaren erdialderako amaituta egotea aurreikusten dela.

Arkaitz San Jose Martinez: nik ohar bat, besterik ez Ulertzen dut sektore publikoko kontratuen Legearen baitan gaudela eta enpresa esleipendunaren balioespenaren gutxienez % 50 edo gehiago prezioa izan behar dela. Baina zertarako balio du enpresek beherapen batzuk egitea zeintzuei esker kontratuak irabazten dituzten, gero betetzen ez badute, izan ere, zenbatekoak batzen hasten dira, eta epeen kontuarekin, gauza bera Hau da, balioespenaren % 50 gutxienez prezioa izatea onartu egin beharko dugu, kontratuen Legean horrela ezartzen duelako, baina beste era bateko klausulak sartzen hasi beharko gara, izan ere, azken batean, enpresa batek % 17ko beherapena sartzen du, espaloien proiektuaren kasuan gertatzen den moduan uste dudanez, aurreikusita zegoenaren gainean % 17koa, eta ondoren % 8 gehiago sartzen dizu, eta azken finean agian behea proposatu zuten beste enpresa batzuk baino gehiago fakturatzen ari da, gertatzen dena da azken finean guztiakin gertatzen dela eta, tira, kontratua eraman du eskaintza onuragarriena aurkeztu duena izan delako. Onuragarriena proiektua sinatzen den unean, hortik aurrera aurrekontua areagotzen hasten baita.

Alkatea: noski, baina gerta daiteke hori enpresaren kontua ez izatea, baizik eta obrako zuzendariarena, proiektua idaztean esaten du beno, neurtzen diren unitateak gehiago dira edo aldaketak daude. Hori enpresa horri eta egongo zatekeen beste edozeini gertatuko litzaioke. Baina egia da prezioan loturik gaudela.

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4);

Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

Jose Luis de Valle Duque: edozein modutara, nik ez dakit zertarako balio duen lehen komentatu duguna, arkitektoen elkargoak proiektuen onspena eman eta berrikustean, izan ere, ez dakit zer arraiogatik kontratatzen dudan nik arkitekto batekin, berarekin, bere elkargoa bere zerbait da, pribatua, eta guk ez genuke inolako harremanik izan behar elkargo horrekin eta berdin jarraitzen dugu. Gauza horiek desagertu egin beharko liriateke. Eta ondoren beren erantzukizunak hartzen hasi beharko liriateke, izan ere, tira, gauza asko uzten dira sarritan eta harrigarria dirudi horiek uztea. Azkenean herritar guztiok ordaintzen dugu.

7.- A-2602 eta A-4624 “Errepideak egokitu eta urbanizatzeko” lanen azken ziurtagiria onartzea.

“2017KO IRAILAREN 13AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza-lanen azken ziurtagiria onartzea



Ikusirik "A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko lanen espedientea, zeina gauzatzeaz Arabako Foru Aldundia arduratu den "Arabako Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegatik (Araba) igarotzen diren gunean, egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza-proiekturako" izeneko lankidetzeta-hitzarmenaren arabera.

KONTUAN HARTUZ, A-2602 eta A-4624 errepideak Egokitu eta urbanizatzeko proiektua Artziniegako Udalak onartu zuela, 2015eko ekainaren 1ean egindako Tokiko Gobernu Batzordearen Saioan, 1.549.834,34 euroko zenbateko batekin.

KONTUAN HARTUZ, 2015eko uztailaren 31n (2015-08-12ko 1824 sarrera) Arabako Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren artean lankidetzeta-hitzarmena sinatu zela A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegatik (Araba) igarotzen diren gunean, egokitu eta urbanizatzeko Eraikuntza-proiektua gauzatzeko, 2015eko ekainaren 4an egindako ezohiko saioan Udalbatzak hala onartuta, 1.549.834,34 euroko zenbateko batekin, BEZ barne, horrela finantzatuta:

	GUZTIRA
Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Saila	755.755,50
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	230.146,98
Ayuntamiento de Artziniega	563.931,86
	1.549.834,34

KONTUAN HARTUZ, 2015eko azaroaren 24an (2015-11-27ko 2712 sarrera) Obra Publikoetako Negoziatuak Artziniegako Udalari jakinarazi ziola Diputatuen Kontseiluko uztailaren 21eko 411/2015 Akordio bidez, obra Construcciones Moyua, S.L. sozietateari esleitu zitzaioela 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz (BEZ barne) eta 8 hilabeteko gauzatze-epe batekin.

KONTUAN HARTUZ, 2016ko irailaren 15ean (2104 sarrera) Obra Publikoetako Negoziatuak Artziniegako Udalari jakinarazi ziola Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako diputatuak irailaren 6ko 798 zenbakidun Foru Agindua eman zuela, A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko aipatu proiektua gauzatzeko epea 2016ko urriaren 21era areagotzeko.

IKUSIRIK, 2017ko urtarrilaren 19an (149 sarrera) Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Zuzendariak 2016ko urtarriletik urrira egindako ziurtagirien kopia igorri zuela, A-2602 eta A-4624, errepideak egokitu eta urbanizatzeko proiektuari, 1.282.107,51 eurokoa, buruzkoak. Halaber, jakinarazten du berehala Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 466.515,19 euroko zenbatekoaz eskakizun bat igorriko diola Udalari, ziurtatutako zenbatekoaren % 36,39ari dagokiona.

IKUSIRIK, 2017ko urtarrilaren 24an (201 sarrera) 2tik 11ra bitarteko ziurtagiri-zenbakien fakturen kopia erregistratu zela.

IKUSIRIK, 2017ko urtarrilaren 25ean (213 sarrera), Finantza eta Aurrekontu Zuzendariak eskatu zuela Udalak 466.515,19 euroko diru-sarrera egin zezala eta ziurtagiriak atxiki zituela, 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz.

IKUSIRIK, Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Oreka Sailak "Diputatuen Kontseiluaren 575/2012 akordio bidez Tokiko Erakundeari onartutako diru-laguntzarekin, Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Oreka Sailaren aurrekontuan kargatuta, hasiera batean 230.146,98 euroko zenbatekoaz eta diru-laguntzaren araudi espezifikoa ezarritako berrikuspen, baldintza eta betekizunen baitan, proiektuaren finantzaketan parte hartzeko hitzarmenaren barnean" eskatzen duela ziurtagiriak udal organo eskudunak onartzea, zenbatekoari so Udalbatzari dagokiona, erakunde onuradun gisa.

IKUSIRIK, Artziniegako Udalak 2017ko otsailaren 9an egindako saioan, 1-11 bitarteko ziurtagiriak onartu zituela, 1.282.107,51 euroko zenbatekoaz.

IKUSIRIK Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26an egindako saioan, 450 zenbakidun Akordio bidez, azken ziurtagiria eta obrak 110.594,25 euroko zenbatekoan handitzea onartu zuela, (2079 zenbakidun sarrera), obrari kostu osoa honakoa izanik: 1.392.772,19 €.

Obrako kostuaren banaketa Hitzarmenaren arabera horrela egiten da:



Hitzarmenaren Zatiak	Konpromisoa hartutako zenbatekoak	finantzaketa %
AFA. Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	53.925,75	% 48,76
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	16.423,25	% 14,85
Ayuntamiento de Artziniega	40.245,25	% 36,39

GUZTIRA 110.594,25

PROIEKTUAREN KOSTUA GUZTIRA 1.392.772,19

IKUSIRIK, zerbitzu teknikoek ezin dutela ziurtagiri horien gaineko txostenik eman, izan ere, kontratazio-prozedura Arabako Foru Aldundiak izapidetu du, eta baita obrak gauzatzea ere, sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren arabera.

Ikusirik, Foru Planaren Zerbitzuak onartutako diru-laguntzaren araudi espezifikoak, zeinaren arabera Udalbatzak onartu behar dituen obrako ziurtagiriak, Lurraldearen Informazio Batzordeak, 2017ko irailaren 13an egindako saioan, erabaki du EAJ taldeko zinegotzien aldeko botoarekin eta P.P. eta Bildu taldearen abstentzioarekin, eta proposatzen du Udalbatzatan har dadila hurrengo:

AKORDIOA:

Lehena: Obrako azken ziurtagiria onartzea, "A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko" obra egitekoa (Construcciones Moyua, S.L sozietateak 2017ko abuztuaren 1ean igorritako 17/CMSL/1100 fra.), Construcciones Moyua enpresari esleitua 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz gehi 110.594,25 euroko igoera, zenbateko horretatik Artziniegako Udalarari 40.245,25 euro ordaintzea baitagokio, (BEZ barne), Hitzarmenetik eratorritako banaketa honen arabera,

Hitzarmenaren Zatiak	Konpromisoa hartutako zenbatekoak	finantzaketa %
AFA. Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	53.925,75	% 48,76
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	16.423,25	% 14,85
Ayuntamiento de Artziniega	40.245,25	% 36,39

GUZTIRA 110.594,25

Bigarrena: Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundi Txit Goreneko Foru Planaren Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Orekarako Sailari".

Hirugarrena: Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari dagokion zenbatekoa ordaintzea"

Joseba Vivanco Retes: gure taldetik ziurtagiriaren aurkako botoa emango dugu. Hasiera batean hala egingo dugu, izan ere, ikusirik era berean obra horretan hainbat "hutsune" geratzen direla, bada, ez dugu uste azken ziurtagiri honen amaiera hau izango denik. Diputatuen Kontseiluak uztailearen 28an obra hauen azken ziurtagiria onartu zuen, ondoren Udalarari jakinarazi zion. Apirilaren 12an Aldundiak obraren harrerari dagokion akta sinatu zuen, eta harrera-akta horretan jasotzen denez, oker gauzatutako obra-unitateak konpontzeko lan jakin batzuk ez ezik, jabetza pribatuetan eragindako kalteak konpontzeari dagozkion zenbait lan geratzen dira, eraikitzaileari konponketa eskatuz. EH Bildu taldetik, jakinik oraindik badirela "hutsuneak", baina nork daki zertan eratorriko diren, ez dugu ontzat emango ziurtagiri hau, izan ere, uste dugu, kontuan izanik Aldundiak enpresa eraikitzailearekin feeling gutxiarekin amaitu duela, hala konpontzeke geratzen diren obrako akats horiek, eta badira batzuk, nola partikular eta jabeekin geratzen diren konponketak, batzordearen aurreko eguneko informazioan gutxienez oraindik konpontzeko edo hobetzeko gauzak zituzten hiru jabe jasotzen zitzaizkigun, eta ondoren gutun bat ikusi dugu, Errege Magoei eskatutako gutun bat dirudiena, izan ere, asko dira egiteke dauden gauzak, hau da, iruditzen zaigu honek oraindik emango duela zeresana. Argi utzi nahi duguna da gure udal taldetik ez dugula baimenduko Udalaren aldetik egiteke gera daitezkeen jabeen aurkako kalte horietatik eratorritako inolako erantzukizun ekonomikorik hartzerik. Obra Aldundiari agindu bazitzaion, Aldundia edo enpresa eraikitzailea izango dira kaltetuta edo eragindako gauzak, edo oraindik amaitzekoak, dituzten jabeekin konpondu beharko direnak. Jabeek Udalarari



jakinarazi ahal diote, gauza egiteke geratzen direla, bikain iruditzen zaigu hori, baina ez dugu inolaz ere onartuko, gure taldetik bederen, Udaletik dirua jartzea Aldundiaren eskumenekoa den zerbeit konpontzeko eta enpresa eraikitzailearekin konpondu beharko da. Eta azkenik ohar bat. Besterik gabe, Arkaitzek lehen esan bezala, obra % 17ko beherapen batekin esleitu zen, azkenik obra 110.000 euroan areagotu da esleitutako aurrekontu horrekin alderatuta. Udalak horren barnean, jakinarazi zitzaigunez, hasiera batean obra horretara bideratzeko gordetako 300.000 euroko zenbateko horren barnean, 231.000 euroko ekarpena egin beharko du, eta 231.000 euro horiei, gogoratu nahi badugu, 33.600 euro gaineratu behar zaizkio, Iberdrolak burutu behar zituen lanei dagozkionak. Horrenbestez, Udala azkenean 266.000 euro ipintzen ari da.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni bat dator Josebak esan duenarekin. Nik abstentzioa emango dut. Nik uste dut errepidea eta bi espaloiak handitzea beharrezkoa zela udalerrri honetarako, baina ez dudana ulertzen da zergatik kexak, Josebak jaso duen moduan, auzotarren kexak oraindik ebatzi gabe dauden. Askok dira oraindik erdipurdi, edo errematatzeko faltan, dauden obra-unitateak, eta enpresa oraindik ez da hemendik agertu. Eta Josebak ongi esan duen moduan, apirilean obraren harrera egiteko akta jaso zen eta uztailaren 28an azken ziurtagiria. Hau da, nire ustez, obra gauzatzen ari den enpresak dagoeneko ebatzita izan behar zituen auzotarren erreklamazio horiek guztiak, horietako zenbait larriak, beste batzuk ez horren larriak, baina ezin duguna da denbora igarotzen utzi eta azken ziurtagiri hori onartu aurrez utzita dauden eta dagokion batzordean jorratu genituen arazo horiek konpondu gabe.

Jose Luis de Valle Duque: argi dago azkenean Aldundia dela obra egin duena eta horren guztiorren gaineko erantzukizuna hartu behar duena.

Alkatea: puntu honetan esan behar dizuet ziurtagiriaren onarpena formalitatea dela, izan ere, Foru Planak finantzatuta dago eta Foru Planaren arauak ezartzen duenez, ziurtagiriak onartu egin behar dira. Baina egia da Foru Aldundira bideratutako kudeaketa-gomendio bat egonik, eta azken ziurtagiria Foru Aldundiak berak onartuta, Udalak ez duela zeresan asko. Eta aurreko ziurtagiriak iritsi direnean bezala gertatzen bada, ziurtagiriaren onarpenarekin Ogasun eta Finantza Sailaren jakinarazpena iristen zen ordaintzeko epe bat ematen zigula esanez eta, bestela, zuzenean deskontatu egiten zigun FOFEL funtsetik. Azken ziurtagiriak adierazten duena da egindako lana ontzat ematen dela. Eta alde horretatik teknikariaren aldeko txostena du eta egin beharrezkoa da. Horrek egiteke dauden gauzak daudela inplikatzeko al du? Bai. Bai, izan ere, harrera-aktan bertan, Foru Aldundiak sinatzen duen aktan, agerian uzten da egiteke dauden gauzak daudela. Partikularrentzat eta baita Udalarentzat berarentzat. Eta gero badira zenbait gauza egiten ari ez direnak eta enpresa eraikitzaileak egiteke dituenak, eta egiten ez dituzenez gu ari gara hori jasaten. Eta oso adibide argia dugu beharantz ditugun hustulekuetan, Foru Aldundiak obrako akats modura hartzen baititu, hori garbitu egin behar baitzen, lurra ez zen hor utzi behar, eta eraikitzaileak zer egingo duen zain gaude. Nik ofizialki ez, baina eskatu diet mesedez eraikitzaileak egiten ez badu, haiek garbi dezatela, Aldundiak garbi ditzala hustulekuak, eta ondoren faktura igor dezala, dagokion zenbatekoa igor diezaiola enpresa eraikitzaileari. Horrenbestez, hau da azken ziurtagiriak, 35.000 euro horiek ez dira aurreikusten, hau da, azken ziurtagiriarekin ekarpena 231.296,77 eurokoa da, 300.000 euroan zegoen aurreikuspenarekiko. Azken ziurtagiria da baina egia da hau ez dela hemen amaitzen, izan ere, badira zenbait akats gu begiratzen ari garenak, dauden guztien bilketa bat egiten ari gara bilduta izateko eta, hala badagokio, eraikitzaileari eskatzeko.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik puntu honetan beste behin errepikatu behar dut, Jauregiaren urbanizazioan garajeen irteera bat dago, hori lehen ispilu bat zegoen eta une honetan ez dago. Sarritan errepikatu dut. Nik ez dakit ispilu hori kendu egin zuten, baztertu egin zen, eraman egin zen, ekarri egin zen, baina ez badago, mesedez, bat erosi eta jar dadila. Eta ongi esan duzun moduan, enpresari pasa behar zaio, Aldundiari edo Udalaren kontua beregain hartzen duenari. Ezin daitekeena izan zera da, urbanizazioan garajeen irteera bat izatea zera gabe, Jaunari eskerrak orain lehen zegoena baino ikusgaitasun gehiagorekin, baina ispilurik gabe, eta ondorioz, horrek auzotarrei eta garaje horien erabiltzaileei arazoa dakarkie bertatik irteterakoan.

Alkatea: bada, azkenean...



Joseba Elejalde Ribacoba: eta horrekin hilabete asko daramatzagu, eta guzti-guztietan lñigok baietz esaten dit, begiratu egingo dela eta ipini egingo dela. Baina ez dut uste ispilu bat erostea horren garestia denik, agian bai, eta garajeen irteeran parean paratzea.

Alkatea: bada Aldundiak, Moyuak, Udalak edo auzotarrek, nork ipini behar ote duen zalantza dagoenean, bada, agian Udala da ipini behar duena.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk lehen Aldundiari eskatu diozula esan duzun moduan, hura baita kudeaketa-gomendioaz arduratzen dena, garbi ditzala hustulekuak eta ondoren pasa diezaiola faktura enpresa eraikitzaileari, izan ere, jakina une honetan guk arazo bat badugu, egin dezagun obra hori ispilu bat jartzea besterik ez baita, ispilua erostera joatea gehiago kostatuko baitzaigu hura jartzea baino, eta pasa diezaiogun kostua eta gastua Aldundiari, eta ondoren Aldundiak borroka dezala Moyuarekin.

Alkatea: bai, eta Aldundiak utz diezagula nahi dugun lekuan jartzen, izan ere, kale-argian ez digu uzten.

Joseba Elejalde Ribacoba: aurreikusi eta obra gauzatzen ari zen bitartean egin behar zen. Hor ispilu bat bazegoen, niri ez zait buruan sartzen, berriro ez jartzea. Garajeen irteera bat badaukazu, zonalde arriskutsu bat badaukazu, joan-etorriko handikoa, azkenean ulertzen ez dudan gauza bat da. Eta hilabete asko daramatzadanez galdezka eta Udal honetatik beti adierazten zaidanez "egingo dela", ez dakit. Gaurkoan berriro galdetzen dut eta berriro eskatzen dut.

Alkatea: bat ez, bi, bi irteerek baitzuten ispilua.

Joseba Vivanco Retes: gai horiek ukitzen ditugunean niri gizon batek esan zuena etortzen zait burura, nik ez nuen ezagutzen, udaletxetik irteten ari zela, ez dakit haserre irten zen ala ez, ez dakit zeren kontura zen, ez dut uste hemengo zenik, eta esaldi bat esan zuen, zera "Udal bat handia da gauza txikiengatik". Ispiluaren gai hori zehazki, nik lehen esaten nuen jendeak aparkalekukoaren moduko obrekin duen pertzepzioaren kontuagatik, eta oso kontuan izan ditzagula. Nik uste dut bere ispilua eskatzen ari den jende horrek, ispilu hori eskatzen hainbat hilabete daramatzanak, Udalera idatziak bidaliz, ispilu bat, buelta gehiago ematen ari baita hori obra osoa baino, soilik pentsatzearekin jende horrek Udalaren funtzionamenduari buruz duen pertzepzioa zein den, egunen batean hona etortzen badira, bada agian guztiak gorritu egingo gara. Ispilu bat da azkenean, Aldundiak jarri behar duela, ezetz obrakoa dela, ezetz hark duela, ezetz honek duela, eta ispilua hortxe, hainbat hilabetez. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer gertatuko zatekeen hortik auto bat atera eta kolpe bat izaten badu eta hona badator paperekin esanez "duela 8-10 hilabete edo duela urtebete nik idatzi bat aurkeztu nuen, obraren ondorioz kendu zen ispilua berriro jartzeko eskatuz". Bada, ez dakit zer gertatuko zatekeen. Berriro diot, xehetasun txikiak dira, denboran asko luzatu ezin direnak, irtenbide bat egon behar da. Milaka euroko obrez hitz egiten dugu baina azkenean horren gauza txikiez hitz egiten dugu...

Alkatea: gauzak horrela dira.

Joseba Vivanco Retes: gauzak ez dira horrela. Ezin dute horrela izan. Obra handiez hitz egiten badugu, uler dezakegu aurrekontuek ihes egiten dutela, aurreikusita ez zeuden gauzak agertzen dira, baina xehetasun horiek ordea... Uste dut ispilu hori Udalak ipini zuela, eta hemen ere bazegoen ispilu bat eta kendu egin zen. Eta Udalak jarri zuen. Nik ez dakit eskumena obrakoa zen, Aldundiarena zen, ez zegoen ispilurik eta eskatzen ari ginen, izan ere, argi zegoen lehen hor zegoen ispilu bat behar zela. Udalak ipini zuen, arriskutsua zelako ispilurik ez egotea. Bada, pentsatzen dut hor ispilu hori eskatzen ari den jendearentzat irteera hori ere oso arriskutsua dela, berdin-berdin.

Arkaitz San Jose Martinez gure ustez, enpresa presionatzeko modu bakarra ziurtagirien ordainketa ahalik eta gehien atzeratzea da.

Alkatea: gertatzen dena da Aldundiak enpresari ordainduko diola. Aldundiak ziurtagiria onartu du dagoeneko. Hau, berriro diot, formalitate bat da, izan ere, Foru Planak ziurtagiria onartzeko eskatzen du, baina kudeaketa-gomendio bat denez...

Arkaitz San Jose Martinez: guk ez dugu inolako tresnarik, ezin dugu esan "ados, enpresa horretaz arduratzen ez denez, gu arduratuko gara eta Aldundiari ordaindu behar diogunetik hartuko dugu".

Alkatea: hori, gero, kalteak ebaluatzen ditugunean egingo dugu. Bozka dezagun.



Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gómez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, José Luis de Valle Duque eta María Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (4);

Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

8.- 2016ko ekitaldiari dagokion judizioz kanpoko kredituaren aitortpena onartzea (FS45 zenbakidun faktura, Olio3r, S.L, etxeko olio jasotzekoa, eta 16-06-01etik 2016-12-31ra bitarteko faktura, 1755,99€)

“2017Ko irailaren 13an egindako saioan Antolaketa eta Kontu Berezien inguruan Informazio Batzordeak emandako irizpena”

IKUSIRIK 20167o abuztuaren 22an Idazkaritzak 2016ko ekitaldiko hurrengo kredituak judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: OLIO3R S.L.

Fra. FS78 DE 2016-10-21

Etxeko olioaren bilketa 2016-06-01 eta 2016-12-31 bitartean

Sarrera-erregistroa: 1709 zenbakiduna, 2017ko ekainaren 20koa

Zenbatekoa 1.755,99 €.

Hirugarrena: BAIMEN

Fra. 122.293/LL/16, 2016-12-20koa

Garbigailua AEG L68280VFL 8 kg

Sarrera-erregistroa: 1734 zenbakiduna, 2017ko ekainaren 22koa

Zenbatekoa 457,00 €.

KONTUAN HARTUZ 2017ko abuztuaren 22an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitortpen hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2017ko maiatzaren 31n Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA

LEHENA. Kreditu hauei dagozkion judizioz kanpoko aitortpenak onartzea, 2016. ekitaldikoak.



Hirugarrena: OLIO3R S.L.
Fra. FS78, 2016-10-21ekoa
Etxeko olioaren bilketa, 2016-06-01 eta 2016-12-31 bitartean
Sarrera-erregistroa: 1709 zenbakiduna, 2017ko ekainaren 20koa
Zenbatekoa 1.755,99 €.

Hirugarrena: BAIMEN
Fra. 122.293/LL/16, 2016-12-20koa
Garbigailua AEG L68280VFL 8 kg
Sarrera-erregistroa: 1734 zenbakiduna, 2017ko ekainaren 22koa
Zenbatekoa 457,00 €.

BIGARRENA. 2017ko ekitaldiko Aurrekontuaren kargura, dagokion kreditua aplikatzea”.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

9.- ASASAM Mozioa.

Alkatea: Ongi baderitzozue, Aiarako Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Elkarteak igorritako mozioa irakurriko dut:

“ASASAM Aiarako Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Elkarte da, Goi Nerbioian (Laudio, Amurrio, Okendo, Aiara, Artziniega, Orozko, Urduña, Arakaldo eta Arrankudiaga) Gaixotasun Mentala duten Pertsonen kolektiboarekin lan egiten erakunde bakarra izaten daramatzana 28 urte.

Goi Nerbioian bizi eta lan egiten duen kolektibo gisa, badakigu zein den zonalde horretan bizi den errealitate sozial eta geografikoa, eta ezagutzen ditugu bereziki zaugarrienak diren kolektiboek pairatzen dituzten desberdintza-egoerak, gaixotasun mentala duten pertsonen esaterako.

ASASAM elkartetik hiru ekintza-ildo lehenesten ditugu, Osasun Mentalaren gaia jorratzeko, Aiarako Koadrillan.

1. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN ALOJAMENDURAKO BALIABIDEEN EGOERA AIARAKO KOADRILLAN ASASAM elkartetik 10 urte daramatzagu Aiarako ibarrean gaixotasun mentala duten pertsonentzat bizitegi-baliabide berriak sortzeko premia azpimarratuz. “SALUD MENTAL España” Konfederazioaren arabera, populazio helduaren % 3ak gaixotasun mental larria du; horrek suposatzen du Aiarako koadrillan gaixotasun mental larriaz dagoen biztanleria-diana 1.038 pertsonakoa dela. Indize horiekin, ASASAM elkartetik uste dugu Aiarako Koadrillan dauden baliabideak askiekak direla, Gizarte Zerbitzuen Lurraldeko mapak islatzen duen moduan. Gaur egun 3 plazako etxebizitza komunitario bakarra dago, etengabeko arretarik gabe, Horren ondorioz, azken urteotan, gaixotasun mentala duten



hainbat pertsona Gasteizera joan behar izan dira artatuak izateko. Hori dela eta, Arabako instituzioei inplikazio handiagoa eskatu ahal zaie, gaixotasun mentala duten pertsonentzako bizitegi-baliabide berriak sortzeari dagokionez.

2. ZENTRO PSIKOSOZIALAREN ETORKIZUNEN IKUSMOLDEAK. Gizarte Zerbitzuen Mapa berria indarrean sartu ostean, Arabako Foru Aldunditik zerbitzu horren etorkizuneko finantzaketari buruzko segurtasunik eza adierazi zaigu. Zentro psikosoziala 1989. urtetik dago abian eta, gaur egun, gaixotasun mentala duten 33 pertsona bertaraten dira egunero zentro horretara, ezinbestekoa izanik gaixotasun mentala duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizi-kalitatea bultzatzeko. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu zerbitzu horren kudeaketa, eskumena eta finantzaketa zehaztu eta bermatzea; azken buruan, kolektiboaren premiei erantzute aldera.

3. BIZKAIKOAK DIREN UDALERRI MUGAKIDEETAN (Urduña, Arakaldo, Arrankudiaga eta Orozko) GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEN EGOERA EBAZTEKO PREMIA. Alderdi hau funtsezkoa da udalerrri horietan gaixotasun mentala duten pertsonen gizarte-arreta duina eta kalitatezkoa eskaintzeko. ASASAM elkartetik ezinbestekotzat jotzen da erakunde ezberdinak akordioetara iristea, horien bidez gaixotasun mentala duten Bizkaiko pertsonak Arabako baliabideetara ailegatu ahal izateko; eta, modu horretan, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko. Ez litzateke hori izango partekatzen den lehen zerbitzua, izan ere, osasun eta segurtasun arloko zerbitzuekin hala egiten da dagoeneko.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera *“Plangintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa hartzen du tresna nagusitzat. Plan hori, bestalde, Gizarte Zerbitzuen Mapan sartuko da, mapa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistema ezartzeko eginkizuna baitu. Mapa horrek, katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak zehaztuko ditu, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta: **zerbitzu horien izaera, zerbitzu horiek eska ditzaketen pertsonen kopurua, eta ahalik eta erabiltzaileak beren ohiko gizarte-ingurunean integratze aldera hurbilekoenak izango direla bermatzea**”.*

Horregatik guztiagatik Udalei eta Aiarako koadrillari eskatzen diegu deklarazio hau onar dezatela:

AIARAKO KOADRILLAN OSASUN MENTALEKO BALIABIDEAK MODU EGOKIAN KUDEATZEKO ARTZINIEGAKO UDALAREN DEKLARAZIOA, ASASAM ELKARTEAK PROPOSATUTA

Gizarte Zerbitzuak berregituratzeko asmoz abian den prozesuan hauek bermatzea eskatzen dugu: bizitegi-baliabideak, zentro psikosoziala, esku-hartze psiko-hezigarrirako programak, esku-hartze komunitarioa, zentro okupazionala, gizarteratzeko eta laneratzeko programak eta abar, beharrezkoak direnak Aiarako Koadrillan gaixotasun mentala duten pertsonak sendatzea ahalbidetu eta beren bizi-kalitatea hobetzeari begira.

Ezinbestekoa da Arabako erakundeek Aiarako Koadrillan gaixotasun mentala duten pertsona guztiei arreta duin eta kalitatezkoa bermatzea, beren ingurunean. Horretarako, gaur egun, beharrezkoa da:

1. Aiarako ibarrean gaixotasun mentala duten pertsonentzako bizitegi-baliabide berriak sortzea.
2. Zentro Psikosozialaren Zerbitzua mantentzea dadila bermatzea, zonaldean gaixotasun mentala duten pertsonak artatzen dituen.
3. Arabako Foru Aldundiarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin akordioak erdiestea, horien bidez gaixotasun mentala duten Bizkaiko pertsonak Aiaran kokatutako Arabako baliabideetara ailegatu ahal izateko. “

Alkatea: hau da Elkarteak aurkeztu duen deklarazioaren testua.

Joseba Elejalde Ribacoba: apunte bat dago, hirugarren puntuaren barnean, non ASASAM elkarteak bi Aldundien, bi Administrazioen, arteko akordioak egotea eskatzen duen, nik Eusko



Jaurilaritza ere sartuko nuke hor, eta gainera zuok esaten duzue zuen idatzian bertan: "Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, plangintzak Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa hartzen du tresna nagusizat"... Nik uste dut gai honetan administrazio guztiek dutela eskumena, eta beharrezkoak dira. Horregatik nik, pertsonalki, Eusko Jaurilaritza ere sartuko nuke, kontuan har dadin. Kontuan har dadila arrazoi askogatik, lehendabizi Aiara Arabako koadrilla garrantzitsuena delako, herrixkak sakabanatuta ditugu, normalean landa izaerakoak, Audio alde batera utzita, non ASASAM nahiz APDEMA, desgaitasun intelektuala jorratzen duen beste elkarte bat, dauden. Azken horrek, aurtengo maiatzean ere antzeko zerbitu eskatzen zuen. Nik uste dut Aiara bazter utzita dagoela nahiz eta Ramiro Gonzalezek esan bere bihotzean gauzala eta Aiaran inbertsioek beti gorantz egingo dutela. Nik uste dut, Aiaran gizarte arloan dauden premiak, azken hilabeteetan Udaltzaren honetan errepikatu izan dugun moduan, bada nahikoa sutsuak dira, premiak asaldagarriak dira. Gaur ASASAM daukagu hemen idatziz babes dezagula eskatuz, nire taldeak babesa emango du. Nik uste dut Udal ezberdinen artean eta Aiarako koadrillan adostasun batera iritsi beharko ginatekeela, eskumena duten Administrazioei eskatzeko, ez soilik ASASAM elkartearentzat espazio bat sortzea urtebetera, bi urtera, bost urtera so, ez, baizik eta bilkura bat izan Elkarte guztiekin, hemen asko doitzen baita dena, atzo esan zidaten "ez, bat desgaitasun intelektuala da, eta bestea gaixotasun mentala", baina nik diot, tira, guztiek gutxi gorabehera gauza bera eskatzen duten elkarteak dira, beren lana, beren terapiak edo behar dutena egin ahal izateko espazioak. Nik hemen eskatzen dut Aiaran egon dadila adostasun bat, Udal guztien eta Koadrillaren artekoa, Aldundiari eta Eusko Jaurilaritzari eskatzeko behin betikoz eraiki dadila eraikin bat pertsona guztiek bizimodu arrunta egin eta beren lana, mintegiak edo haientzat onena dena hori burutu ahal izateko, Gasteizeraino mugitu beharrik izan gabe Aldundiak izan ditzakeen zentroetara. Nire taldearen arabera eta nire ustez egokiena hori dela uste dut. Eskatu nahiko nuke behingogatik Aiara kontuan har dadila, eta ASASAM nahiz APDEMA elkarteek eraikin bat izateko beren arazo guztiei irtenbidea emango diona. APDEMA elkartearen kontuarekin Alderdi Popularrak sartu zuen Batzar Nagusietan mozio bat gutxi gorabehera eraikin bat eraiki zedila eskatuz. Eta niri harrigarri egiten zaidana da EAJ eta PSOE alderdiek kontrako botoa eman zutela. Ez zuten abstentzioa eman, ez, kontrako botoa eman zuten. Bildu eta Podemosak abstentzioa eman zuten. Jakina, bakoitzak bere abstentzioaren arrazoia islatu zuen. Baina egia da, Bildu zein Podemos taldeek, zerbitzu orokor bat izatearen premia aipatzen zutela, eta une honetan zeuden eraikinek ez zutela estaldura eskaintzen APDEMA elkartetik eskatzen zen eskari guztia hartzeko. APDEMA elkarteari ASASAM elkartearen gaineratzen badiogu, nire ustez gaixotasun mentala duten pertsona guztiei laguntza emateko funtsezkoa den beste Elkarte bat, bada nik uste dut behingoz ekimen bat abiatu behar dugula Aiaratik, ezin dugu beti egon gure etxea baino handiagoa denak zer esango duen itxaroten, eta ea behingoz Ibar honetan beharrezkoak diren egiazko inbertsioak burutzen diren. Eta gure adin nagusikoei, gure gazte guztiei, edo premia duten pertsona guztiei gizarte zerbitzuak eman ahal izateko beharrezkoak den azpiegitura osoa eratu dadila.

Joseba Vivanco Retes: Josebak bi gai aipatzen zituen eta, hori, azkenean guztiak zerikusia du Udaletxean dagoeneko jorratu dugun aipatzen duten Gizarte Zerbitzuen Maparen kontuarekin, nola zehaztuko den, nola geratuko den, eta hemen ere jorratu izan dugu noizbait, eta ikusi dugu zer-nolako desadostasunak dauden Aldundiaren aldetik eta gainerako alderdien aldetik planteatzen den Gizarte Zerbitzuen Maparen proposamenarekiko, orduan eztabaida horretan kokatzen da era berean eskaera hau, guk babestu egingo duguna.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik irakurtzen dudanean EAJ alderditik itxarote-zerrendarik ez dagoela esaten dela, esaten duzu, Zer gertatzen da? Edo beste esaldi batek dio "ezinbestekoa da premiak modu formalean helaraztea, horrela bakarrik aztertu ahal izango dira behar diren hobekuntzak", ikus dezagun, Ez al da Oinarritzako Gizarte Zerbitzuen zeregina premiak zein diren informatzea, edo udalerrri batean arazoren bat duten pertsonak nor diren esatea?, izan ere, hemen doitasun handiz ibili behar denez, hitz egiten ari zaren Elkartearen arabera gauza batez edo beste batez hitz egin behar duzu, baina noski hori teknikariaren lana izan beharko da. Edo ez al dago Udal ezberdinetako teknikarien aldetik desgaitutako pertsona horien gaineko kontrolik? Nik egia esan, badira zenbait gauza prentsan ateratzen direnean, politikari batek esan ditzakeen gauzen inguruan, egia esan, gero aztertuko bazenitu esango zenuke "zer-nolako



astakeria esan dudan oraintxe, edo zer nolako tontakeria esan dudan”. Horixe da gertatzen dena. Eta kontrako botoa ematen dizute. Ez dakit. Zuk Aldundian, Eusko Jaurilaritzan, ekimen bat aurkezten duzunean, egiazko arazo batekin, izan ere, egiazko arazoa baita, ez gara asmatzen ari, eta gaur hemen ASASAM elkarteak dugu, mahai gainean ipintzen ari zaiguna, eta gaur hemen ziurrenera hau onartu egingo dugu ASASAM elkarteak ekarri duelako. Ziurrenera beste talde batek ekarri izan balu desadostasunak izango genituzke. Hori da arazoa- Arazoak politikariok sortzen ditugu, gure zeregina irtenbideak ematea denean. Hau gaur hona Alderdi Politiko batek ekarri izan balu mahai honetara oraindik eztabaidan egongo ginatke. ASASAM elkarteak ekarri du ordea. Bada, ea zortea duzuen, ziurrenera guztion adostasunarekin aterako baita. Eta nire ustez, gaur hemen jorratzen den hau, Amurrión jorratuko da, eta Laudion jorratuko da, bada Batzar Nagusietan jorratu beharko litzatekeela, eta Eusko Jaurilaritzan jorratu eta irtenbide bat eman beharko litzateke, eta ez hasi hemen prentsa-mozketekin ea tontakeria handiena nork esan duen.

Inmaculada Vivanco Retes: lehendabizi esan gure taldeak ere aldeko botoa emango duela deklarazio honen aurrean, hura babestea beharrezkoa dela uste dugulako. Baina Aldundia lan egiten eta gauza batzuekin eta besteekin aurrera egiten aritzeaz gain, uste dugu beharrezkoa dela babes hori eta ahalegin hori zerbitzua eskualdera ekarri eta Gasteizera joan behar izatea ekiditeko, hemen ere zerbitzua izan dezakegunean, eta azpimarratu apur bat, nik ezagut ahal dudanagatik, nire lanari dagokionez, zonalde mugakide batean egote hori sarritan oztopo handi samarra dela batez ere burokraziari dagokionez, izan ere zenbait gauzetan esaten dizute “ez, hori Arabarekin egin behar duzu, baina honetaz arduratzen dena...” eta guztiok dakizue hori. Osakidetzari dagokionez, badira hainbat zerbitzu Arabarekin eta beste zenbait Bizkaiarekin doazenak, baina hauek ez dakizu nongoak diren eta nor deitu behar duzun... Beraz, nik uste dut egin beharrezko zerbait dela. Horregatik guk babesa emango dugu, Josebak APDEMA aipatu du, elkarte gehiago ere badira, orain ASASAM elkartearekin gaude, Aiarako elkarte bat dena, kontua, oker ez banaiz, ez da soilik Arabarekin lotutakoa edo... Baina APDEMA elkarteak eremu handiagoa hartzen du. Ez dakit beste Udal batzuetan zer bozkatuko den edo zer erabakiko den, baina Artziniegan gure taldeak aldeko botoa emango du.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderdikoak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH-Bildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdikoak (1).

Onartuta geratu da.

Goizeko 10:15etan Jose Luis de Valle Duque Osoko Bilkuratik irten da.

10.- Bildu-EAJ taldeen baterako mozioa.

Alkatea: orain EH-Bildu eta Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkeztu duten baterako mozioa jorratuko dugu.

“Euskal Herria Bildu eta Eusko Abertzaleak udal taldeen BATERAKO MOZIOAREN PROPOSAMENA.

1. Artziniegako Udalak bere ukoa eta alarma agertzen du Kataluniako autonomiaren auzia egitateko bidetik esku-hartu delako eta Estatuko segurtasun-indar eta gorputzek gauzatutako polizia-operazioagatik, Generalitatekoen legezko instalazioetan erregistroak egin eta hartako arduradunen atxilotetak egin baitituzte.



2. Kataluniako herritarrek demokratikoki hautatutako alkateak deklaratzera deitzea zeharo arbuiazen dugu. Eskubide demokratiko bat praktikan jarri nahi duten Kataluniako alkateak leporatzearen aurka gaude.

3. Artziniegako Udalak dei egiten dio Espainiako Gobernuari oinarrizko eta funtsezko askatasunak zapaltzeko bere estrategia utz dezan, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa dena.

4. Artziniegako Udalak funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko bere konpromisoa berresten du eta bere elkartasuna erakusten du Kataluniako herriarekin eta Espainiako Gobernutik zuzendutako jazarpen politiko eta antidemokratikoa pairatzen ari diren pertsona eta instituzio guztiek.

5. Artziniegako Udalak erabateko legitimitatea aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak gauzatu nahi duen erreferendumari. Halaber, urriaren 1eko erreferendumaren emaitzak errespetatu egiten ditu eta herritarren borondate askean oinarritutako prozesu demokratikoak babesten ditu, hala Katalunian, nola Euskal Herrian edo munduko gainerako herrietan.

6. Artziniegako Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren borondate demokratikoa adierazteko aukera eman dadin eta haren erabakia errespetatu dadin”.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik deklarazio bat nuen prestatuta, baina Mariano Rajoy-ek erraz jarri dit bere deklarazio Institutuzionalarekin. Denboratxo bat pasako dut irakurtzen baina tira, nik uste dut hau dela modurik onena nire taldeak zer ulertzen duen eta Espainiak zer pentsatzen duen azaltzeko.

“Dakizuen moduan, Espainia Estatu demokratikoa da, eta zuzenbidekoa. Eta halaxe agertu da azken egunotan eta bereziki gaur, gure demokraziako oinarrizko arauak hautsi nahi dituztenek hori egin ahal izatea ekiditeko beharrezkoak diren mekanismo eta tresnak ditu. Legea defendatzeko mekanismoak ditu eta baita halako zuhurtziagabekeriak guztion arteko elkarbizitza arrisku larrian ipintzen ari direnei erantzukizunak eskatzekoa ere.

Duela zenbait egun esan nizuen zuzenbidezko Estatuak ez duela hutsik egingo; eta inork ez zuela dardarik egingo bere egitekoa betetzean. Orduan, orain bezala, nazioko Gobernuari buruz ari nintzen eta baita gure instituzio demokratikoen funtzionamendu egokia bermatzen zutenei buruz ere; Segurtasun Indar eta Gorputzei, Fiskaltzari, epaileei eta auzitegiei buruz ari naiz. Guztiok aitortu behar dugu haien lana. Espainiar guztien eskubideak ari dira defendatzen, baita kataluniarrena ere, suntsitu egin nahi dituztenen aurrean. Herritarren askatasuna babesten dute eta legeekiko errespetuaren alde egiten dute espainiarren arteko elkarbizitzarako berme onena bezala.

Legeak ez dira jendeari ez dagokion botere baten inposaketa arbitrarioak, inondik ere ez. Legeak askatasunean elkarbizitzeko gure buruari emandako tresnak dira eta gure desadostasunak modu baketsu eta bidezkoak kudeatzeko. Hori dela eta, inor ezin da haien gainetik kokatu eta, horregatik, botere publikoaren aldetik legeari desobedientzia egitea, demokraziaren aurkakoa da erabat. Inposizio bat da, bidegabekeria bat, jendearen eskubideen aurkako ekintza bat eta bizikidetzaren erroaren aurkako eraso. Berriki Espainiako elkarte judizial guztiek adierazi duten moduan, disidentzia babesten duten arau juridikoak mespretxatzen dituen desobedientzia ekintza totalitario bat da.

Erreferendum hori joan den irailaren seian onartu zen Kataluniako Parlamentuan, parlamentuko arau funtsezkoenak urratuz, oposizioko ahotsak isilaraziz eta Kataluniako instituzioetatik bertatik haren legezkotasunari buruz egindako ohartarazpenei entzungor eginez. Hasiera batetik, demokraziaren aurkakoa da zeharo. Espainiako Konstituzioa eta Kataluniako Estatutua bera atzeko atetik indargabetu nahi da, horretarako nahiko boto izan gabe eta bi kasuetarako legeak aurreikusitako mekanismoei izkin eginez.

Egiaz, botatzea bera demokraziaren irudi adierazgarri eta argiena da; baina, era berean, badakigu historikoki asko izan direla legitimatzen saiatzeko botoa erabili duten erregimen ez demokratikoak. Botoa demokraziaren sinonimoa da soilik legearekin eta guztien eskubidearekin bat etorri egiten denean. Ezin da bozkatu legea ez betetzeko, hura legezko metodoak baliatuz aldatzeko bozkatzen da.



Halaber, ezin da demokraziatzat hartu herritarrei proiektu baztertzaille bat inposatzeko bozkatzea. Demokrazian bozkatu egiten da erabakiak modu barnerakoian hartzeko, gizartearen aniztasuna entzun eta errespetatuz. Gogoeta hauetan luzatu nahi izan naiz haietan oinarritzen delako gure zuzenbide Estatuak desafio independentistari emandako erantzun integrala.

Jokoan dagoena ez da adierazpenerako eta defentsarako bere bideak dituen eskakizun politiko bat. Zalantzan dagoena demokraziaren beraren funtsa da. Gure Zuzenbide Estatuak jardun du eta hala egiten jarraituko du. Legezkontraktotasun orok, urraketa orok, bere erantzuna izango du, irmoa, proportzionala eta zorrotza izango dena.

Nabarmendu nahi dut Gobernuak bere eginahala egingo duela, orain arte egin duen moduan, Kataluniako herritar bakar bat erradikaltasunaren zentzugabekeria honen ondorioz kaltetua izan ez dadin. Eginahala egingo dugu inork bere lanean, bere enpresan edo bere bizitzan gertaera horien ondorioak izan ez ditzan. Beste inoiz esan dudan moduan, legeak babestu egiten ditu eta Estatuak bere ordenamendu juridikoak berak eta hartan jasotzen diren berme demokratikoez markatutako erritmoan erantzungo du.

Halaber, indar politikoen lankidetzeta eta babesa eskertu nahi dut, nazioa babesteko eta zalantzan ez jartzeko unea dela baitakite. Ez dut ulertzen bere jarrera Gobernuaren aldeko babes modura baizik eta Espainiarekiko, bere demokraziarekiko eta espainiar guztiekiko konpromiso modura. Batasun hori ezinbestekoa da eta hori da Kataluniako alkate, zinegotzi, funtzionario eta udaltzaingoei eman diezaiekegun laguntza handiena, mehatxuak, irainak eta jazarpenak pairatzen ari baitira legea ez betetzeari uko egite hutsagatik. Haiek hertsatzean, bizikidetzara- arauak errespetatzen dituzten herritar guztiak hertsatzen dira.

Hemendik nire aitortza berretsi nahi diet eta gogorarazi haiena kausa justua dela. Halaber, organo independentista kaleetan ezegonkortasuna eragin eta gure instituzioak ahultzeko baliatzen dutenei ohartarazten diet espainiarren aurrean erantzun beharko dutela gure bizitza politikoko horren une erabakigarrian erakutsitako desleialtasunaren ondorioz. Gure bizikidetzari halako desafioa eragiten ari diren Generalitateko arduradunei eskatzen diet legez kanpoko beren jardunak alde batera uzteko, beren asmoak alboratzeko, badakite erreferendum hau dagoeneko ezin dela egin. Sekula ez da legezkoa izan, ezta legitimoa ere. Orain ezinezko ameskeria baino ez da edo are okerrago dena batzuen aldetik Kataluniako gizartearen sorrarazi duten haustura horretan are gehiago sakontzeko bilatzen den aitzakia.

Kataluniar gehienen lasaitasunak axola badizue uko egin iezaiozue behingoz erradikaltasun eta desobedientziaren goraldi horri. Garaiz zaudete kalte handiagoak ekiditeko. Inori ez dio onurarik egiten desobedientziako giro honek ezta Justiziari eta legeari egindako etengabeko desafio honek ere. Demokrazian beti daude bideak edozein iritziko politikoko defendatzeko. Bere garaian, Generalitateko presidente jauna gonbidatu nuen bere eskakizunak Diputatuen Kongresuan azaltzera, baita finantzaketa autonomikoa erreformatzeko negoziazioetan parte hartzera ere eta etengabe egon naiz Generalitatearen arazoetarako irtenbideak bilatzeko prest. Beti agertu dut entzuteko eta solasteko nire prestutasuna legea eta gure Zuzenbide Estatuarekiko leialtasuna errespetatuz. Esparru honetan, beti mantentzen dugu gure prestutasuna.

Berritot, ez segi aurrera. Ez duzue horretarako inolako legitimitaterik. Itzul zaitezte legera eta demokraziara. Ahalbidetu ezazue jendeak aurrera egitea horren egun goibetan. Ez itzazue sortu dagoeneko sortutakoak baino arazo gehiago. Utzi katalanei beren bizitza bakean egiten, hausturarik gabe, presiorik gabe, gatazkarik gabe eta izurik gabe. Legez kanpoko eta hausturakoa den proiektuak ez du inolako etorkizunik eta zentzurik gurearen moduko Zuzenbide Estatu demokratiko batean. Ez du inolako babesik nazioartean, ez du inolako babes juridikorik eta, batez ere, ez du katalan gehienen babesik.

Amaitzera noa. Zuzenbideko gure Estatuak dituen tresna bakar bati muzin egin gabe legea betearazteko nire erabakimena bermatzen dudan moduan, ziurtatzen dizuet, era berean, nire jarduna uneoro zuhurtziak eta erantzukizunak gidatuta dagoela, modu horretan, ekiditeko gutxi batzuen burugabekeria Kataluniako herritar guztiek edo gainerako espainiarrek pairatu behar izatea”.

Unai Gotxi Kastrexana: Joseba, labur esanda, irakurri duzunak gupil zoroa ekarri dit gogora. Katalunian aginte herrikoi bat dago, Katalunian gauza jakin bat eskatzen duen gehiengo



herritarren borondate bat dago, eta Espainiako Estatuak esaten duen bakarra da legearen baitan egon behar dela, baina tranpa batekin, hots, Lege hori sekula ezingo dutela aldatu. Eta horrexegatik Artziniegako Udaletik gure babesak adierazi nahi diogu Kataluniako Parlamentuak urriaren 1ean abiatu duenari.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dago inolako tranparik. Konstituzioa aldatu egin daiteke betiere Gorte Nagusietan beharrezkoak diren babesak baldin badituzu. Legeak betetzeko dira eta guztiok daukagu ardura... hau da, Futbol-partida batean zer gertatzen da? Galtzen ari naizenez baloia eskuan hartu eta saskibaloian joka dezaket? Ez, jokatzeko modua izan beharko da...

Unai Gotxi Kastrexana: begira Joseba, iraganeko diktadurak aipatu dituzunez, esango dizut, duela 30 urte, emakumeek ezin zuten hemen eseri. Legez.

Joseba Elejalde Ribacoba: esate ari naitzaizu legea aldatzeko dagoela. Kongresuan aldatu ahal izango dira. Ibarretxeren plana eraman zen, ez zen aurrera atera baina egon dira aurrera atera diren gauzak. Nik soilik esan nahi dizut babesten duen, edo babesten gaituen, lege bat dagoela, eta jendeak ezin dio muzin egin hala nola, eta muzin egin dion lehenengoa Puigdemont jauna izan da, joan den irailaren 7an Kataluniako autonomia indargabetu zuena, iragankortasunaren legea onartu zuenean. Bera joan da bere araudiaren aurka, bere Estatutuaren aurka.

Unai Gotxi Kastrexana: berriro diot, gurpil zoroa. Legea bete beharra daukazu baino sekula ezingo duzu aldatu.

Alkatea: beno, zuk Mariano Rajoy-ren agerraldia transkribatu duzu, bada ni gaur goizean Pep Guardiola entzun diodan beste batekin geratzen naiz, zera esan duenean "ez gara independentziaz hitz egiten ari, demokraziak baizik, eta kasu honetan ez dago halakorik". Ni horrekin geratzen naiz. Ongi baderitzozue, bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

11.- 2017. ekitaldiko bigarren hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.

Alkatea: hor duzue dokumentazioa. Zerbait esan nahi duzue?

Alazne Lafragua Ureta: aipatu dagoeneko irailean gaudela eta aurrekontuan aurreikusita dauden arren oraindik gauzatu ez diren zenbait inbertsio daudela. Horien artean Suspertze komertzial eta turistikoaren Plana, bada, noiz hasiko den jakitea gustatuko litzaiguke. Gero, Barratxiko bidea eraberritu eta balioztatzeko proiektua ere hor dugu, 10.000 eurokoa, eta hori ere hor dago. Aretxagako saneamendua eta autobus-geralekuaren erreforma ditugu, 24.000 eurokoak. Bideen seinaleztapena daukagu, oso zaharkiturik dagoena... 1.500 eurokoa. Erretako zabuen eraberritzea daukagu, Josebak ondo oroitzen duena, 4.000 euro. Eta Geltoki Plaza eta Herrigunearen tartearen konponketa, 35.000 euro. Ea asmorik dagoen horri egiteko edo zer gertatuko den honekin, izan ere, dagoeneko irailean gaude, amaieran.

Alkatea: esango dizut, Erretako zabuak eraberritzeari dagokionez, bagenuen aurrekontu bat, Erretako auzotarrei bidali genien ikus zezaten, beste proposamen bat bidaliko zutela esan ziguten, eta aurrekontu bat bidali digute duela 15 egun inguru. Berrikusteke dago. Geltoki Plazako tarteari dagokionez diru-laguntza dagoeneko onartuta dago, eta orain gauzatuko da jaien ondotik, dagoeneko arkitekto teknikoa lanean ari da proiektu hori gauzatzeko. Gero, ondotik, bideen seinaleztapenaren kontua dago. Ni egon naiz dagoeneko Ganzorrotzekin eta esan didate hil



honetan dagoeneko seinaleztapen bakoitzean ipini beharko ditugun mugarriak izango dituztela enkargatu eta ipini ahal izateko. Zein zen bestea?

Alazne Lafragua Ureta: saneamenduarena eta geralekuarena.

Alkatea: Aretxagako saneamenduaren eta autobus-geralekuaren kontuarekin arkitektoa balioespena egiten ari da, eta horrek izango du nolabaiteko igoera eta obra txikietarako aurkeztu nahi genuen obretako bat zen, egin zedin. Zer gehiago?

Alazne Lafragua Ureta: Barratxi birgaitzeko proiektua, birgaitze komertzialaren plana.

Alkatea: birgaitze komertzialaren planerako dagoeneko berretsita daukagu 12.000 euroko diru-laguntza, komertzioarena. Beraz, ostiral honetan ADR nahiz egingo duen enpresarekin egongo naiz, berehala hasi ahal izateko.

Alazne Lafragua Ureta: berehala, zenbat da berehala gutxi gorabehera? Izan ere, laster urtea amaituko da.

Alkatea: berehala, urrian. Eta, ondoren, egia da Barratxiko bidea balioan jartzeko gaia zehazteke dugula, teknikariak egindako Pleguak ditugu, bada tira, hori berrikusi eta pleguak onartu beharko lirateke, eta esleipena egin. Ez da obrak esleitzeko, baizik eta proiektua zehazteko. Zehazteko nondik joan behar duen bideak, zein diren desjabetu behar diren lurrak... Plegu hori ez da esleipena egiteko, baizik eta irtenbidea emateko. Zonalde batzuetan zenbait arazo ditugu, bideak joan behar duen lekutik, eta orduan hori zehaztu ahal izateko. Besterik?

Joseba Vivanco Retes: Erreta atera denez...

Alkatea: bada Erretan zehazteko dagoen bat, Biondarena, hori ez duzue galdetu.

Joseba Vivanco Retes: ikusi dugu aurrekontua dagoeneko iritsi dela.

Alkatea: kontua ez da iritsi dela, aspalditik dago hemen udaletxean.

Joseba Vivanco Retes: sarrera emanda bederen duela gutxiik aurrekontuari dagokionez, atzokoa edo herenegungoa, horregatik ikusi eta kendu egin dugu. Erretarekin bi gauza soilik. On litzateke, Aldundiaren aldetik haur jolasak egokitu ziren moduan, zabuak Santutegian Ama Birjinaren jaiarekin bat eginez, nire ustez on litzateke, Erretako jaiekin bat etorriz, bada zabuak ongi ipintzea, aurrekontuarekin urtearen hastapenetik onarturik zegoen partida bat zela ikusirik. Eta gero beste gauza bat Erretarekin, joan den egunean, Josebak irri egiten duen moduan nik ere irri egin nuen, hain justu Erretan paperontzi bat jartzeko paper bat erregistratetik zetorren andre batekin topatu nintzen. Grazia egin zidan Udaletako xehetasun txikien kontua errepikatzen dudalako. Kontu horrek bere jatorria du, uste dut Erretakoekin egiten den bizilagunen bilkura bakoitzean paperontzi bat eskatzen dutela. Galdera zera da, Nork bilduko du gero paperontzi hori? Nik ez dakit horretaz auzotarrekin hitz egiteko aukerarik dagoen, eta auzotarren elkartearekin berarekin, eta esan "aizue, bada begira, agian zuek ardura zaitezketen", baina paperontzi bat eskatzen ari badira, bada jar daitekeena...

Alkatea: paperontzia jarri egingo dugu.

Joseba Vivanco Retes: bada, ea egia den. Eta aprobetxatuz era berean herrigunean paperontziren bat kentzen denean, berriro jar dadila, izan ere, ikusten ari gara kendu egiten direla hautsi egiten direlako, eta ez dira bere lekura itzultzen, beraz...

Alkatea: Zerbait zehazki?

Joseba Vivanco Retes: Mirafloreseko kantoian ez dago paperontzirik ez dakit noiztik, eta Campillokoa... Paperontzi bat galtzen dugun bakoitzean, bat gutxiagorekin geratzen gara.

Alkatea: bada, badugu.

Joseba Vivanco Retes: baina beno, lehentasuna Erretakoari,

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, kontua ez da Erretakoari lehentasuna ematea, eskakizun hori Udalbatza honetan aspaldidanik egiten da, eta ez soilik Erretako auzotarren aldetik, baina haiek ere bai, nik bankuak eskatu ditut, paperontziak eskatu ditut sarritan, baina batez ere Erretako herriaren aldetik, zorionez jende askok bisitatzen baitu, eta zonalde horretara, era berean, jende asko joaten da oinez ibiltzera, txirrinduan ibiltzera, eta une jakin batean banana bat jaten ari dira eta ezker-eskuin begiratzen dute nola bota ez dakitela. Eta azkenean lurrera edo inguruko zelaiguneren batera botatzen da. Ez dut uste oso garestia izango denik eta sarritan hitz egin dugu horri buruz.

Alkatea: ez, eta kasu honetan argi dugu norena den erantzukizuna. Hemen ezin dugu kudeaketa-gomendiorik eta halako deus bilatu.



Joseba Elejalde Ribacoba: arrazoa zein den jakin gabe denboran luzatzen diren gaietako beste bat da hori. Premiazkoak diren beste gauza batzuetarako 500 edo 800 euroko partidak ateratzen diren moduan, bada, pentsatzen dut hemen, kasu honetan ere atera daitekeela aurrekontu-partida bat auzoak beharrezkoak diren gauza txiki horiekin hornitzeko, auzo txikiak horren beharrezkoa den hiri-altzari horrekin hornitzeko. Nik zabuenari eta Erretakoari buruz ez dut hitz egingo, gehiegi luzatuko nintzatekeelako eta dagoeneko ez du merezi, izan ere, uste dut guztiak ados zeudela esan zidatela. Orain zuk esaten badidazu beste proposamen bat bidali dizutela berriro, nire ulermenetik harago doa hori, baina uste dut bidali zenidanari oniritzia eman ziotela denek. Elkartean, taldean, bederen, guztiak ontzat ematen zuten Udalaren proposamena. Nik txatean bai behintzat. Zuri Batzarreko beste inork beste zerbait jakinarazi badizu, nik hor lñigo, ez dut horren berri, baina auzotarren txatean, argazkiak bidali zenizkigunean...

Joseba Vivanco Retes: Joseba, etxe hura guztia konpondu ostean txat bidez elkartzen al zarete?

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: lñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

12.- Bigarren hiru hilekoko “ordainketarako batez besteko epealdia” izeneko txostenaren berri ematea.

Alkatea: epealdia 0,22 da.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: lñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

13.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2017. urteko 111-171 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.

Unai Gotxi Kastrexana: 122 zenbakiari dagokionez, zaharren egoitzako bainugelak garbitzeko esleipenaren prozedura abiatzea da, eta lizitatu ote den galdetu nahiko nuke...

Alkatea: ez da inor aurkeztu.

Unai Gotxi Kastrexana: ez da inor aurkeztu, orduan nola aurreikusten da zerbitzu hori ematea.

Alkatea: bada, momentuz, orain arte bezala.

Unai Gotxi Kastrexana: aipatzen dut, izan ere, dakigunez, zaharren egoitza garbitzen ari den enpresaren fakturak iristen dira oraindik, kontratua 2016ko azaroan amaitu bazen ere.

Alkatea: bai, garbitzen jarraitzen dutelako.

Unai Gotxi Kastrexana: eta jadanik aurkeztu genuen idatzi bat, non faktura horien erantzukizunaren inguruko zenbait galdera egiten genituen.

Alkatea: bai, baina zerbitzua ematen jarraitzen dute. Ikusten duzunez, zerbitzua mortu geratu da.

Unai Gotxi Kastrexana: eta horrela jarraituko du? Eta zein egoeratan...

Alkatea: ea zein irtenbide ematen didazun.

Unai Gotxi Kastrexana: nik legezko zein egoeratan dauden galdetzen dut.

Joseba Vivanco Retes: Legalki egin daiteke, Idazkari andrea?

Ascension Hormazabal Meabe: irekitako prozedura mortu geratu ostean, orain negoziatu bat egitea dagokio.



Joseba Vivanco Retes: baina ez da deus egin. Kontua da hilabeteak daramatzagula fakturak igortzen eta fakturak ordaintzen kontratuzko inolako harremanik egon gabe ustez, izan ere, ez dago ezer.

Alkatea: eskaintzak egon ziren, prezioak eskatu ziren, eta oraintxe bertan morturik dago.

Joseba Vivanco Retes: guk ez dugu esaten garbitu behar denik edo garbitu behar ez denik. Prozedura negoziatu bat edo dena delakoa egin behar bada, egin bedi. Baina egin dadila, izan ere, ez dago ezer. Udal modura egiten ari diren garbiketa baten ondoriozko faktura batzuk ordaintzen ari gara teoriarik inolako zerikusirik ez zuenean, ez dago garbiketari den enpresa lotesle bihurtzen duen paper bakar bat. Ez dakit negoziatua egitea zaila den, ez dakit, baina egin bedi. Ezin duguna da linboan egon.

Alkatea: beno, hori galdetu dut, zein irtenbide ematen duzue?

Joseba Vivanco Retes: Idazkariak dio prozedura negoziatu bat edo dena delakoa egin daitekeela.

Ascension Hormazabal Meabe: haiekin berekin.

Joseba Vivanco Retes: haiekin berekin are. Abendutik esaten ari gara ordea. Egin bedi. Nolabait egiteko formularen bat badago, egin dadila. Guk ez dugu esaten garbitu behar ez denik, edo jubilatuek garbitu behar dutenik, ezta eguneko zentrokoek, ez inork, baina ongi egin dadila.

Arkaitz San Jose Martinez: Zenbatekoa da hileko kopurua?

Joseba Vivanco Retes: gutxi da.

Arkaitz San Jose Martinez: bada, gutxi bada eta urtean 18.000 eurora iristen ez bada esleipen zuzen bat egin dadila, baina ager dadila nonbait enpresa horri esleitzen zaiola hainbat hilabetez.

Alkatea: ezin da esleipen zuzena egin, urtebete baino gehiago baita.

Arkaitz San Jose Martinez: bost hilabetez egin dadila, negoziatua ebatzi arte.

Unai Gotxi Kastrexana: 2016ko azaroaz geroztik gaude horrela.

Ascension Hormazabal Meabe: orain gauden puntuan, non prozedura ireki bat egin eta mortu geratu baita, orain negoziatua egitea dagokio, eta negoziatu horretan ez dago kontratu txikiaren muga hori, hots, urtebetekoa.

Alkatea: Eta interingean nork jarraitzen du? Egiten ari zena.

Joseba Elejalde Ribacoba: Eta aurreko prozedura negoziatuetan bezala negoziatuko dugu edo nola negoziatu behar dugu? Izan ere, aurreko prozedura negoziatuetan ez genuen negoziatu.

Joseba Vivanco Retes: deigarria dena zera da, egiten ari den enpresa bera ez dakidala aurkeztu zen ala ez.

Alkatea: ez zen inor aurkeztu.

Joseba Vivanco Retes: ez da inor aurkeztu, mortu jarraitzen du, baina enpresa berak egiten jarraitzen du. Nola demontre izan daiteke hori?

Alkatea: hori ez da Artziniegan eskusiboki gertatzen den zerbait. Hori kontratazio askotan gertatzen da. Mortu geratzen da eta zerbitzua ematen jarraitzen da.

Joseba Vivanco Retes: baina loturaren bat egongo da, paperen bat, enpresa hori lotzen duen zerbait. Izan ere, bihar garbitzen ari den pertsonari zerbait gertatzen bazaio, guk zer esango dugu? Zertan ari zinen han?

Alkatea: bere garaian esleipen bat egin genuen.

Joseba Vivanco Retes: bere garaian.

Alkatea: urtebeterako zen, amaitu egin zen, baina oraindik zerbitzua ematen jarraitzen du. Lizitaziora atera dugu eta mortu geratu da.

Joseba Vivanco Retes: berriro diot, pertsona horietakoren bati zerbait gertatzen bazaio laneko ordutegian, zer egingo dugu Udal modura? Esango diogu "ez dago ezer eta, ez dago paperik eta, inork ez dizu garbitzera joateko esan eta". Hori baita daukagun egoera horren bitxia.

Alkatea: oraindik zerbitzua ematen ari dira. Eta kontratua mortu geratu da. Horixe da dagoena.

Joseba Vivanco Retes: ispiluarekin gertatzen dena gertatzen da hemen. Espero dugu ezer ez pasatzea, baina bitartean edozein modutara jarraitzen dugu.

Alkatea: Besterik?



Joseba Vivanco Retes: bai, tira, Dekretuetan Saru-1 izenekoan egindako obra batzuen ondorioz espediente zehatzaile zenbait jasotzen ziren, geldiarazteko agindu zitzaizen obrak dagoeneko geldiarazi diren jakitea besterik gabe, obrak etenik dauden badakigun.

Alkatea: daukadan azken erreferentziaren arabera, bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik dakidanez bai. Ni behinik behin sustatzailearekin hitz egiten aritu nintzen eta etenik zeudela esan zidaten. Besterik gabe, oztopo-zutoinekin dauden istripu ezberdinei buruz dauden dekretuei buruz, ez dakit udalerrian erabiltzaile diren auzotarrei nola funtzionatzen duten adierazteko azalpena egin behar ote zaien, beti-beti errepikakorrak baitira. Hau da, moto baten atzetik, txirrindu baten atzetik, aurretik duzun autoaren atzetik sartzen saiatzea... Gutxi gorabehera, zu irakurtzen zoaz, eta oraindik ebatzi ez den azkenekoa salbuetsita, gainerakoak errepikatu egiten dira, aurretik doala, atzetik doala, oztopo-zutoina jaitsi egiten dela motoak ez dakit zer... Eta, azken batean, nire ustez herritarrari ematea, ez dakit oztopo-zutoinek nola funtzionatzen duten azaltzeko orri bat ematea, oso denbora laburrean gertatzen ari diren arazo horiek guztiak ekidin ahal izateko. Jendeak jakin beza oztopo-zutoinak gutxi gorabehera nola funtzionatzen duen, izan ere, uste dut jendeak ez duela oso argi, ikusirik...

Inmaculada Vivanco Retes: oso erraza da.

Joseba Elejalde Ribacoba: badakit oso erraza dela baina hiru hilabete baino gutxiagoan hiru istripu jasotzen dira hemen, edo hiru erreklamazio, ekainetik irailera, eta azkena hamalagarrena izan dela uste dut. Erraza izango da eta guztiak oso argi izan dezakete, baina azkenean konturatzen zara hilabetetik hilabetera norbaitek oztopo-zutoina jotzen duela eta Udalari erreklamazioa ipintzen diola, oztopo-zutoinek beti gaizki funtzionatzen dutelako. Nik ez dakit, oztopo-zutoinak oso funtzionamendu arraroa izan behar du batzuekin edo besteekin. Nik uste dut jendeari behingoz azaldu beharko zaiola nola funtzionatzen duen oztopo-zutoinak Semaforoa gorri egotetik anbarrean egotera pasatzen den arte itxaron behar denean bezala, ezin zarela moto baten atzetik joan eta motoaren atzetik igaro, izan ere, oztopo-zutoinak ibilgailua pasa bezain pronto gorantz egiten du, eta abar, udalerrri honetan itxura batean ez baita ongi ezagutzen hori.

Inmaculada Vivanco Retes: hor-hor, ongi esan duzu, udalerrri honetan. Nola funtzionatzen du semaforoak? Gorrian badago geldi zaude, laranjarekin zuhurtziaz igaroko naiz eta berde dagoenen pasa zaitezke. Oso erraza da. Erabilera okerra da istripu horiek eragiten dituen.

Alkatea: edozein kasutan, Joseba, martxan jarri zenetik ekainera ez dakit 70.000 igarotze egon ez ote ziren. Hau da, kolpeen portzentajea % 0,00 eta abarrekoa zen. Hots, kolpeak izaten dira, eta kolpeak daudenean mundu guztia aztoratzen da, baina erabilera egokiko asko eta asko dago. Eta gu ez gara oztopo-zutoinak instalatuta dituzten udalerrien artean salbuespena. Udalerrri guztietan izaten dira kolpeak. Eta gehienetan gidariaren erabilera okerrak eragindakoak izaten dira, tren txikiak eta halako kontuak.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, eta kontu bat, esate baterako, bideak, diru-laguntza bat eskatu baita, 141 zenbakidun dekretuan, jarduera fisikoa sustatzen duen diru-laguntza bat. Eskatzen da, hasiera batean seinaleztapenerako, dugun jarduteko moduaren arabera zenbaitetan ez ditugu proiektuak hasten diru-laguntzen lerroa ez dagoen arte. Nire buruari galdetzen diot, diruz lagun daiteke era berean proiektu bat, lerro bat, deialdia ateratzen den unean dagoeneko hasita dagoena, eta azkenean diru asko pilatzen zaigu soberakinera doana hurrengo ekitaldirako x programetarako diru-laguntza lerroak irteteko zain gaudelako.. Udal txikia da eta argi dago zenbat eta diru-laguntza gehiago jaso orduan eta hobeto dela, baina agian aztertu egin beharko da hori, eta egiaz estrategikoak diren gauzak badaude, hasi eta gero jasoko da diru-laguntza beranduago. Azken finean gauzak Alaznek irakurri duen moduan gertatzen dira, beti urte amaierara iristen garela partidak ukitu gabe daudela.

Alkatea: beno, jarduera horri dagokionez, zehazki, iaz bideena sartu genuen, eta ukatu egin ziguten ez zelako sartzen. Orduan, bada, ateratzen den ekimenaren barnean, bada presara doan bidea hobeto jartzea da.

Arkaitz San Jose Martinez: nik jarduteko modua jartzen dut zalantzan, hots, diru-laguntzaren lerroa atera arte zain egotea proiektuarekin hasteko.

Alkatea: gauza txikia da eta nik uste dut beharrezkoa dela. Ez du aparteko garrantzirik, baina tira, egin badezakegu, bada ongi, ezta? Gauza estrategikoak badaude eta lan bat eskatzen



duten programa estrategikoak badaude, bada, esate baterako, Foru Plana, baina tira, badira beste zenbait gauza diru gutxi emango dizutenak. Bada, orduan, hor egitea ongi datozen gauzak sar baditzakezu, bada egin egiten duzu. Asko zenbateko urrikoak dira eta egin egiten dituzu eta ondoren diru-laguntza iristen bada bikain, eta gero badira beste batzuk zenbateko handikoak, bada aurkeztu eta ebazpenaren zain geratu behar zara egin ahal izateko. Esate baterako Mugarriekin gertatu zaigun moduan, bide batez, esan, luminarien aldaketakoarekin ez ziguten diru-laguntza eman behar, Mugarrirako eskatu genuen, diru-laguntza ukatu egin ziguten, egin egingo genuela erabaki genuen, errekurtsioa ipini dugu eta aldekotzat emango digute, eta 28.000 euroko diru-laguntza emango digute. Kasu horretan, edozein modutara egitea erabaki genuen.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

14.- Udal kudeaketaren kontrola.

• Alkatea: Ekainetik Osoko Bilkurarik izan ez dugunez, udan zehar egin diren eta orain jorratuko ditugun zenbait kontu daude. Ekainaren 28an EH-Bildu taldeak egindako galdera bat dugu, Udalak Gorobel Mendilerroaren ermandadean duen presentziari buruz. Aiarako eta Gorobel Mendilerroaren komunitateko ermandadearen Batzordeko estatutuaren arabera, azkenak 1932koak direla uste dut, ermandadean parte hartzen dutenak Mendieta, Erreta Tutera, Santa Koloma eta Soxoguti herriak dira. Ordunteko Batzordeko ordezkaria auzotarren asanbladak hautatzen du, etxe irekiko familiaburuak dira. Artziniegako Udalak ez du Batzordean parte hartzen, ezta hautaketa-prozesuan ere, baldin eta Alkatea ez bada hura hautatzeko Asanbladako presidentea. Nik Idazkaritzan kontsulta egin nuen eta ez dago bilkura horien berririk, baina Aiara Etxean egin ohi ziren, goran, Maristek uzten zutenean, eta aspaldidanik ez da egin besterik. Era berean, ermandadearen aldetik ez dago horiek egiteko eskakizunik, ez dago deus.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esaten dizut Joseba, Aiarako herriak mantentzen dituen lau auzoei dagozkiola oraindik.

Joseba Vivanco Retes: nik ez dakit Udal modura ordezkariaren bat izendatu beharko litzatekeen...

Alkatea: estatutuak berrikusiz, nik uste dut Artziniegako herrietako Erakunde modura, berezko erakunde modura, mantentzeko geratzen den zirrikitu bakarra dela. Horiek baitira Gorobel Mendilerroko ermandadearen ordezkaria izendatzen dutenak, baina Udalak egiten duen bakarra auzotarren bilkura horretako presidentetza betetzea da, besterik ez.

Alkatea: hurrengo puntua Artekalako urbanizazioaren gainean ekainaren 28an egindako galdera bat da. Aldunditik esan digutena aipatuko dizuet, lanak enpresaren abalaren kargura egingo direla, obraren plangintza egiteko Ingeniari bat kontratatu dela eta berehala hona etorriko dela agerian geratu diren gabezia horiek guztiak ikusteko, kontuan hartze aldera. Halaber esan, ekainetik dagoeneko egiteko eskatuta dugun moduan, aldaparen zonaldean mutxardadura egingo dela, hori ez da horrenbeste akats bat, baizik eta azken finean bertatik igarotzen diren ibilgailuen erabileragatik eta abar, zonalde horretako lauzetako zimurtasuna higatu izana gertatuko zen. Eta ez dugu soilik erdiko kaleko zatia gainbegiratuko, baizik eta Iturrialdetik gertuko zatia ere gainbegiratuko dugu, beheko kalean, bertan ere izan baitugu irristaldiren bat.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, tira, atzo hasi ziren... Galdetu nahi nizun ea zer den zehazki hor egiteko asmoa dagoena. Kendu, leundu?

Alkatea: mutxardatu.

Unai Gotxi Kastrexana: bale, kontrakoa.

Alkatea: gehiago zimurtu.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, izan ere, otsailaren 21etik datorren kontu bat da hori, orduan ez dut gogoan nor erori zelako kexa-idatzia sartu baitzuten. Eta txosten teknikoa ekainaren 12koa da, hau da, orain irailean egiten ari garena...



Alkatea: eta aurrekontu-aldaketa eta egiteko enkargua maiatzekoa, ekainekoa, da.

Arkaitz San Jose Martinez: irtenbidea hasieran bezala uztea bada leuntzen joan delako, mutxardadura kontratatu beharko da x urte bakoitzeko. Jendearen iragaitearen ondorioz sortzen joan den leuntzea berriro ere...

Inmaculada Vivanco Retes: edo ibilgailuen zirkulazioa kendu.

Unai Gotxi Kastrexana: hori ere kontuan har daiteke, ez dakit komentatu dugun Batzorderen batean, Beraza aldapan. Artekaleko sarbidearen bazterreko zonalde horretan nahikoa arriskutsua da.

Alkatea: ez dakit aurrekontuan ere eskatu genuen. Oraintxe bertan ez dakit. Begiratu egin beharko genuke hori berrikustea ere eskatuta ote zegoen.

Joseba Elejalde Ribacoba: arazoa, mutxardadura alde batera utziz, arazoa da hor piko batzuk ditugula, inklinazio batzuk, berdin dio kranpoiekin joaten badira ere. Mutxardurak egoera arrunt batean irrist egitea ekiditen du, noski. Zu % 8ko piko batekin bazaude hor, azken batean, derrigorrez, euria denean, bada...

Unai Gotxi Kastrexana: zuk nik baino gehiago jakingo duzu harri kontuez, baina pentsatzen dut harriak egingo duela.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esaten dudana zera da, gauza bat dela harriak UNE araudia betetzea, eta esatea harri hori irristadarako duen porositate itxiarekin prestatu dagoela, eta beste gauza egiazko bat da, halako malda batean...

Unai Gotxi Kastrexana: ez da gauza bera izango, pentsatzen dut, hemen daukagun hormigoizko galtzada-harria askoz ere porotsuagoa izango da, herrigunean daukagun harriak baino askoz gutxiago irristatuko du. Nik uste dut, izan ere, ni bederen harriztatutik jaisten naiz eta halere irristatu egiten naiz.

Inmaculada Vivanco Retes: autoen jaitsierarekin ere higaturik dagoelako.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk begiratzen baduzu, Joseba, goiko plaza eta goiko kalea den guztian, galtzada-harri guztiak erabat leunduta daude, eta ibilgailuen iragaitearen edota higaduraren ondorio da hori... Zuk espaloietan erreparatzen baduzu, duten akabera, harriaren testura naturala dena, eta zuk galtzada-harriari begiratzen diozu eta ez du inolako zerikusirik

Unai Gotxi Kastrexana: baina adibidez, Goikoan ez zara irristatzen. Galtzada-harriak irtenago daudelako izango da eta, horrela, orpoa non sartu baduzulako.

Inmaculada Vivanco Retes: eta aldaparik ez dagoelako.

Alkatea: beno, goazen hurrengo galderara. Abuztuaren 7an egindako galdera bat da, pregoilariaren hautaketari buruzkoa. Inma nahi baduzu...

Inmaculada Vivanco Retes: Bilduk egindako galderetako bat da, guztietan laburpen bat egin dut, eta irakurriko dizuet: "2017ko pregoilariaren hautaketa egiteko erabakia nirea, Inma Vivancorena eta Maria Llorenterena izan zen. Erabakia hartu ostean Alkateari jakinarazi genion. Nik ere jai-batzorde askotan parte hartu dut eta, are, antolatzea ere egokitu zait, eta nik dakidala ez dago pregoilaria hautatzeko formula tradizional urratu ezinik. Urteetan zehar irizpide ez idatzizko zenbait jarraitu dira, inondik ere, guri dagokigunez, indarrean mantentzen ditugunak, eta hautaketaren oinarrian izan direnak uneoro. Prozesua hasi zenetik behin baino gehiagotan azaldu dudan moduan, arrazoa 2016ko jaietako batzordearen bilkura irekietan hautaketa hori egiteko aztertu zen ideia bati jarraipena ematea zen. Esaten dudan moduan, joan den urtean bide hori aztertu zen, baina azkenik, denbora kontua zela medio uste dut, ez zen gauzatu eta aipatu bilkuretan aurkeztu ziren proposamenen arabera hartu zen erabakia. Aurtengoan herritarren partaidetza horren demandatua abian jartzeko erabakia hartu dugu, eta badirudi ez dela mundu osoaren gustukoa izan hori, baina hortik polemika publiko bat egotera... Nik bederen ez dut horrela bizi izan. Ez dut pertzepzio hori izan une bakar batean ere. Horrenbestez, Goma Bi kuadrillak igorritako posta harridura handiz jaso nuen, hautagarri izateari muzin egiten ziotela adieraziz. Bere garaian kuadrillako bi ordezkariarekin elkartu ginen beren iritzia azaltzeko, eta guk prozesuaren arrazoiak azaldu genizkien, hemen azaltzen ari naizen berdinak. Haiei esan genien gauza bera aitortzen dugu orain, gure aldetik aitor dezakegun erru bakarra da, bakun samarrak izatearena, hots, beti balioan jarri izan diren eta jarraituko egingo zutela uste izan genuen ez idatzizko irizpide horiek mundu orok aintzat hartuko zituela pentsatzean. Botoa soilik



erroldatutako pertsonetara mugatzearena, jende asko beren iritzia eman gabe utziko genukeela iritzi genuen, izan ere, erroldatuta ez egoteagatik, ez diete uzten Artziniegako ekitaldi eta ospakizun ugariaren antolaketan eta partaidetzan zeharo inplikaturik egoteari. Uste dugu badutela iritzia emateko eskubidea. Bozketaren behin betiko emaitzaren jakinarazpena abuztuaren 1ean ezagutarazi zen, prozesua garatzeko baliatutako bitarteko berdinen bidez. Gizarte-sare bakoitzean emandako botoekin lotutako informazio guztia, kontaketa-akta, eta abar Udalean entregatuko dira 2017ko jaiei buruzko behin betiko gainerako dokumentazioarekin batera artxiba dadin. Uztailaren 21ean Tokiko Gobernu Batzordea egin zen eta gai-zerrendatik kanpo tratatutako gai modura jaien antolaketa-prozesuaren nondik norakoak aipatu nituen azaletik. Gai partikular bat zela medio berehala joan behar izan nuenez, egin nuen azalpen azkarrean, ez nintzen oroituko pregoilariaren hautaketa-prozesuari buruzko aipamenik egiteaz, egun hartan bertan proposamenak aurkezteko epea amaitzen zelarik. Are gehiago, arratsalde hartan bertan mezu bat igorri nion Iñigori ez nuela deus aipatu konturatu nintzenean, eta agian berariaz ez nuela aipatu irudi zezakeela adieraziz. Nire asmoa ez zen hori, inondik ere. Gai honekin amaitzeko, ez dugu inondik ere uste oker gaudenik hartutako erabakiarekin, eta berriro diot akats bakarra horren xalo izatearena izan da, beren iritzia eman zezaketen pertsona guztien fede ona eta prestutasunarekin pentsatzean, eta badirudi guztiek ez dutela jokaera hori izan. Guztia hobetu daiteke eta zuzenketa eta zehaztasun asko egin daitezke, prozesua gauzatzekoan, baina akatsetatik ikasten da. Oroitarazi nahi dut Artziniegako jaiak ospatzen joan diren urteetan zehar aldaketak sartu direla, Arteako zelaiko bazkaria hilaren 8tik hurbilen dagoen larunbatera aldatuta, tradizionalki irailaren 9an ospatzen zena. Zelaitik herrirako oinezko jaitsiera, autoen jaitsiera baztertuz. Aldaketa irailaren 8aren inguruko jaiak garaian, irailaren 14ko Gurutzea eta irailaren 21eko San Mateo kenduta. Su artifizialen programa kentzea. Bere garaian aldaketa horietako bakoitzak ekarri zuen nolabaiteko zalaparta, baino gero aurrera atera ziren. Egon ziren aurrera atera ez zirenak, esate baterako, Artziniegako jaiek maskota ofizial bat izatearena. Eta berriro diot, ez dugu oker jokatu, inondik ere, esperientzia berri bat gauzatu dugu eta denborak erabakiko du baliozkoa den ala ez. Eta gai hau amaitutzat emateko 2017ko jaien inguruko balioespen labur bat egitea gustatuko litzaidake. Programan beren leku irmoa duten jarduera ezberdinak burutu dira, jarduera horietan, beti bezala, Artziniegako auzotar guztien partaidetza zabala izan ohi da. Babarrun-jana, lehiaketa gastronomikoak, play back-a, txirindulari-lasterketa, bonbona-lasterketa, 25. urteurrena betetzen duena, txikiak jarduerak, gazteentzat eta adin nagusikoentzat, pilota-partidak, dantzaldiak, kontzertuak, arteko enkantea, kirol txapelketak, etab... Halaber, beste urte batzuetan bezala, JaiBus eta PrebenJaia izan ditugu, Magialdia sariak izan dugu, eta Korterrazakoa. Halaber, Aldeko Euskararen Kontseiluen kanpaina izan dugu, aurtengoan Aho Bizi eta Belarri Presteko irudiekin lan egin dutenak, eta beste zenbait berrietasun ere izan dira, esate baterako, idazketa-taldearen jarduera, lau hitzeko ipuinekin eta haurren egunean katekesiko taldeak egindako "Gure herria ezagutzuz" izeneko tailerra. Halaber, berdintasun-eremutik sexu erasoen aurkako kanpaina bat garatu da jaietan, ostalaritzaren sektorerara bideratua. Hartako ordezkariarekin bilkura bat egin zen eta establezimenduetan ipintzeko materiala eta kartelak banatu ziren. Halaber, jaietan zehar "Artziniegan ere, ez da ez" leloarekin pegatinak eta eskumuturrekoak banatu ziren. Alderdi ekonomikoari dagokionez, berriro ere soka-dantzan aritu behar izan gara aurrekontuak doitzeko, baina une honetan faktura guztiak iristen ari dira eta, momentuz, ez dugu behin betiko daturik. Oro har, eta gure herrian ohikoa izaten den moduan, gure jaietan herritarren partaidetza, guztion arteko bizikidetzaren eta handien eta arteko elkarbizitza izan dira nagusi, kalean bizitzen diren jaiak dira, nahiz eta aurtengoan eguraldia ez dugun lagun izan, edonorentzako eskaintza-sorta batekin. Aukera baliatu nahi dut elkarte, talde eta kuadrilla guztiei eskerrak emateko, urtetik urtera Artziniegako jaiak ospatzea zilegitzen dutenak. Baita udal langileei ere, egunotan ahalegin handia egiten baitute. Eta bereziki eskerrak eman nahi dizkiet pertsona jakin batzuei, beren zuzeneko lankidetzarik gabe ezinezkoa izango baitzen programazio osoa erdiestea. Eskerrik asko Xabi, Uxue, Edgar, Andoni eta Trekuri. Eskerrik asko guztioi".

Joseba Vivanco Retes: ni azken galderarekin hasiko naiz, seigarrenarekin, Gobernu taldeak uste al duen pregoilaria hautatzeko aukeratu zuen formularen erratu egin ote zen, dagoeneko erantzun duzue ezetz, eta uste dut hori ez datorrela guztiz bat errealitatearekin eta



uste dut zuok ere ez duzuela sinesten. Lehen galdera zen ea zergatik Udal Gobernu Taldeak erabaki zuen pregoilaria hautatzeko formula tradizionala aldatzea. Azaldu duzue dagoeneko, Gobernu Taldearen bidez erabaki zenuten. Nik ez dakit, nik uste dut damutu egingo zinetela hautatu zenuten formularekin, nire ustea da, iritzi pertsonala da, horrek ekarri duen guztiagatik, eta nik pertsonalki uste dudalako, Udala jaiak antolatzen zer-nolako lohietan sartzen zen ikusita batzordetik ez zegoela, lohi horietan sartzea inolako premiarik gabe, bada ez da...

Maria Lorente Burgos: "lohiarena" zuk aipatu duzu...

Joseba Vivanco Retes: ikus dezagun...

Maria Lorente Burgos: nik ez dut lohietan sartzea bezala ikusten.

Joseba Vivanco Retes: orduan atzera botatzen dut egindako oharra. Jaiak antolatzeko betebeharra ikusita, batere erraza ez dena, eta ziurrenera Udalak berak ere ez zuen aurreikusten, pentsatzen dut Gobernu taldearen aurreikuspena ez zela jaiak antolatu beharra, ulertzen dut beregain hartu eta horretan sartu izana, baina, inolako polemikarik ez dela egon uste baduzue, bada bikain, azken batean hautemate pertsonalak dira, subjektiboak, eta bakoitzak ikusten duen modukoa. Egia esan, ez dugu ulertzen aldaketa horretara sartzearen zergatia, aldaketa zergatik egin den, tradizioarekin jarraitzeko aukera zegoenean lasai asko, eta datorren urtean batzorde bat eratzen bada, edo bi, eta gauzak aldatzen eta egiten hasi nahi badu, batez ere, horren gauza bitxia...

Maria Lorente Burgos: zuretzat modu tradizionala zein den azaltzea nahi dut. Nik egia esan, Valentxu eta Aitorrekin hitz egiten aritu ginenean... Niri, agian bizitza osoan hemen ez naizelako bizi izango da, baina niri iruditzen zait erabaki hori, Valentxuk azaldu zidanaren arabera, pertsona batzuen, kolektibo batzuen, merituak kontuan hartuz... Baina eskuz egindako esleipena zen. Hori guk egin nahi ez genuen zerbait da. Eta horregatik xalo jokatzearena. Argi dago datorren urterako berraztertu egingo dela eta Valentxurekin hitz egingo dugu. Apika 100 proposamen ziren eta ondoren Gobernu Batzarrean edo Batzordean erabaki genuen...

Joseba Vivanco Retes: ez duguna ulertzen da gainera zu ari zarela hori esaten. Irizpide subjektibo batzuen arabera hautatzen zen, baina meritu batzuegatik. Hau da, deialdi bat egitea Udal Gobernuak egin zuen moduan, gertatuko zena gertatuko ez zela pentsatuta, barkatu, hori ez da errakuntza bat, hori minutu erdia ere ez eskaini izana da. Edo apika minutu asko izango ziren, baina hori gertatuko zela ez pentsatzea. Garbi zegoen eta! Garbi zegoen gertatuko zela, izan ere, Belen Esteban irten zitekeen pregoilari modura. Hori gerta zitekeen. Ez dakit zergatik ez duzuen hori aitortzen. Ez duzue aitortzen Belen Esteban irten zitekeela eta Salvame deitu beharko genukeela etor zedin?

Maria Lorente Burgos: jende bati ez zitzaizkion formak gustatu eta azkenean gaizki atera da, hori aitortu dugu dagoeneko. Baina nik, egiaz, pentsatu nuen pentsatu genuenean ez zela horren gaizki aterako, eta jendeak seriozki hartuko zuela.

Inmaculada Vivanco Retes: bestela, ez genuen egingo.

Maria Lorente Burgos: bestela, ez zatekeen egingo. Jakin izan banitu erabaki honek ekarri ahal izan dituen arazo horiek guztiak, pertsonalak nahiz publikoak, ziurta diezazuket ez zela egingo. Nik bada ulertzen ez dudan puntu bat, proposamen hau Goma Bi edo EH Bilduk egindakoa den. Galdetzen ari zaitzaizkidana. Solasaldi asko izan ditut Goma Birekin, eta zu helarazten ari zaitzaizkidana Goma Birena da.

Joseba Vivanco Retes: nahi baduzu gero Goma Bi modura azalduko dizut, baina kanpoan azalduko dizut, ni hemen EH-Bilduko zinegotzi modura nago. Izan ere, Goma Biko kide modura hemen azaltzen ari naizenarekin ezberdina den iritzi bat daukat, eta nahi baduzu gero esango dizut, amaitzen dugunean esango dizut. Puntu honetan, berriro diot, pentsatzea gertatuko zena ez zela gertatuko, barkatu baina goitik behera egin duzuen huts.

Maria Lorente Burgos: ez, ez, hori garbi dago.

Joseba Vivanco Retes: ziurra baitzen gertatuko zela.

Inmaculada Vivanco Retes: berriro diot, xalo jokatu dugu. Eta nik, irakurri dudana ez dut asmatu espediente osatzeko. Irakurri dudana hala idatzi dut horrela sentitzen dudalako, irakurri dudana moduan, eta bakoitzak duen ideia, bakoitzak bere ideia izango baitu, baina hau da nirea eta hauek dira nire arrazoiak, nik horrela egin dut eta horrela bizi izan dut eta horrela sentitu dut. Eta horrela pentsatzen jarraituko dut, orain eta hemendik irteten naizenean ere bai.



Joseba Elejalde Ribacoba: ni gai honen inguruan Joseba, egia esan harritura geratu naiz. Lehendabizi harritu egin nau horren gauza ñimiñoak halako polemika sortu izana herrian, baina noski, ikusirik herri honetan guztia handiesten dela... Bat-batean Morro Mortxi bat ateratzen duen pertsona bat dago eta jadanik bi bando aipatzen ditugu, hori baita nik jai hauetan bizi izan dudana, horrenbestez guztia handiesten da. Inolako garrantzirik ez duen panpina bat bat-batean ahoz aho dago, eta zoratu egiten gara, zorotasun mentala, iragankorra, baina zorotasuna. Baina, tira, hori alde batera utzita, Inmak esan duenaren arabera eta zuk esan duzuna kontuan izanda, egunero herritarren partaidetza aipatzen duzue hauteskondeekin lotuta, eta esan duzuen moduan gai hau eskuz egiten zen batzordearen eta Udalaren artean, hots, ez da hemen bertaratuta gaudenok herritar guztiontzat eta Artziniegan egiten diren gauza guztietarako nahi dugun herritarren partaidetza. Nik uler dezaket oker jokatu dela forman, wasap bidez forma bat ematea, gustuko dut bat, eta ez dadila kontuan har Conchinchinako edo New Yorkeko nire lagun batek botatzeko aukera duela, horretan uler dezakete hobetu egin daitekeela. Baina, jakina, nire ustez udalerrri batean meritu duten taldeen artean egin dadila hautaketa. Ez dut esaten aurkeztu direnek meritu gehiago edo gutxiago dutenik. Adostasun bat erdietsi dadila eta esan dadila hau, hau, hau eta hau, eta jendeak bozka dezala. Izan ere, irten ez ziren zumbako haurrak izan zitezkeen lasai asko. Esan nahi dizudana da niri ustez errudunak edo errudunak ez direnak bilatzea baino gehiago, edo ekaitz perfektu hau lehertuko ez zela aurreikusitako ez zela esatea, izan ere, nik zin egiten dizut, txatak irakurri ahala ezin nuen sinetsi, hiru urteko haurrak dirudigu eta, diot, jakina, Udaletik bada hautatzeko modua, ez aukeratzeko modua. Nola hautatuko dugu? Txat bidez, wasap bidez, izan ere, agian posta elektronikoko batekin edo modu zuzenarekin soilik, zure izen-abizenarekin, betiere uda udalerrri honetan igarotzen baduzu edo bertako herritar bazara, baina nire ustez herritarren partaidetzaren alde egiten badugu, hautaketa ez zait gaizki iruditzen. Beste gauza bat da testuingurutik kanpo ipini nahi izatea.

Joseba Vivanco Retes: Joseba nik esan duzun guztia errespetatzen dut baina nik hemen ez dut zuk diozun ezer esaten. Ni ez naiz ari zuk esan duzun ezer kritikatzeko.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ni nire pertzepzioa ari natzaizu esaten. Zuk pertzepzio pertsonalak aipatu dituzu, eta nik nire pertzepzio pertsonala ematen dizut.

Joseba Vivanco Retes: azalpen bat ematen ari zara eta haren inguruan nik ez dut deus esaten. Ni esaten ari naizena da prozesu hau egiteko gutxieneko irizpide zenbait finkatu behar zirela. Ni ez naiz ari kritikatzeko pregoilaria hautatzeko formula aldatu izana.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, esan duzu.

Joseba Vivanco Retes: nik esaten dizut gutxieneko irizpide zenbait egon behar direla.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan baduzu "gauza bat ez da zertan aldatu behar..." jadanik iritzi bat ematen duzu, esan egin duzu.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: gero grabaketa dago. Aldatzen baduzu bikain iruditzen zait.

Joseba Vivanco Retes: nik ez dut esaten aldatu behar ez denik. Nik esaten dudana da egiten bada logikoena gutxieneko irizpide zenbait egotea dela, gutxienekoak, ez baitzen bakar bat ere finkatu. Ez da irizpide bakar bat ere egon. Berriri diot, Belen Esteban atera zitezkeen, eta barrez lehertzekoa izango zatekeen, barkatu hala esatea. Tebistan aterako ginatete, Udal honek ez zuen inolako publizitate-kanpainarik ordainduko ezagun egingo zigunarekin. Izan ere, edozein atera zitezkeen, eta, berez, edozein atera zitezkeen...

Maria Lorente Burgos: proposamenen unera arte, bazuen nolabaiteko zentzua. Nik uste dut ikusi izan bagenu proposamen-epean, ez hautaketan, proposamenak agian joan zitezkeen... Hor ez genuen inolako zentzugabekeriarik ikusi. Jasotako proposamenek zentzua zuten. Izan ziren chori, GAP taldea, Tubacexeko batzordea, proposamen horiek izan ziren... GAPekoek asmo asko izan ditzakete, eta gluteoak, abdominalak eta hankak egiten dituen talde bat da, baina ez zitzaidan zentzugabekeria iruditu, inork ez zuen Belen Esteban proposatu.

Joseba Vivanco Retes: beno, kontuan izanda iazko urtera arte pregoia irakurtzen zuenak meritu batzuk zituela suposatzen zela... GAP taldekoek irakur zezatela, bada zuri hori normala iruditzen bazaizu...

Maria Lorente Burgos: baina merituena ez dago inon idatzita ordea eta aldatu egin daiteke, eta norbait pregoilari izateko mugitzea ez zait gaizki iruditzen. Inplikazioa izan dezatela eta apur



bat mugitu daitezela pregoilari izaten saiatzeko. Azken finean, ilusioa zuten eta pregoilari izan nahi zuten lau neskatok ziren. Horren logikarik gabekoa ere ez zait iruditzen. Jakina, proposamenetan Belen Esteban ikusi izan bagenu, bada, agian esango genuen e! Hori gaizki dagoela! Baina ez ziren logikarik gabeko proposamenak izan.

Joseba Vivanco Retes: Eta gelditu izango zenuke?

Maria Lorente Burgos: Gaizki irten izan balitz? Bada, agian bai.

Joseba Vivanco Retes: Belen Esteban aterata izan balitz?

Maria Lorente Burgos: bada, agian bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: baina nik gauza bat ez dut ulertzen, herritarrei ahotsa eta botoa ematen ari bagatzaizkie eta Belen Esteban agertzen bada, zergatik ez da Belen Esteban ekarriko? Herritarrei ahotsa eta botoa eman nahi diegu eta bat-batean Belen Esteban agertzen denez, ez, orduan adierazpen-askatasuna urratzen dugu. Ez, ematen badugu...

Joseba Vivanco Retes: Joseba, datorren urtean formula bera errepikatuko dugu eta Belen Esteban proposatuko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: tanta batekin bola bat egoten dugu.

Joseba Vivanco Retes: nire ustez ikuspegia pregoia bakoitzak hartzen duen moduari arabera da. Edozer gauza izango balitz bezala hartzen badugu, bada bikain. Apur bat seriokiago hartzen badugu, zer den kontuan izanda, bada orduan beste modu batera hartzen dugu.

Inmaculada Vivanco Retes: berriro diot, eta irakurri egin dut, aitor dezakegun erru bakarra xalo jokatzeara izan da, beti balioan jarri izan diren eta hala jarraituko zutela uste izan genuen irizpide ez idatzizko horiek mundu osoak aintzatetsiko zituela pentsatzean. Berriro diot, eta ez dut gehiago esango, uneoro pentsatu dugu ideia horiek mantendu egingo zirela, hots, norbait proposatuko bazen, norbaiti botoa emango bazitzaion, norbaitek meritu batzuk dituelako da, jardueraren barnean, herriko bizitzan, meritu batzuk egin dituelako. Amurriok herri bozketa bat ateratzen badu Amurrioko pregoilaria bozkatzeko, niri ez zait bururatzen Amurrioko pregoilaria bozkatzea, ez baitit axola. Artziniegako jendea, Artziniegarekin lotura bat duen jendea, bere iritzia emateko ari naiz eskatzen, eta koherentea izango dela eta hala egingo duela uste dut. Ez badu hala egin bada horrek erakusten dit jendea... Eta beste gauza bat ez dena, orain pentsatzen ari naiz, eta horrek adierazten didan beste gauza bat da, proposamenak egin zizkidaten fasean, niri proposamenen emaitza horrek pertsonalki ikusarazi zidana da herritarren % 99,99ri aukera bat emateak bost axola diola, bost axola diela baina hizki larritan eta azpimarratuta. Argi eta garbi, niri egiaz etsigarria iruditu zitzaidana da proposamenak aurkezterakoan horren partaidetza eskasa egotea. Arrazoiak? Ez dakit, baina hori geratu zitzaidan argi, jendea berdin zaiola arde so, gero ez da gertatuko gertatu dena?! Berdina esaten dut, nire ideia, Mariarena, proposamen hori egitean, horixe zen, mundu guztiak modu koherentean eta irizpide zenbait mantenduz pentsatuko zuela. Eta berriro esango dut, nik ez dut Bilboko jaietako pregoilaria edo kartela bozkatzen, ezta Amurrioko pregoilaria ere, ezta Laudioko pregoilaria. Ezetz uste dudalako, izan ere, nire ustez irizpide batzuk izan behar ditut halako boto bat emateko, bozkatu eta iritzia emateko.

Arkaitz San Jose Martinez: Idatzita ez dagoen oro ez da, hau da, besteek zer pentsatuko duten intuitu dezakegu, baina idatzita ez badago, ez da. Eta Josebak esaten zuenari dagokionez, eta idatzita ez badago, izan bedi dena delakoa. Horregatik, egin beharreko lehendabiziko gauza, Plan Orokorrarekin eta abar bagoaz, partaidetza-prozesu bat irekitzen denean, eta ez nago formaren edota lekuen aurka, hau da, zeri buruz, zertarako eta nork parte hartzen duen.

Joseba Elejalde Ribacoba: jarraitzeko irizpideak, argi dago ordea.

Arkaitz San Jose Martinez: hasieran ez baditugu mugak ipini, gero ezin dira ipini.

Alkatea: argi dago prozesu oro hobe daitekeela.

Arkaitz San Jose Martinez: baina esan duzue ez zaretela erratu.

Alkatea: baldin eta datorren urtean, ez ez, egiteko moduan ez garelako erratu, ez gara erratu, dagoeneko aipatu da xalo jokatu dugula pentsatuz jendeak serioki hartuko zuela eta ez zuen hala hartu, horrenbestez ikusiko dugu datorren urtean nori dagokion pregoilaria hautatzea. Jaietako batzorde bat baldin badago haiek erabakiko dute forma, eta Udalarik badagokio, ziurren hautaketa hobetu egingo da aurrean egon diren alderdi negatiboak ekiditeko.



Inmaculada Vivanco Retes: hori ere esan dut, guztia hobetu daitekeela, eta zuzenketa eta zehaztapen asko egin daitezkeela prozesua gauzatzekoan, baina akatsetatik ikasten dela.

Joseba Elejalde Ribacoba: halaber, egiazat ematen ari gara hemen, hitz egin denaren arabera, jendeak txantxa eta broma gisa hartu duela. Agian ez, agian jendearekin hitz egin behar da eta jendeak ez du txantxa gisa hartu. Beste gauza bat da, Josebak esan bezala, bakoitzak jendeak hartu duen moduari buruzko pertzepzio bat dugula. Ni bozkatzera banoa ez dut txantxa modura hartuko, pentsatzen dudana ziurtasunez bozkatzeko dut.

Alkatea: beno, besterik gabe gaia aldatuko dugu. Abuztuaren 11ko galdera bat dago, Saur-1 sektorean hoditeria aldatzeko obrari buruzkoa. Ikus dezagun, obra txiki honen helburua zen fibrozementuzko hoditeria tarte txiki bat aldatzea, modu horretan, urtebete igarota kale berria zulatu behar ez izateko hoditeria aldatzeko. Hori da helburua. Hori urbanizazioko obrako zuzendariari jakinarazi zitzaion, ahoz jakinarazi zitzaion, eta ondoren hainbat dokumentazio eskatu zitzaion. Javierrek dioenez, obrek ez dute eraginik izan aurretiaz dagoen sarean eta gauzatzeko daudenetan. Geratzen direnek ez dutela aparteko eraginik ekarriko, eta obra txiki hori dagoeneko amaituta dago. Asteartean egin zen. Helburua, berriro diot, obra txiki bat da, eta asmoa oraintxe bertan asfaltatu gabe zegoela, espaloiak egin gabe zeudela, aprobeztatzea zen, hoditeria aldatu eta urtebete barru egin behar ez izateko, berriaren gainean zulatzen ibili beharrik gabe.

Joseba Vivanco Retes: era berean, xalo jokatu duzuela suposatuta beharko dugu, kasu honetan ere. Ahoz jakinarazi al zen?

Alkatea: bai, obrako zuzendariari ahoz jakinarazi zitzaion.

Joseba Vivanco Retes: joan den uztailaren 7an, Encina promociones S.L. sozietatearen izenean, proiektuaren arkitekto idazlariak eta "Hormaza" izeneko Saur-1 sektoreko obrako segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak ohartarazi zion Udalari hoditeria aldatzeko obrari ekin zitzaiela, aurretik abisurik eman gabe eta zuzendaritza fakultatiboaren onespenez izan gabe. Azkenik, obra eten eta erregularizatzeko eskatu zen. Uztailak 7. Uztailaren 10ean proiektuaren arkitekto idazlariak eta "Hormaza" izeneko Saur-1 sektoreko obrako segurtasun eta osasun arloko koordinatzaile horrek beste idatzi bat erregistratu zuen Udalak burututako obraren edo lanen argazkiak atxikiz eta azpimarratzen du "kanpoko kontraten lanean justifikatu gabeko jarraibideak" daudela. Halaber, adierazi zuen Encina promociones sozietateak ez duela erantzukizunik hartzen beregain akaberetan gerora izan daitezkeen kalteetan eta esku-hartze horretatik eratorrita obraren azken emaitzan. Horri dagokionez, udal arkitektoak uztailaren 19an erregistratutako txosten bat egin zuen, bederatzigarren egun beranduago. Bertan adierazten denez, 2017ko uztailaren 5ean "Hormaza" izeneko Saur-1 sektoreko obrako nagusiari jakinarazi zitzaion obra berehala egingo zela. Gai horri buruz idatzizko korrespondentziarik ez dagoenez, hurrengo galderak luzatu genituen: Encina promociones S.L. sozietateko ordezkariaren arabera, hark ez zuen "Hormaza" izeneko Saur-1 sektoreko obra horien hasieraren berri, Nola da posible obra burutzeko idatzizko baimenik ez eskatu izana? are gehiago kontuan hartuz eskatzailea Udala bera dela. Ez dakit idatzizko erantzunik izan den ala ez, oraintxe ez dut gogoan, Zer-nolako erantzuna emango die Udal Gobernuak Encina Promociones sozietatearen idatziei? Zein da programatutako obraren egoera? Udalak legez kontrako jardueraren bat egin duela uste da? Obra horietan nolabaiteko erantzukizuna izango al du? Hau da, Udal modura kanpoko obra batean sartzea berezko obra bat egitera tartean paper bakarra ere ez dela, tira. Josebak lehen aipatu du, ez dakit zein puntutan, zer eskatzen zaion etxe bat egin behar duen pertsona bati, lizentzia bat eskatzen duela, ez dakit zer eta badakit zer, eta gu goaz, gure barrabilekin, eta obra batean sartzen gara tartean paperik gabe. Eta gero obrako jabea dator, obrako sustatzailea dator guri esanez "aurretiaz abisurik eman gabe eta zuzendaritza fakultatiboaren onespenez gabe", ondoren arkitektoak esateko ahoz jadanik esan zitzaiola. Hori ez da inolako burutan sartzen. Eta ez esan, arren, xalo jokatzearen kontua. Sinestezina da.

Alkatea: berriro diot, obra txiki bat da, urtebete barru urbanizazio berria zulatu behar ez izateko egin zena. Egia da obrako zuzendariak idatzi horiek sartu zituela. Javierren txostena hor dago. Irailaren 6an, era berean, obrako zuzendariak dokumentu bat aurkeztu zuen, obra



hasierako Akta eta jakinarazpen modura identifikatzen duena, eta gaur zanga gorabeherarik gabe itxi da, beraz hoditeria aldatzeko obra amaituta geratu da.

Joseba Vivanco Retes: berriro diot, bi urte legealdian Iñigo, eta badira zenbait gauza “nondik zatoz, mendira noa”. Ez dizut esaten obra hori beharrezkoa den ala ez. Kontua da Udalak aurretik eraman dituela aurretik eraman dituenak eta egitera sartu da, horrela baita, hartu eta baimenik eskatu gabe kanpoko obra batean sartzen gara obra bat egiteko.

Alkatea: Joseba nik dagoeneko erantzun dizut.

Joseba Vivanco Retes: gero zenbait gauza irregular egin dituelako prozedura batzuekin zigortzen ari garen enpresa berari, zera ... hau zirriparra da.

Alkatea: Joseba nik dagoeneko erantzun dizut. Beste gauza bat da nire erantzunarekin gustura ez geratzea.

Joseba Vivanco Retes: ez duzu erantzuten Iñigo, ez duzu erantzuten.

Alkatea: bai, erantzun dut.

Joseba Vivanco Retes: ez duzu erantzuten. Ni esaten ari natzaizu ea zergatik ez zen egin idatzi bat sustatzaile hari eskatuz obra horretarako eskaera.

Alkatea: erantzun dizut dagoeneko.

Joseba Vivanco Retes: beno, bada ezer ez.

Unai Gotxi Kastrexana: nik galderei idatziz erantzuteko eskatzen dut.

Alkatea: Nik taldeei barkatu, baina talde politikoek galderak egiten dituzte eta galdera horiek Udaltzaren erantzuten dira.

Unai Gotxi Kastrexana: nik idatzian idatziz adierazi nuen, axola ez bazaizu, idatziz helarazteko.

Alkatea: beno, bada Udaltzaren aktan erantzuna agertuko da.

Joseba Vivanco Retes: ez da zure erantzuna agertuko, ez baita erantzuna, Iñigo. Oraindik ez baituzu erantzun zer demontre ari ginen hori. Zera, herritarrei gauzak eskatzea guk guk betetzen ez ditugunean, tira, gauzak legez kanpo egiten ditugu, horrela baita, eta gero esaten didazu “arkitektoak esan dit guztia ongi dagoela eta ez dela arazorik izango”.

Alkatea: zure ustea da.

Joseba Vivanco Retes: nik ez dakit hori aipatzen duen arkitektoaren idatzirik dagoen. Ez dakit arkitektoak erregistratu ote duen txostenen bat esanez “aizu ez dela inolako arazorik egongo”. Ez dadila gerta biharko egunez Encina promociones sozietateak hemen esatea “aizu, arazotxo hau zuenaren ondorioa dela”, ez, ezetz, izan ere, sartu zineten... bada ezer ez, gauzak egiten ditugun moduan egiten ditugu, beti bezala.

Alkatea: beno, goaz hurrengo puntura, Embutidos Artziniegaren pareko edukiontzari eta eraikin atxiki horietatik hurbilen dagoen zonaldean zebra-bidea jartzeari buruzkora. Hainbat edukiontzi lekualdatu dira eraikin atxikien zonaldera, eta aipatzen den edukiontzi hori kentzeke dago oraindik Embutidos Artziniegari alternatiba bat bilatu behar zitzaiolako, izan ere, edukiontzi hori hark erabiltzekoa zen batez ere. Zebra-bideari dagokionez, 2016ko abenduaren 21ean eskatu zen, erantzun ofizialik jaso ez bada ere, estraofizialki zebra-bide hori instalatzeari ezezkoa eman diote. Hori da Foru Planari zonalde horretan espaloiak egiteko eskatzea planteatzera eraman gintuena. Horrela dago.

Alkatea: eta gero segidan ontzien edukiontzari buruzko galdera bat Berronesen, aipatu edukiontzia birjarri dela, eta guk uste genuen dagoeneko ipinita zegoela, eta besterik gabe.

Unai Gotxi Kastrexana: Ez zen adierazi erorita zegoela?

Alkatea: guk uste genuen dagoeneko ipinita egongo zela, ondo zegoela.

Unai Gotxi Kastrexana: han egon da 4-5 hilabetez, gutxienez, ez dut gogoan orain...

Alkatea: Eta zuek bazenekiten erorita zegoela duela 4 hilabetetik?

Unai Gotxi Kastrexana: gutxi gorabehera bai.

Alkatea: bada tira, agian lehenago esan zenezaketen.

Unai Gotxi Kastrexana: esan nizun.

Alkatea: baina tira pentsatzen genuen dagoeneko ipinita zegoela, baita tira, zuzenduta dago dagoeneko.



Unai Gotxi Kastrexana: Eta Koadrillak bazekin zerbait gai horri buruz? Edukiontzien arduradunak bazekin edukiontzi hori ez zegoela bertan ipinita?

Alkatea: bada bai, pentsatzen dut jakingo zuela.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta ez da jakinarazteko gai? Hau da, Koadrilla berez ez da gai erorita dagoela ikusten duen edukiontzia birjartzeko?

Alkatea: bada ez dakit, kito.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina hilabeteak igaro behar izan dira egoteko, eta gero birziklatzea nahi dugu.

Alkatea: beno, horiek ziren zeuden galdera guztiak uste dudanez.

• Arkaitz San Jose Martinez: bazen beste zerbait. Galdetu genuen era berean zera, ea bideragarria zen, Herrigunerako sarbidearen kontrolari dagokionez, bi bektoreetako interfonoak aktibatzeo aukera azter zedila, eguneko 24 orduan aktibo edo artatuta egoteko moduan.

Alkatea: balioesteke dago.

• Unai Gotxi Kastrexana: nik daukat, oker oroitzen ez badut, ekaineko azken ohiko Osoko Bilkura izan zen...

Alkatea: Otsatikoa?

Unai Gotxi Kastrexana: bai, Otsatikoa, esan nizun, esan zenidan hurrengo batzordean eta bestela ekainean bertan, lurraldekoan, arkitektoa eta aparejadorea etorriko zirela, izan ere, Batzordeako gai bat zela azpimarratu zenuen. Ez ziren etorri, Udalbatza honetarako Batzordea izan dugu, ez dira etorri, orduan hemen galdetzen dizut, zer gertatzen da?

Alkatea: egia da ez direla egon, eta puntu hau ahantzia nuen. Raulek egiteko esku-hartzeak balioesteko aurre-txostena dauka, orduan datorren Batzordean sartuko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: eta, derrigorrezko galdera, zergatik behar izan dira 5 urte txosten hori egiteko?

Alkatea: bada, ezin dizut esan zergatik behar izan diren 5 urte txoste hori egiteko.

Unai Gotxi Kastrexana: deigarria da. Oker oroitzen ez badut epaia, epaiketa 2012koa da, eta txostena orain dator.

Alkatea: ezin dizut esan zergatik behar izan duen horrenbeste denbora.

Unai Gotxi Kastrexana: espero dezagun orain eginda dagoela, beste gai batzuekin horrenbeste ez atzeratzeaz aparte, bai, ekaineko ohiko Udalbatzako aktan daude. Hori espero dezagun beste gai batzuekin izapideetan horrenbeste ez atzeratzea eta orain dagoeneko txosten hemen dagoela hori guztiori bizkortu dadila kaleko auzotarren egoera apur bat erregularizatzeko, urteak baitaramatzate beren egoera erregularizatzeko zain.

• Unai Gotxi Kastrexana: urtearen erdialdera, maiatzean, Garai sendiak Maristen eraikina eskaini zigun Arteako Santutegiaren alboan, eta Udalaren iritzia jasotzeko presa dezente zuen eskaintza bat izango zen eta lehenbailehen iritzia emateko esan zitzaigun. Horri dagokionez, EH-Bildu taldeari iritzi bat eskatu zitzaigunez, hainbat galdera erregistratu genituen, erantzun ez direnak. Orduan galdetzen dut, zein egoeratan dago Maristen eraikinen inguruko Garai anaien eskaintza?

Alkatea: nik uste dut Udalaren interesa agerikoa dela guztion aldetik, baldintzak gehiago zehazteko zain.

Unai Gotxi Kastrexana: Zein egoeratan dago Garai anaien eskaintza? Ez...

Alkatea: Garai sendiaren aldetik zehaztasun gehiago, proiektua zein den, nola geratzen den.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, proiektua nola geratzen den aparte utzita, guk txosten bat eskatu genuen, jabetza hori norena zen argitzeko. Egin al da txosten hori? Erantzungo al zaigu?

Alkatea: txosten hori egin gabe dago.

Unai Gotxi Kastrexana: Egingo da?

Alkatea: Udalaren aldetik egin gabe dago, jabetza norena den.

Unai Gotxi Kastrexana: Egingo da?

Alkatea: aztertu egin beharko da.



Unai Gotxi Kastrexana: Erantzungo al zaigu?

Alkatea: aztertu egin beharko da.

Unai Gotxi Kastrexana: esaten dut Garai sendiak presa zuelako bere eskaintza erantzun zedin, eta guk idatzi hori maiatzaren 2an erregistratu genuen, eta ikusten denez Udalak ez du halako presarik hartu. Izan ere, orain aztertu behar bada jabetza hori norena den argitzeko txostena egin behar den, Garai sendiak eserita itxaron dezake.

Alkatea: bai, zer gehiago?

• Alazne Lafragua Ureta: orain irtenguneei buruz. Hori Bizkaiko Foru Aldunditik iritsi zen dokumentuari buruzkoa da. Bertan aipatzen zenez, Udalak ez zion erantzunik eman alde zurretik egindako txosten bati. Nire galdera da Udal Gobernuak zer egingo ote duen eta ba ote dakigun Arabako Foru Aldundia zer egiten ari den Bizkaikoarekin, edo horri buruzko berriak ba ote dagoen.

Alkatea: eman behar genuen erantzuna hemen guztiok erantzun genuen mozioa da. Hori da Bizkaiko Foru Aldundiari eman genion erantzuna. Dirudenez, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat hori ez da erantzun bat. Horrelakoak dira.

Alazne Lafragua Ureta: bada, zerbait egin beharko da, esan nahi dut nahiz eta haiek esan... Haiek pentsa dezakete ez dela erantzun bat, baina zerbait egin beharko da.

Alkatea: argi dago.

Alazne Lafragua Ureta: Badakigu Arabako Foru Aldundiak zerbait egin duen Bizkaikoarekin? Elkartu egin dira, irtenbide bat bilatu dute, hitz egin dute...

Alkatea: ez, oraindik ez dira elkartu.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit Alkateak baina nik badut gai horri buruzko informazio gehiago. Dirudenez gai horri buruzko guztia niri etortzen zait. Beno, bere garaian hemen osatuta gauden taldeekin eta Josurekin azaldu nuen moduan, Aldundiko herri lanetako Diputatuak, nik esan nuen elkarrekin eskatu behar genizkiola Bizkaiko Batzar Nagusiari hainbat esku-hartze. Niri dagokidanez, Bizkaiko nire talde batzarkideak zuzenketa bat aurkeztu zuen, zuzenketa hori uztailearen 14an aurkeztu zuten. Bertan "Bizkaiko Batzar Nagusiek dei egiten die Bizkaiko Foru Aldundiari, inplikaturako instituzioekin batera, Gordexola-Artziniega errepideko sakanguneak semaforoekin ordeztuko". Jakina, hori Gordexolako Udalari da. Hori Alderdi Popularrak uztailearen 14an aurkeztutako mozio bat da. Bilduk, irailaren 7an, duela egun gutxi, aldaketa bat aurkeztu zuen, aldaketa-zuzenketa bat. Bertan esaten denez "Bizkaiko Batzar Nagusiek dei egiten die Bizkaiko Foru Aldundiari, inplikaturako instituzioekin batera, Gordexola-Artziniega errepideko sakanguneak teknikoki eta ekonomikoki egokiagoak diren abiadura murrizteko neurriekin ordeztuko". Honetan ongi egotea uler dezaket, baina oso deigarria iruditzen zait Bizkaiko Gobernuko taldeak, Rementeria jaunak eta enparauek, PSOE taldearekin, zeinak hurrengo zuzenketa aurkezten baitu, eduki honekin: "Justifikazioa: 2017ko otsailaren 14ko Batzar Nagusietan funtsatutako agerraldian jakinarazi zen moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak Gordexolan Bilbao 2604 errepidearen Bide Segurtasunaren ikerketa burutu du, gainerako instituzioei, Arabako Foru Aldundiari, Artziniegako Udalari eta Gordexolako Udalari aurkeztu zitzaientza 2017ko urtarrilaren 16an. Halaber, ikerketaren kopia helarazi zaie ofizialki azter dezaten eta, hala badagokio, beren desadostasuna ager dezaten. Baldin eta lau instituzioak ados badaude egiteko esku-hartzeekin haiek gauzatzeko modua jorratu eta adostu beharko litzateke instituzioen arteko lankidetzaren esparruan, izan ere, ezinbestekoa da inplikaturako instituzio guztien iritzia burutzeko esku-hartzeak eta gauzatzeko lankidetzaren modua adosteko. Hau eskatzea egokiagoa dela dirudi eta ez ikerketa teknikoan barneratzen ez diren esku-hartze berriak planteatzea". Egia esatera niri, Bizkaiko Foru Aldunditik Artziniegako Udalari dei egiten zaionean aintzat hartzeko eta iritzi bat emateko, esaten dut, Bizkaiarekin inplakazioren bat izango dut, hau da, nire iritzia eman dezaket eta kontuan har dadila. Hau adarra jotzea da. Nik idatzi bat sartu dut Udalean argi eta garbi adieraziz Artziniegako Udalaren aldetik oso argi dagoela zein izango diren Gordexolako Udalaren aldetik hartzeko neurriak, hura baita orain bide hartako titulartasuna duena. Eta errepidearen araudia betetzen ez duten sakanguneak aldatzea eta Arabako Foru Aldundiak berak bide segurtasunari buruz egindako ikerketa aplikatzea da. Nik uste dut, azken batean, aurrera pausoak eman beharrean, EAJ taldearen aldetik Bizkaiarekin dagokionez, Artziniegako Udalari eta



Arabako Foru Aldundiari berari eskatzen ari zaizkigula gure eskumenekoak ez diren ekimenak har ditzagula. Ni herenegun egon nintzen Josurekin Laudion eta esan zidan ez zuela horren berririk, Artziniegako Udaleko zinegotzi batek uztailetik irailera segidan sartzen joan diren idatzi horien berri izatea, eta aitzitik, Arabako Diputatu batek ez izatea. Edo Artziniegako Udalak ere ez. Hemen elkartu ginenean eta guztiok orpoz orpo lan egiteko esan genuenean, ni hona nator, eta zerbait egiten dudan bakoitzean Udalbatzara ekartzen dut eta jakinarazi egiten dizuet. Baina itxura batean zuren talde ezberdinek Bizkaian ez dute modura berean jokatzeko.

Alkatea: guk ez genuen prozedura horren berri.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo, nik hemen esan nizuen, eta errepikatu egingo dut behar bada, hiru taldeak eskutik hartuta joateko premia. Nik esan nizuen hau sartzeko, bere garaian, egin genezala, gure taldeari Bizkaiko batzarkideetan, hiruei, guk haiei hainbat paper-izapide eskatzeko, errepidea nola laga zen, zein baldintzatan, etab. Dirudenez, Alderdi Popularrak Bizkaiko Batzar Nagusietan nolabaiteko moduan, nik ez nuke aplikatuko haiek hemen eskatzen dutena, nik Bizkaiko Foru Aldundiak berak sakangune horiek kentzeko eraturako txosten tekniko nabarmenduko nuke. Haien ustez irtenbide egokiena semaforoena da, beno, justifikazioa Alderdi Popularraren aldetik zuzenketa egin duen pertsonak eman beharko du. Baina egia da hemen bakoitza bere bidetik joaten bada, ez dagoela batasunik, Bizkaiko zuen taldeen aldetik ere ez dago batasunik nahas-mahas hau konpontzerako orduan, 2050. urtea iritsiko da eta sakanguneak hor egongo dira oraindik. Nik aurkeztutako zuzenketa hauekin, batez ere deigarria egin zitzaidana eta PSOE eta EAJ taldeena da, Artziniegako Udala eta Arabako Foru Aldundia iritzia ematera deituz. Hamabi urte daramatzagu gutxienez Artziniegako Udalean iritzia ematen. Aldundia zertxobait gutxiago, baina Artziniegako Udalak argi dago zein iritzi dugun, eta hastapenetik geratu da oso argi, eta ez dakit zuk bilkuraren bat izan ote duzun Gordexolako Alkatearekin edo Bizkaiko Diputatuarekin eta ulertzen ez duten gauzaren bat jakinarazi diezun. Baina ongi esan duzu lehen hemen gauza bat adostu zela, nik hemen planteatzen dudana hain justu, Bizkaiko Foru Aldundiak berak bide segurtasunaren gainean egindako ikerketaren arabera irregularrak diren 13 sakanguneak edo ordeka ditzatela, edo araudiaren arabera ipin ditzatela, baina hori da eskatzen dugun bakarra, hori egin dezatela. Eta gaur egun arazo bera dugu aurrez aurre. Hona nator, Bildu taldeak galdera bat egiten du, eta horren berri duen bakarra ni naiz. Bada, ez dut ulertzen, egia esan, eta Josuri herenegun esan nion Laudion, eta Josuri posta elektronikoz ere pasa nion, izan zezan, izan ere, badakit Batzar Nagusietan hiru galdera egingo dizkietela gaiaren inguruan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin bilkurarik egin ote duen, prozesua zein egoeran ote dagoen, egon behar ote den... Badirudi hau irakurtzen baduzue, herenegun eman niola sarrera, izan ere, lerro artean eskatzen ari zaizkiguna da Arabako Foru Aldundiak eta Artziniegako Udalak % 25 ordain dezatela Gordexolako Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera. Nik ez dut maltzurra izan nahi, baina hori da nik itzultzen dudana. Eta une batera iritsita zirriparra dela deritzozu.

Alkatea: nik Bizkaiko Foru Aldundiarekin azken harremana Josebarekin Bizkaiko Batzar Nagusietan Mateoren agerraldian izan nintzenean eduki nuen. Ez dut besterik izan.

Joseba Elejalde Ribacoba: horretara noa. Bizkaiko zuen talde batzarkideen aldetik ez dudana ulertzen da nola ez diguten hau jakinarazten. Izan ere, nik Bizkaiko batzarkideekin, ni haiekin eseri naiz, paperak mahai gainean ipini ditut, txosten tekniko aztertzen aritu gara, eta hainbat galdera aurkeztu ditugu. Bizkaiko Batzarretan, Alderdi Popularrak egiten duen galderaren arabera, automatikoki gainerako taldeek segi eta esan, ea nork aurkezten duen lehenago. Ez, lehen esan dudana da, ASASAM elkarteak ez balitz hona etorri oraindik eztabaidatzen arituko ginatke, ea bai, ea ez, gaixotasun mentalei estaldura emateko eraikin bat egitea beharrezkoa den ala ez. Bada, errepidearen gaiekin gauza bera. Bada talde bat, eta berriro diot, hiruk joan izan bagina askoz ere hobeto, Bizkaiko Batzar Nagusietara eskutik hartuta joan izan bagina, gure taldeak presionatuz errepidearen gaia heldu dezaten, bada agian une hauetan guztiok izango genuen honen berri. Baina badirudi batek sartu eta gainerakoek automatikoki, hark sartu duenez, orain goaz... Ongi geratzeko. Eta atsekabetu egiten zara gauzak irakurtzen dituzunean, esaten duzu, ene! Pilota Artziniegako Udalarari pasatzen diogu, inolako eskumenik ez duena, ez Gordexolako Udalarekin, ez Bizkaiko Foru Aldundiarekin ez Bizkaiarekin, begira nik zein



eskumen izan dezakedan. Edo Arabako Foru Aldundiari. Eta lerro artean irakurtzen duzu eta iruditzen zaizu esaten ari zaizula “begira, 600.000 eurotatik, eskotean”.

Alkatea: edozein modutan batera lan egiteari buruz esaten duzuna, Diputatuarekin egotearena, idatzi honen ondorioz aurkeztea bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: Saratxoren gaiarekin trukatzeko moneta da. Nik hau egiten dizut eta zuk Saratxoko errepidea egiten didazu Urduñako herrirako zerbitzua emango didana. Horrela baita.

Alkatea: ez baina hor esaten duzuna niri ongi iruditzen zait. Proposatzea, idatzi honen eta proposamen hauen arabera, aztertu, Arabako Diputatuarekin egon...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik horregatik sartu nizun joan den egunean, hemen sartu nuen eta automatikoki eta horren berri izan bezain pronto Josurekin hitz egin nuen, eta Josuk ere ez zuen horren berri. Bada ongi goaz! Inplikaturako lau administrazioetan txikiena den udalerriko zinegotzi bat izan behar bada Diputatuari jakinarazi behar diona Bizkaian egiten ari direna, marka da. Argi gera dadin gai honetan lanean jarraituko dudala, izan ere, nik uste dut udalerrri honetako auzotar guztiak eta errepide edo bide hori erabiltzen duten guztiak merezi dutela.

Joseba Vivanco Retes: guk esan nahi dugu Arabako Foru Aldunditik presa sartu zitzaigula mozioa onartzeko eta planteatzen ziren gaien erantzunak igortzeko eta hori guztiori, oker oroitzen ez badut maiatzean izan zen, izan ere, ekainaren hasierarako behar zuten...

Alkatea: bai ekainean onartu genuen, ezta?

Joseba Vivanco Retes: premia eskatu ziguten behar zutelako, eta horregatik galdetu genuen ba ote genekien Arabako Foru Aldundiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanen bat izan ote zuen.

Alkatea: nik ez dut horren berri.

Joseba Vivanco Retes: horrenbesteko presa baldin bazuten. Orain arte harremanik izan ez badute, galdetu egin beharko da...

Joseba Elejalde Ribacoba: harremana ziurrenera izango zuten, eta Saratxori buruz esaten ari naizena mahaiaren gainean ipini da, ziur.

Joseba Vivanco Retes: Joseba Vivanco Retes: hori da nik Josuri ere esaten niona, hau kromo-jokoa izango da. Administrazioak dira, eta azken finean jokatuko duten horretara jokatuko dute.

Alkatea: begira Joseba, Josurekin elkartuko gara eta kito. Eta hau ikusita baterako estrategia bat abiatuko dugu.

Joseba Vivanco Retes: Bizkaiko Foru Aldundia beste lurralde bat da, beste Administrazio bat da, eta esango digute baietz oso ongi, ziurrenera. Izan ere, guk Udal modura Arabako Foru Aldundiari heldu behar diogu eta gure alde egin dezala.

Joseba Elejalde Ribacoba: izan ere, esaten dizut EAJ alderdiak hitzez hitz zera esaten duela “burutzeko esku-hartzei buruzko lau instituzioen arteko adostasun kasuan”. Guk dagoeneko esan diegu zer egitea nahi dugun. Zein behar dugu berriro errepikatzen? Errepikatu egin behar dela, bada beste behin errepikatu beharko zaie. Zera ematen du honek, lehen gupil zoroaren kontu horretaz aipatu duzuna. Aurrera egin ez dugu egingo, baina itzulginguruka ibili...

Joseba Vivanco Retes: nik ulertzen dut Bizkaiko Foru Aldundiak idatzi bat igortzea Artziniegako Udalari esanez Artziniegaren iritzirik ez duela jaso bere txostenarekin, nik pentsatu nahi dut Artziniegaren iritzia mozioa baino xehetasun gehiagokoa, Arabako Foru Aldundiari eta Bizkaiko Foru Aldundiari helarazi zaiela. Izan ere, azken batean, guk nolabait Arabako Foru Aldundiaren eskuetan utzi ditugu Bizkaiarekin egiteko negoziazio horiek, horretarako eskatu baitzigen espresuki mozio bat onartzeko, zeri heldu izateko, Arabak. Nahi badute guk azaltzea xehetasunezko txosten horri buruz irizten duguna, azaldu ahal diegu, baina uste dut hori dela Arabako Foru Aldundiaren eskuetan utzi duguna. Kontua da Arabak planteatu ote dion Bizkaiari “horrela daude gauzak”.

Joseba Elejalde Ribacoba: aurkeztu dudana idatzian hiru gauzak ipintzen ditut dagoeneko, Batzordea eskatzen dut, proposamen hori Arabako Foru Aldundiari helarazteko eta Diputatua taldeen artean izango dugun batzorde horretara deitzeko. Lehenbailehen lan egiteko, izan ere, azken batean hau atzeratu egingo da norbaitek erabaki larriren bat hartu arte. Nik ez dakit berriro



auzi batera joan beharko dugun, baina azken batean inork joan nahi ez duen bide bat hartzera behartzen ari zaizkizu.

• Arkaitz San Jose Martinez: nik bi eskakizun bizkor eta galdera bat. Kontu bat herriko jaietan zehar mugitu zituzten edukiontzien inguruan, Aintzanerekin hitz egin nuen horretaz dagoeneko, berez Koadrillan nagoela baliatuz txosnarako edukiontzi berezi bat eskatu genion, Otsatitik helarazi genuen, gertatzen dena da hemendik hurbil organikoa sortzen den unetik, pentsatzen dut tabernek ere sortuko dutela bokatekin eta abar, eta organikoaren edukiontzi zenbat eta urrunago egon, gainera kopuru handiak botatzeko konplikatu samarra den edukiontzi bat izanik, beno, bada, ez duela birziklapena inolaz ere errazten jaietan, plastikozko edalontzi asko sortzen den momentu batean. Halaber, ontzien gaiari dagokionez gauza bera, izan ere, ontzietarako edukiontziak ez du iraultzeko... Aztertu egin beharko da kontu hori baina daukagun udalerrria daukagu eta ahal dena egiten da.

Joseba Elejalde Ribacoba: marmitakoaren eta tortilla-lehiaketaren egunean egia da zeuden eskuzko hiruzpalau edukiontzien gainezka egin zutela. Kontuan hartu behar da dimentsioa dela eta zera... Izan ere, azken batean, jendeak birziklatzearena pattal samar eramateaz gain, nahiz eta begira ipintzen zuela "plastikozko ontzia, organikoa".

Alkatea: bai, egia da. Babarrunen egunean ere hainbat bidaia egin behar izan ziren eta edukiontziak han zeuden errepidean.

Arkaitz San Jose Martinez: gero beste kontu bat, Udaletik alegatu egin duzue Aldundiak Artziniegako hondakin-urak jasotzeko modu gisa proposatzen duen hondakin-urak arazteko geltokiaren kontua, Udaletik alegatu egin da berriro kalkula dadin ekonomikoki egiten diren estimazioak, izan ere, Aldundiak egiten duen estimazioak adierazten duenaren arabera ekonomikoki onuragarriagoa da Hondakin Uren Araztegi bat egitea, kolektore bat egitea baino. Besterik gabe, guk ez dugu inolako eragozpenik beharrezkoak diren informazio guztiak eskatzeari dagokionez, baina hori eskuan dagoen unean, eta hau Wasap bidez mundu osoari ere bidali zaionez, informazio hori guztiori eskuragarri dagoenez, bilkuraren bat ere egin beharko da azaltzeko zein alternatiba ezberdin dauden, bakoitzak zer suposatzen duen, ekonomikoki, baina ez soilik ekonomikoki, baita ingurugiroari dagokionez ere, bestea baino askoz ere hobea den bat dagoen, baina kontuan har dadila denborari dagokionez zein aukera dauden bata beste baino lehenago egiteko, eta, zilegi bada, herritarren babes handiena duen aukera har dadila, kontu ekonomiko batetik haragoko kontu bat da eta. Eta ondoren galdera bat nuen diru-laguntzen araudiarekin lotuta. Oso aspaldidanik planteatzen ari garen kontu bat da, berez hori izan zen arrazoietakoa bat, bakarra ez izan arren, indarreko Aurrekontuetan, eztabaida eta bozketa egin zenean, aurrekontuen proiektuari guk kontrako botoa emateko, gai horretan lanean aritu gara, berez, ez dakit maiatzaren 30 inguruan elkartu ginen hainbat ekarpenekin, ulertzen dugu ez dela dokumentu erraza, baina zein prozedura jarraituko den jakin nahi genuen eta dokumentua noizko eratuta egotea aurreikusten den. Izan ere, 2018ko aurrekontuen proiektua etorriko bada berriro, ikusiko dugu nola dauden hor kapituluak banatuta, baina antzeko egoera bat eman daiteke, gainera diru-laguntzak nola geratzen diren ere lehenbailehen ebatzi behar da, hitzarmena egin behar ote den ala ez, guk baietz uste dugu, hala Artea Elkarte Etnografikoarekin, nola Barratxi Gurasoen Elkartearekin. Hor zintziilik dagoen gai bat denez... Bada ea nola...

Alkatea: bai, udan egiteke geratu den kontu bat da. Badaukagu dagoeneko, bagenuen testu bat, plan estrategikoari dagokionez eta ordenantza bat. Nik uste dut legez ez duela inolako oztoporik, eginda dagoen moduan.

Ascension Hormazabal Meabe: nik nirea daukat. Zuek egindakoa ez dut begiratu. Zuk bidali zenidan...

Alkatea: orduan hori aurkeztu eta onartzea izango da, eta ondoren gauzatzea.

• Unai Gotxi Kastrexana: ni gai klasiko batekin nator bueltan, kontua da urtearen hasieran igerilekuak esleitzeko pleguak atera genituela, esleitu egin zirenak, baina Dorrekoak ere atera genituen, eta morturik geratu ziren. Eta hortik egingo dugunari buruzko ideien jasa etorri zen, zer egingo dugun, baina uda igaro da eta ez dugu batere argi zer egingo den hotelarekin. Eta soilik



espero dut datorren udari begira bederen, ez bada lehenago, Artziniegan legezko alojamendu bat izan dezagula.

Alkatea: guk uda honetan egin duguna da ostalaritzako jendearekin harremanak mantendu harekin interesik izan dezaketean ikusteko.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina negoziatu batez hitz egin zen, behin Pleguak mortu geratu ostean ostalariren batekin negoziatia zitekeen baina hor geratu da kontua, airean.

Alkatea: bai, baina ez dago interesik. Ikusten aritu den jendeari ere ez zaio interesatzen.

Joseba Vivanco Retes: lehenengo erabaki beharko dugu gure obraren zatia burutzen badugu, obrak gauzatzen baditugu, zein interes izan dezakegun.

Alkatea: ikusten ari den jendeari ere ez zaio interesatu Pleguan agertzen diren zenbakiak.

Unai Gotxi Kastrexana: baina, zer egiteko asmoa du Gobernu taldeak? Zer proposatzeko. Udalak beregain hartuko ditu hotela irekitzeko beharrezkoak diren erreformak?

Alkatea: Plegua berrikusi behar dugu. Sartu diren inbertsioak berrikusi behar ditugu, agian ez dira derrigorrez eskagarriak, esate baterako, gas-instalazioarena. Gerora ikustera etorri den ostalaritzako jendeak esan digunaren arabera, baina era berean esaten digute jatetxea ez dela bideragarria inondik inora, eta eraikin hori soilik bideragarria dela eksklusiboki hotel bilakatzen bada.

Unai Gotxi Kastrexana: guztia gero iristen zaigu, zorte txarra dugu gero. Baina tira nik dei egiten dut soilik, eta deit egiten dut...

Alkatea: ondoren, eta aurretiaz beste ostalari batzuek esaten zuten Plegu hori baitaratzeko modukoa izan zitekeela. Baina ondoren ez da horrela izan. Aro horretan gu ez gara adituak.

Unai Gotxi Kastrexana: nik galdetu dudana da ea zer egingo den. Niri eginda dagoena... eginda dago, ongi ala gaizki, eginda dago. Kontua da zer egingo den aurrerantzean Artziniegan zerbitzu hori eman ahal izateko.

Alkatea: behin betiko erabilera erabaki beharko dugu. Hotel modura egin nahi dugun soilik, ateratzen dugun.

Arkaitz San Jose Martinez: Ez dago publiko egiteko inolako aukerarik? Udala izan dadila kudeatzen duena.

Alkatea: ez, ez da hori aurreikusitua.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, noizko pentsatzen dut Gobernu taldeak gai hori jorratu eta berriro ateratzea?

Alkatea: bada, lehenbailehen jorratzea gustatuko litzaidaken gai bat da.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta noiz da lehenbailehen?

Alkatea: lehenbailehen.

Unai Gotxi Kastrexana: Hilabetetan, astetan, egunetan?

Alkatea: lehenbailehen da lehenbailehen.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, zehazteke.

• Joseba Vivanco Retes: nik beste pare bat nituen. Batek zerarekin du zerikusia, ez da galdera, hein batean bai, egin berri dugun Antzinako Azokarekin du zerikusia eta, besterik gabe, gure udal taldetik Gobernu taldeari eskaera bat luzatu nahi diogu, aurreko urteetan ere egin duguna, halaber, guk planteatu dugunari orokorrean jaramon handirik egin ez zaigunez, beste ahots bati jaramon egiteko gonbitea luzatuko genieke, esate baterako, Artea elkarteari, Antzinako Azokari buruzko bere iritzia adierazi baitu hark ere, eta Gobernu taldea gonbidatuko genuke ez dezala beste urtebete igarotzen utzi, bihar bertan eser gaitezen, eta guztion artean gogoeta egitera, ez soilik Udalak, baizik eta guztion artean, Antzinako zein Azoka nahi dugun, norantz doan eta nola antolatu behar den. Gu jadanik duela bi urtetik hona ari gara eskatzen, ez dirudi Gobernu taldea gehiegi kezkatzen duenik, berriro diogu, berriki egin dugu eta beste zenbaitetan ere egin dugun eskaera luzatzen dugu berriro eta behin betikoz hau behin betikoa izatea espero dugu, azoka honen etorkizunari buruz gogoeta egiteko interesik badago bederen. Gizarte Zerbitzuek udaletxean ematen duten arreta berriro banatu eta modu zuzenean, gaur bihar baino hobeto, egiteari buruz egindako eskaerarekin zerikusia duen beste kontu bat. Ez da onargarria Gizarte Ongizateko langile laguntzaileari bere bizitza kontatzen ari zaion pertsona bere bizitza kontatzen



aritzea inguruan jende andana duen bitartean bere arazoak entzuten, edo bere arazo ez direnak. Oraintxe bertan eskua sutan jarriko nuke zera, datuen babesetik etorriko balira, kaleratu egingo gintuzten. Hori da gertatzen ari dena, ez da onargarria administrazio-laguntzailea artxibozainaren aldamenean egotea lanean, parean Udaleko langileak dituela, eta handik metro gutxira eserita artatzeko zain dauden pertsonak egotea. Guztiak espazio berean, pertsona hori laguntzaileari kontatzen ari zaiona gainerakoek entzuten dutela. Horregatik diogu gaur bihar baino hobeto, nik ez dakit nork egin duen birbanaketa hau, ziurrenera, erabat legez kanpoko ari garelarik. Horrenbestez, berriro birbana dadila eskatzen dugu. Ez dakit irtenbidea Administrazio-laguntzaileak arreata lehen bezala ematea den, Gizarte Laguntzailearen gela berean, elkarriketa edo bilkura horiek zinegotzien aretoan egin behar ote dituen, aparteago baitago... Irtenbideak begiratu behar dira, oraintxe bertan hau jasanezina baita. Lehengo egunean pertsona bat zegoen, ni udaletxetik irteten ari nintzen eta bera goitik jaisten ari zen eta oso haserre ari zen sartzen, gai horrekin ari zela entzun nion, deitu egin nuen eta zer gertatu ote zen galdetu nion, esan zidan Eusko Jaurlaritzan bertan salaketa ipintzeko asmoa zuela, datuen babesean, oso umiliatuta sentitu zelako, hau da, bera konturatu zen entzuten ari zitzaizkiola, eta ondoren esan zidan "paper baten bila joan behar izan nuen, itzuli nintzen, eta beste pertsona baten zain geratu behar izan nintzen eta beste pertsona entzuten ari zena entzuten ari nintzen". Hori ezin da jasan ez bihar, ez etzi, ez deus. Aldatu egin behar da lehenbailehen.

Alkatea: haiekin hitz egingo dugu, Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin.

Joseba Vivanco Retes: egun bakarra ere ezin da atzeratu kontu hori. Gertatzen ari bada, ez dakit zergatik egin zen aldaketa hori ere, Laguntzailea kanpora atera eta gainerako jendea eserita zain, esaten duena entzuten. Medikua bat jarri eta gainerako pazienteak zain jartzea bezala da, eta pazienteak han medikuari bere minen berri ematen. Eta hori da gertatzen ari dena, egin dadila aldaketa berehala, lotsagarri utziko gaituen edozein salaketa iritsi baino lehen.

Alkatea: haiekin hitz egingo dugu. Oker ez banago, haiek egindako proposamena izan zen, horrela egitearena, baina bestela tradizionalera itzuli eta biak barruan egon daitezela.

Joseba Vivanco Retes: bada, ez dakit norena izango zen proposamena, baina tira...

Maria Lorente Burgos: Gizarte Langilearena izan zen eta Laguntzailearena. Ezin zuten elkarrekin lan egin.

Joseba Vivanco Retes: gauza bat da ezin izatea elkarrekin lan egin eta beste gauza bat da Laguntzailea ateratzea eta gainerako langileekin eta zain dauden pertsonekin batera ipintzea.

Alazne Lafragua Ureta: hau ezin da onartu ordea, hau da, nahikoa sentiberak diren datu batzuekin ari dira lanean, eta ezin da inor egon txintik ere entzuten. Nahikoa da Laguntzaileak eta Langileak jakitearekin, gainera inguruan zain dagoen jendeak pena guztiak entzun ditzan. Hara doazen pertsonak hara doaz une horretan gaizki sentitzen direlako. Eta gainera hara iritsi eta agerian zaudela sentitzen duzu zure min guztiak eta zure oker guztiak lau pertsonen aurrean azaltzen ari zarelako, edo esan nahi duzun hori esatea ekiditen duzu edo esaten ari zarena kontu handiz esaten duzu.

Maria Lorente Burgos: Gizarte Langilearen kudeaketak bulegoaren barnean egiten ditu, eta Mari Joseren kudeaketak paper kontuak dira gehiago...

Alazne Lafragua Ureta: paper kontuak izan zein ez, zuk paper bat bete behar duzunean hainbat gauza adierazi behar dituzu eta azalpen bat eman behar duzu.

Alkatea: edozein modutara, haiekin hitz egingo dugu.

Joseba Vivanco Retes: baina lehenbailehen. Ez dakit irtenbidea Laguntzailea ia erabiltzen ez den zinegotzien areto horretan kokatzea ote den...

Alkatea: uste dut onena haiekin hitz egin eta irtenbide bat bilatzea dela, haiek egiaz arazo bat dagoela ikusten badute.

Joseba Vivanco Retes: bere garaian udaletxe honetan, ez dakit medikuren kontsulta erreformatu ondoren edo une hartan izan zen, Udal Gobernutik oroitzen dudanez noizbait esan zen Gizarte Laguntza Zerbitzua medikuaren kontsultara eramango zela. Oker ez banago hainbat espazio hutsik baititu, izan ere, goiko zatian medikua dago eta uste dut ez dela beste ezer erabiltzen. Ez zen hartaz gehiago deus jakin. Nik ez dakit aukera ona ote den, Osakidetzari adieraztea ea erabil daitekeen, bestela, ez dakit, baina baldintza onetan jarri behar da nolabait, tira hori argi dago. Nolabait antolatuta behar da, ez dakit goran edo non, baina errespetatzen dadila...



• Joseba Vivanco Retes: eta kontu bat, bada joan den egunean auzotar batek erregistratu zuen galdera bat. Uste dut ez zaiola erantzun, eta uste dut dagoeneko erantzuna emanda behar zuela, udal errotuluen zainketaren gai bati eta balizko ez-betetzei buruz galdetzen zuen. Galdetzen zuena zen ea ez-betetze horiek Foru Aldundiko basozainak begiratu behar dituen bertatik bertara edo Udalaren beraren zeregina ote den. Galdera luzatuta, ez dakit idatziz erantzun zaion, uste dut ezetz, baina nik uste dut... Ez dakit Alkatetzak edo Udal Gobernuak argi ote duen nork joan behar duen bertatik bertara ikustera legez kontrako zerbait egin ote den errotulu horietan egin dadin. Ez dakit basozaina joan behar den, Udaleko langileak jaitsi behar ote duten ikustera, edo beste inor. Baina inork galdetzen badu ea nork joan behar duen zerbait betetzen ez dela ari uste duelako, kontua ez da bi hilabete beranduago erantzutea. Kontuan har dadila, argitu dadila, eta pertsona hori erantzuna eman diezaiola.

• Joseba Vivanco Retes: eta ondoren azken kontu bat eta honekin amaitzen dut, galdera bat luzatzea, izan ere, aurrekoan zalantza sortu zitzaigun eta ez dakigu nola dagoen. Gaztelekuko zerbitzuen esleipenaren kontua, enpresaren bat dago esleituta? Izan ere, joan den egunean pertsona batekin hitz egiten zera esaten zidan "Amurriko mutiko batek Artziniegako Udalarentzat egingo du lan, kirol arloko zerbaitetan". Ez genuen ideiarik ere, agian Gaztelekuan lan egingo duen enpresa izango da. Bana gero gure buruari galdetu genion, esleituta al dago Gaztelekua kudeatuko duen enpresa? Izan ere, berehala ireki behar bada, dagoeneko jakinarazi zitzaigun joan den egunean monitorea hautatuta zegoela, era berean izan ditugun azken Osoko Bilkuretako Alkatetzako Dekretuetan begiratu dugu eta ez dugu ikusi egiazko esleipenik dagoenik. Planak ere baditugu, izan ere, haurrek asteburu bakoitzean zer egingo duten helarazi zaigu.

Alkatea: kontratu txiki bat da, bere garaian eskaintzak eskatu genituen, eta joan den egunean Asceni esan nion esleipenaren Dekretua egiteko. Urrian hasten dira.

Joseba Vivanco Retes: baina esleitu dugu zera eta gero... Hau da, dagoeneko pertsona bat kontratatu dute monitore gisa eta oraindik ez diegu esleitu ere egin.

Alkatea: ez dute kontratatu. Urrian hasten dira.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina hautatu dute. Badakigu zein enpresa den baina ez dago esleituta.

Alkatea: eta guk kontratua urritik hasiko dugu.

Joseba Vivanco Retes: baina esleitu egin behar da.

Alkatea: bai, Alkatetzako Dekretu batekin.

Joseba Vivanco Retes: baina berez dagoeneko...

Alkatea: gertakariei aurrea hartzen ari dira.

• Joseba Elejalde Ribacoba: zenbait gauza dagoeneko jorratu dira, baina batez ere herriko jaien kontuarekin eta batez ere Erdi Aroko egunez, faltan bota da batez ere Erdiko kalean Ginesek muntatzen zuen guztirako jartzen zen iturria. Iturri hori martxan egon da eltzekarien egunerako, paellen egunerako ere bai, eta harritu egin ninduen joan den egunean itxita zegoela ikusteak. Giltza kendu eta tapoi bat ipini zuten. Hurrengo urterako har dadila kontuan, izan ere, postu ezberdinek ura biltzeko modu bat da, hala goiko kalean nola Erdiko kalean baikaude lekututa.

• Joseba Elejalde Ribacoba: Artziniegako Hondakin Uren Araztegiaren gaiari dagokionez, bada organismo bat eta 2020-2021 bitartean hastea aurreikusten da, baina tira. Nik atzo organigrama ikusteko zoria izan nuen eta agertzen gara. Egia esatera Artziniegako Hondakin Uren Araztegia agertu egiten da, baina 20-21 bitartean hastea aurreikusten da, hau da, oraindik hiru urte eta erdira gaude.

Joseba Vivanco Retes: bota urtebeteko atzerapena gutxienez.

Joseba Elejalde Ribacoba: badira Arabako Lurralde Historikoko uraren Plan Gidariari egindako zenbait arrazoibide, batzordean balioesten aritu ginenak joan den egunean, eta jakina Gasteiz ez da sartzen. Amvisa, Gasteizko ura kudeatzen duen enpresa, ez da Plan Gidari horren barnean sartuko, horrek dakarrenarekin. Probintzia mailan ura kudeatzeko beste erakunde bat



edo beste zenbait erakunde sortzea da asmoa. Nork kudeatuko du, nola eta noiz? Agian, azkenean, hemen lauzpabost erakunde elkartuko gara, bakoitza bere ugazabarekin, eta Arabako eskualde ezberdinetan ura kudeatzeaz arduratuko direnak. Hemen hitz egin zenaren arabera, gure arroa Cadaguakoa da, eta Bilbo Handira joateko aukera aipatu zen, bada agian Arabako Foru Aldunditik ezetz esaten dizute, eta erakunde horren sorrerara atxiki behar zarela, eta bestela, ez duzula sosik ikusiko Tokiko Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsetik edo dena delakotik. Hau da, nire ustez, Arabako Lurralde Historikoko uraren Plan Gidaria hatz puntun puntekin hartuta dago, Aldundian oraindik aztertu egin behar dutela, eztabaidatu egin behar dutela eta egiazko proposamenekin etorri, izan ere, nik atzo Batzarreko Alderdi Popularreko taldearekin hitz egin nuen, eta hau oso berde dago oraindik. Eta ez dut errepikatu nahi, baina sarritan esan dudan moduan, Artziniega 2004. urtetik dago zain Hondakin Uren Araztegia egitea aurreikusten zela, eta 2017an gaude. 13 urteko atzerapena dugu. 2020. Urtean gauzatzen badute 16 urteko atzerapena izango dugu eta horrela Arabak erabakitzen duen arte Amvisa enpresak ez ezik, ura kudeatzen duen erakunde bat sortu behar ote den, edo Artziniegak, duen arroa kontuan hartuta, bere hondakin urak Bilbo Handira eraman ote ditzakeen, ikusirik Amurriok Administrazio Batzarretatik Urduñako Hondakin Uren Araztegiraino doan arroara eramateko aurkeztu dituen alegazio ezberdinak, hau da, esan nahi dizut zera, batzarkideekin hitz egiten hasten zara, haiek baitira uraren Plan Gidaria taxutu dutenak, eta egia esan zur eta lur begiratzen dizute. Atzo aurkeztu zidaten organigrama horri dagokionez, ez dut uste Araba osoan egitekoa zen guztia egingo denik. Nire zalantzak ditut. Duela lau urte esan nion Agurtzaneri, berak, Alkate modura, ez zuela ikusiko Artziniegako Hondakin Uren Araztegia amaituta, eta nik ziurrenera zinegotzi modura amaituko nuela eta nik ere ez nuela ikusiko. Eta noan erritmoan denborak arrazoia emango dit.

Alkatea: espero dut ezetz.

- Joseba Elejalde Ribacoba: gero bada beste kontu bat oso deigarria egiten zaidana, eta hemen guztiok ezagutzen dugun gai batean sartzen gara, guztiok baitugu azala oso bigun Museo Etnografikoaren gaiari dagokionez. Museo Etnografikoak hainbat arazo ditu aurrekontuekin lotuta, eta urte askoan zehar Artziniegako Udalak, dirua geneukalako, beregain hartu ditu gastu guztiak. Eta duela urte batzuetatik hona ezin ditugu gastu horiek jasan eta administrazio ezberdinetara jo behar izan dugu nire ustez bidezkoa dena eskatzera. Hots, diru-laguntza bat, zuzena edo zeharkako, Arabar guztion ondarea mantentzeko eta...

Unai Gotxi Kastrexana: joan dena Artea Elkarte Etnografikoa izan da. Udala diozu baina zopa eskean joan dena Artea Elkarte Etnografikoa izan da.

Alkatea: Udala ere joan da zopa eske.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan diezazuket Unai ni Arabako Foru Aldundian bilkura askotan izan naizela, une honetan gure babesten gaituzten pertsonekin, eta beste batzuekin, Arabako Foru Aldundiari diruz lagun gaitzala eskatuz. Baina tira, noan horretara, paradoxikoa iruditzen zaidana eta onargarria iruditzen ez zaidana zera da, Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuetan, talde ezberdinetatik, ez sartzera zuzenketa bat joan den urtean eman zizkiguten 30.000 euro horiek, aurten eman ez dizkigutenak, bada, kontuan har daitezten. Ulertzen ez dudana da Alderdi Popularrak bai aurkeztea zuzenketa bat, eta Alderdi Popularrari esker aurten izatea. Baina ez zait buruan sartzen EAJ taldeak zuzentzen duen Gobernu taldetik diru-laguntza horren ezinbesteko premia ez azpimarratzea, zuzenekoa edo zeharkakoa, berdin zait, baina uste dut Ondare kontua dela, eta beharrezkoa Eskualde honentzat eta Udallerri honentzat. Nik ulertzen dut nik aurkezten badut eta gainerako taldeek aurkezten badute, azkenean kontuan hartzea edo ez kontuan hartzea, baina Alderdi Popularra soilik izatea nik horrelaxe eskatu bainion aurrekontuak negoziatzen ari zen pertsonari, partida hori sar zezala mesedez... Artziniegarako beste partida batzuk eskatu ahal nizkion, baina ez, ulertzen duen eta ulertzen dut hori dela garrantzitsuena, orain arte, aurten, hori ulertzen nuen, eta negoziazioa egin zuen Parlamentariari galde ziezaiola, egon al da gai honekin lotuta aurrekontuetan beste zuzenketarik? Eta ezetz esatea. Ez dela galdera bakar bat ere egin. Orduan, azkenean diot, Zergatik betetzen zaigu ahoa Museo Etnografikoaz mintzatzean azken batean Museo Etnografikoa defendatzen ez dugunean? Azala oso biguna dugu, Museo Etnografikotik ohartarazten digutenean guztiok baiez, bai, bai,



baina errealitatea ezetz da, ez, ez. Eta ondoren beste galdera bat gaiarekin lotuta, zer egingo da Udalak 2017an Museo Etnografikoan inbertitzea aurreikusten duen 29.000 euroekin? Izan ere, jakina, oso argi dago aurreko urteko 29.000 euroak aurten gastatuko zirela, edo hurrengoan, Museoaren mantenuan eta hartako premiak kudeatzen, baina orain ordea beste 29.000 euro ditugu aurrekontuetan, nik mahai gainean uztea eskatu nituenak Eusko Jaurlaritzaren 30.000 horiek lortzen genituen edo 30.000 horiek lortzen ez genituen ikusi arte. Zer egingo da diru horrekin? Berriz ere abendura arte tiradera batean sartuta izango dugu, Museo Etnografikoan inbertituko da, ezinbesteko, premiazkoa eta berehalako esku-hartze batean, edo udalerrian beharrezkoa den beste esku-hartzen batera bideratuko da?

Alkatea: atalez atal. Kultura Sailburuari Museoan egindako bilkura batean Udalak urte anitzeko hitzarmena eskatu zion behin eta berriz, eta partida nominatiboa ere bai. Idatziz ere eskatu dugu, partida nominatiboa eta urte anitzeko hitzarmena, Sailburuari eta Kultura Diputatuari. Erantzunak ezezkoak izan dira. Niri oso ongi iruditzen zait Alderdi Popularrak aurrekontuetan zuzenketa gisa partida nominatiboa aurkeztu izana, izan ere, Elkarteak nahiago zuen partida nominatibo bat diru-laguntzen programan aurkeztea baino. Orduan, horixe zen guk Udal modura defendatu behar genuena. Horrela gertatu ahal izan da, ez da lehen aldia, aurreko urteetan ere gauza bera gertatzen baitzen. Aurrekontuen partidari ez zen partida agertzen eta, gero, bada, zuzenketa bidez, uste dut aurreko urteetan Alderdi Sozialistaren zuzenketa bidez zela, partida nominatiboa Eusko Jaurlaritzan barneratzen zen. Foru Aldundian, legealdi honetara arte, ez zegoen partida bakar bat ere. Lehen urtean, ez dakit zuzenketa bidez izan ote zen, partida nominatiba jarri zen baita, eta ondoren Aldundiak, Kultura Diputatuak idatziz esan diguna da partida hori mantentzen saiatuko dela, baina ezin duela bermatu, ez du bermerik ematen, eta urte anitzeko hitzarmena, gu, Elkarte gisa, bilatzen aritu garen irtenbidea, ere ez du aurreikusten. Eta diruarekin egingo denari buruz, bada zorionez Aldundiaren diru-laguntza dugu eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza dugu, eta horri esker 29.000 euro horiekin zer egin behar dugun pentsatu behar dugu, museoan inbertsioen bat egin behar ote dugun, zein inbertsio egin behar diren, edo besterik gabe pentsatu, tira, gorde dezagun, izan ere, litekeena da urte batean Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren diru-laguntzak erortzea, eta Udala izatea dirua jarri behar duena.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo, nik ez dut ikusten, Artziniegako Udalak, egin behar diren obra txiki guztiekin, egiteko obra txikiekin, gogorarazten dizut horietakoren bat duela ia urtebetez eginda dagoen txosten teknikoan dagoela, hots, pasabide bat konpontzekoa bide bateko urak ez daitezen joan orube partikular batera, 1.500 edo 1.800 euro direnak, hori egiteke egotea eta 29.000 euro izatea tiraderan badaezpadan, Bizkaiko Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritzak Museo Etnografikorako diru-laguntza ematen ez badigu ere. Begira, asko sentitzen dut, lan egin beharko dugu partida nominatibo hori izaten jarraitzeko, guztiok orpoz orpo lan egiten jarraitu beharko dugu Museo Etnografikoa irekita mantendu dadin, izan ere, guztion ondarea da eta gure eginkizuna da, eta gure betebeharra eta gure ardura horrela mantentzea, irabazi asmorik gabe pertsona askori horrek eragindako lanagatik, hori izatea, piza horiek guztiak. Eta nik uste dut 29.000 euro horien inguruan esaten ari zaitzaizkidana, nik oso argi daukat 29.000 euro horiek Udalerrin honetara bideratuko nituela, izan ere, gauza asko eta asko behar ditugu, eta ez tiradera batean sartuta izan iaz gertatu zen moduan, joan den abenduan batzorde batean elkartu baikinenean museo etnografikotik soberan geratutako 29.000 euro horiekin zer egin ikusteko, eta mantenuan, lanetan edo museorako beharrezkoak diren obretan inbertitzea erabaki genuen, dakidanez. Baina berriro beste 29.000 euro ditugu, eta 2014ko 14.000 euro ditugu, museoaren aldetik udal altxortegira bideratu ez dena. Dugun zenbaterako ekonomikoan erreparatuta azkenean esaten duzun, Ez al dago udalerrian obrarik, esku-hartzerik edo inbertsiorik diru hori inbertitu ahal izateko? Bada barkatu esatea, nik baietz uste dut. Badaudela. Eta ez dela taxuzkoa 29.000 euro urte oso bat tiraderan edo bankuan gordeta izatea. Herritarrei irtenbideak eman behar zaizkie.

Alkatea: bai, eta museoan inbertitu behar dugu, eta gure gaitasunen barnean museoari ahalik eta egonkortasun gehien eman behar diogu.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo ez naiz esaten ezetz ordea, egonkortasuna une honetan badaukazu. Baina zer izan behar duzu? Hori zera da, esaten ari zaitzaizkit Administrazio modura altxortegiko soberakin bat izan behar duzula Museorako soilik dugun altxortegiko soberakinaz aparte.



Alkatea: ez, ez. Esaten dut aztertu egin beharko dugula. Baina hori ere aukera bat izan daitekeela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ezin duzu urtero 29.000 euro izan tiradera batean sartuta. Egin behar diren inbertsioekin. Eta aurrekontuak onartu aurretik esan nizan, eta aurrekontuen egunean esan nizan, eta museoan bertan zein inbertsio egingo diren, zein lan egingo diren. Lanak egin behar dira, esan zenidan. Eta orain berriro esaten didazu "lanak egin behar dira, inbertsioak egin behar dira eta museoari egonkortasuna eman behar zaio". Zein lan egin behar diren galdetuko dizut, jar iezazkidazu idatzita, eta esadazu zehatz-mehatz gauza bakoitzaren zenbateko ekonomikoa, eta orduan modu positiboan balioetsiko dut, eta ez naiz etorriko zuregana kontu honekin, izan ere, esango dizut, galdara konpondu, leihoa konpondu, ez dakit zer konpondu, 5.000, 4.000, 30.000, tira, bada azkenean 38.000 euroak edo 58.000 euroak xahututa, obretan, bikain, kito. Eta datozen 40 urteetarako obrak kenduta. Baina ez didazu gauza bat aurkezten ordea, eta 29.000 euroak tiradera batean mantentzen dizkidazu. Irailean gaude, abendua iritsiko da eta hiru taldeak berriro elkartuko gara 29.000 euro horiekin zer egin ikusteko, iaz gertatu bezala.

Joseba Vivanco Retes: bi ñabardura soilik, Legebiltzarraren kontuarekin. Bat Bildutik EH-Bildu legebiltzar taldeari esan zitzaiola Sailburuari galdera batzuk luzatzeko, ez dakit hemen egindako bisitaren ondoren izan zen, ez dut gogoan...

Joseba Elejalde Ribacoba: lehenago.

Joseba Vivanco Retes: bisitaren aurretik, Sailburuari galdera batzuk luzatzeko Artziniegako museoaren hitzarmenaren gaiari buruz, Sailburuaren idatzizko erantzunak, ez dakit bi hilabete beranduago izan ote zen, esaten zuen hitzarmenik ez zela egongo, eta ez zela kontuan hartuko. Eta aurrekontuaren gaiarekin, guk ere helarazi genien talde batzarkideko kideei dirua museora bideratzeko gure interesa, eta esan zigutena da Alderdi Popularrak aurkeztutako zuzenketa babestuko zutela. Haientzat Artziniegako museoak bost axola, baina guk helarazi genien partida bat sartzeko edo ez dakit zer babesteko, Alderdi Popularrarena babestu zen, bada, zentzu hertsiki horretan.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigok aipatu duen gaiari buruz, aipatu duzu bi urte daramatzazuela Arabako Foru Aldundiarekin 30.000 euroko partida batekin zuzenean museora doana. Jakina, ongi egin da lana, bikain, nik Arabako Foru Aldundiari buruz ez dut inolako aipamenik egin.

Alkatea: eta barkatu gauza bat ez baitut esan. Aurreko legealdian, Alderdi Popularra zegoenean, Sustapen Ekonomikoko Sailak aldeko erantzuna eman zuen. Gogoan dut Blanca Lacunza, hemen egon zela, eta esan zuen "beno, ikus dezagun nola egiten dugun", ez zen diru-laguntza nominatibo bat izan, laguntzen Dekretu batera aurkeztu beharra zegoen, baina egin zuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori esan nahi nuen, Arabako Foru Aldundiak, zorionez edo zoritxarrez, gutxi gorabehera bere aukeren barnean, beti artatu izan gaitu, eta hori on guretzat, baina esan nahi dizudana da azken batean, eta lehengora itzultzen naiz, hirurok eskutik hartuta joan behar dugula gauza gehiago lortze aldera. Izan ere, konturatzen bazarete, Laudion da, ni herenegun Kasinoaren berrinaugurazioan izan nintzen eta azken batean konturatzen zara ez dutela politikariek lortu, auzotarren batzorde bat izan da politikari guztiak ados ipintzea lortu duena. Bitxia da eta horrela da, eta zoritxarrez hau hemen esatea iritzi publikoan zalaparta sortzea da, esatea, Zein dira ditugun ordezkariak? Herri oso bat mugitzen bada politikariok haiekin egiten dugu aurrera, baina herritarrek egiten ez badute, bada, azkenean politikari bakoitzak bereari so. SOS parkeak izan da 9.000.000 lortu dituen parkerako, 9.000.000 euro. Hiru urtetan.

Alkatea: museoaren kasuan, hasiera batean Aldundia izan zen PP alderdiarekin batera esan zuena "erantzun bat emango dut". Une hartan Kultura Saila Alderdi Sozialistaren baitan zegoen. Zero zegoela esan zuen. Gero, ondoren, diru-laguntza nominatiboa onartu egin da, Eusko Legebiltzarrean ipini zen Alderdi Sozialistaren zuzenketa batekin. Ondoren Foru Aldundian, EAJ alderdiarekin, diru-laguntza nominatibo bat dago, eta EAJ Eusko Jaurlaritzan dagoela ez dago diru-laguntza nominatibo bat eta Alderdi Popularra da zuzenketa aurkezten duena eta taldeen adostasunarekin onartzen da partida nominatiboa. Hots, hemen guztiok izan

Ayuntamiento de Artziniega
(Álava)



Artziniegako Udala
(Araba)

dira uneren batean ezetz esan dutenak, eta ondoren baietz. Eta zoritxarrez urte anitzeko hitzarmena ez da atera, irtenbide ideiala izango zatekeena.

Eta jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da, aipatutako eguneko hamabiak eta hogeita bost minutuan, zeinaren guztiaren gainean fede ematen baitut.